



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 28a

159. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuak arautzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).
- Foru Legea, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (31. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuak arautzen dituen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuak arautzen dituen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuak arautzen dituen Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENA

Jokoaren gaineko tributuen ordainarazpenean zehaztasunez mugatu behar dira Foru Komunitatearen eskumenak eta Estatuarenak.

Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legean ezartzen dira Estatuaren eskumenak. Lege horrek Estatuari esleitzen dizkio bitarteko elektronikoko, informatiko, telematikoko eta interaktiboen bidez gauzatzen diren joko jardueren gaineko eskumenak. Horrez gain, Estatuak estatu mailako loterien joko jardueran duen erreserbari eusten dio, Estatu Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen eta ONCE-Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren alde.

Bere aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.16 artikulua kasinoko, joko eta apustuen arloko eskumen osoak esleitzen dizkio Nafarroako Foru Komunitateari, kirol eta ongintzaren arloko elkarrekiko apustuak salbuetsita.

Eskumen eskusibo hori garatzeko, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 1. artikulua mota guztietako joko eta apustuak

arautzen ditu Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen arloan.

Aipatu eskumenen mugaketarekin bat, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 40. artikulua Nafarroaren eskumenak arautzen ditu jokoaren gaineko tributuei dagokienez. Zehazki, haien ordainarazpenari eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari dagokienez.

Hortaz, 40. artikuluen 1. eta 2. idatz-zatietan konexio puntuak ezartzen dira Foru Komunitatearen tributuko arloko eskumenak finkatzeko, joko presentzialei edo Foru Komunitatearen lurraldean bakarrik garatzen diren jokoei dagokienez.

Horrekin bat, 40. artikuluen 1. idatz-zatian ezartzen da ezen zori, enbido eta ausazko jokotan Foru Komunitateari dagokiola ordainarazpena, zerga-egitatea Nafarroan gertatzen bada.

Zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko tributuei dagokienez, artikuluko horren 2. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, Foru Komunitateari dagokio ordainarazpena, baldin eta baime-na Nafarroan eman behar bada.

Horrez gain, 40. artikuluen 6. idatz-zatiaren ondorioz, 1. eta 2. idatz-zati horietan aipatzen diren tributuetan, Foru Komunitateak bere araudi propioa eman ahalko du, baina zerga-egitatea eta subjektu pasiboa Estatuak une bakoitzean ezartzen dituenak izanen dira.

Bestalde, 40. artikuluen 3., 4., 5., 7. eta 8. idatz-zatiek Nafarroako Foru Komunitatearen eskumena mugatzen dute Estatuaren eskumeneko joko jardueren gaineko zerga ordainarazteko, hau da, aipatu 13/2011 Legeak arautzen dituen jardueren gainekoa.

Horretan guztian oinarrituta, foru lege honek Estatuarekin izenpetutako Hitzarmen Ekonomikoak Nafarroari arlo honetan esleitzen dizkion eskumen zabalak erabiltzen ditu. Eskumen horiek,

orain arte, jokoan gaineko tributu batzuen zerga-oinarriak eta karga-tasak onesteko erabili dira bakarrik, Zenbait zerga aldatu eta beste tributuenri batzuk hartzen dituzten 23/2010 eta 20/2011 Foru Legeetan (azkena indarrean dago), baina tributu horiek erabat arautu gabe. Alderdi orokor batzuk ere jorratzen dira arau honetan, subjektu pasiboen betebeharrak material eta formalei eta tributu arloko arau-hauste eta zehapenei lotuak, eta behar diren gaikuntzak eta igorpenak egiten dira.

Azken batean, foru lege honen helburua beste pauso bat ematea da Nafarroako Foru Komunitateari esleitutako araugintzarako eta zerga kudeaketarako eskumen ugarien zerrenda garatu eta burutzeko prozesuan.

Foru lege hau hamabost artikuluz, xedapen indargabetzaile batez eta bi azken xedapenez osatuta dago. Bi kapitulu dauzka. Lehenbizikoan zozketen, tonbolen, apustuen eta ausazko konbinazioen bidezko jokoan gaineko tributuak eta zori, enbido eta ausazko jokoan gainekoak arautzen dira; bigarrenean, joko jardueren gaineko estatuko zergaren ordainarazpena jorratzen da.

Estatuarekin izenpetutako Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, arauaren aplikazio eremua eta tributuen zerga-egitateak zehazten dira. Salbuespenak arautu ondoren, joko modalitate bakoitzaren zerga-oinarria zehazten da, eta karga-tasak finkatzen dira.

Arau berriak sartzen dituen bi aldaketa nabarmenenak dira bingoaren karga-tasa jaistea (100eko 25etik 100eko 20ra) eta apustuen karga-tasa igotzea (100eko 10etik 100eko 12ra).

## LEHENENGO KAPITULUA

### Zozketen, tonbolen, apustuen eta ausazko konbinazioen bidezko jokoaren gaineko tributuak eta zori, enbido eta ausazko jokoan gainekoak

#### 1. artikulua. Aplikazio esparrua.

Hitzarmen Ekonomikoaren 40. artikulua 1. eta 2. idatz-zatietan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateari kasu hauetan dagokio tributuen ordainarazpena:

a) Zozketen, tonbolen, apustuen eta ausazko konbinazioen bidezko jokoetan, baimena Nafarroan eman behar denean.

b) Zori, enbido eta ausazko jokoetan, zerga-egitatea Nafarroan gertatzen denean.

#### 2. artikulua. Zerga-egitatea.

Jokoaren gaineko tributuen zerga-egitatea da Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan sartuta-

ko joko jarduerak baimendu, antolatu edo gauzatzeari.

#### 3. artikulua. Salbuespenak.

Tributu hauetatik salbuetsita dago joko hauek baimendu, antolatu edo gauzatzeari:

a) Irabazi-asmorik gabeko entitateek antolatutako zozketak eta tonbolak, baldintza hauek betetzen badituzte:

– Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako zerga araubidea aplikatu behar bazaie.

– Joko jardueran lortutako diru-sarrerara garbia bere helburu soziala edo berariazko helburua osatzen duten jardueretara bideratzen badute. Diru-sarrerara garbitzat hartuko da jokitik lortutako diru-sarreraren zenbateko osoa ken jokalariei irabazi edo sari gisa emandako zenbatekoa.

– Jokoaren antolaketa edo gauzatzeari bakoitzean eskaintzen diren sarien zenbateko osoa 10.000 eurotik beherakoa bada.

b) Gehienez 1.800 euroko zerga-oinarria duten zozketak, tonbolak eta ausazko konbinazioak. Zenbateko hori banaka zenbatuko da, antolatutako edo gauzatutako jarduera bakoitzeko.

#### 4. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Joko enpresak eta joko eta apustuak antolatu eta ustiatzeko baimenen titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak dira subjektu pasiboak.

2. Bestela, besteak beste joko jarduerak gauzatzeari edo antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izanen dira subjektu pasiboak.

#### 5. artikulua. Sortzapena.

1. Oro har, jokoaren gaineko tributuak baimenarekin edo, hala bada, komunikazioarekin sortzen dira. Bestela, jokoaren antolaketarekin edo gauzatzeari sortuko dira.

2. Aldi baterako baimen, gauzatzeari edo antolaketa bada, urte natural bakoitzaren lehenbiziko egunean sortuko da, salbu eta baimena lortzen den urtean, sortzapena baimenaren egunean sortuko baita.

3. Bingo jokoaren kasuan, baimen administratiboaren entitate titularrari edo bingo jokoa kudeatzen duen zerbitzuen enpresari kartoiak ematen zaizkien unean sortzen da tributua.

Hala ere, kartoi birtual edo elektronikoen bidezko bingo jokoan, bingo aretoan ematen diren unean sortuko da tributua.

4. 9. artikulua 5. idatz-zatian xedatutakoa galarazi gabe, makinaren edo tresna automatikoen bidezko jokoan, ustiapena baimendu ondoren eta baimenaren hurrengo urteei dagokienez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da tributua.

Urtarrilaren 1ean baimena baja administratiboren egoeran badago, tributua ez da sortuko baimen hori birgaitu arte.

Makina bat kendu eta, aldi berean, antzeko ezaugarriak dituen mota bereko beste bat jartzen bada, ez da kuota berririk sortuko.

#### 6. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zerga-oinarria honako hau izanen da:

a) Kasino jokoetan, jokotik lortzen diren diru-sarrerara garbiak. Diru-sarrerara garbitzat hartuko da jokotik lortutako diru-sarreraren zenbateko osoa ken operadoreak jokalariei irabazi edo sari gisa emandako zenbatekoa. Diru-sarrera horietan ez da zenbatuko jokorako erreserbatutako aretoetan sartzeko ordaindu beharrekoa.

b) Bingo jokoan, jokalariek jokoan parte hartzeko ematen dituzten zenbatekoen batura ken sarietarako zenbatekoa.

c) Makina edo tresna automatikoen ustiapenaren bidezko jokoan, ustiapenaren xedeko makinaren edo tresna automatikoen kopurua.

d) Apustuen bidezko jokoan, apustutako zenbatekoen batura ken jokalariek lortutako sariaren zenbatekoa.

Apustu gurutzatuetan subjektu pasiboen diru-sarrerara propioak jokatutako zenbatekoak ez badira eta, besterik gabe, apustua irabazi duten jokalariei helarazten badizkiete, komisioek eta jokalariek joko jarduerari lotutako zerbitzuengatik pagatutako zenbatekoek osatuko dute zerga-oinarria.

Hala ere, pilota partidetan edo landa edo toki izaera duten bestelako kirol-jarduera edo txapelketetan egindako apustuei dagokienez, urtero antolatzen diren partida edo jardunaldi kopurua

izanen da zerga-oinarria, betiere apustuak jardueraren horiek gauzatzen diren tokian bertan soilik egiten badira eta kanpoan egindako apustuekin bazen ez badira.

e) Txartelen eta loterien bidezko jokoan, jokalariek billete edo txartelengatik ordaindutako zenbatekoen batura, kenkaririk gabe. Baimen administratiborik gabeko billete edo txartelen bidezko jokoan antolatzen edo gauzatzen bada, jaulkitako txartelen prezioen batuketa osoa izanen da zerga-oinarria.

f) Zozketen eta tonbolen bidezko jokoan, eskainitako billeteen edo txartelen zenbatekoen batuketa osoa. Euskarri fisikorik ez bada, lortutako diru-sarreraren zenbateko osoa.

g) Ausazko konbinazioen bidezko jokoan, parte hartzaileei eskainitako sariaren balioa. Ondorio horietarako, sariaren balioa haien merkatu balioa izanen da, gehi saria eskuragarri jartzeko behar diren gastu guztien batuketa.

2. Zerga-oinarria zehazteko, oro har zuzeneko zenbatespeneko araubidea erabiliko da.

Zenbatespen objektiboko araubidearen bidez eta hitzarmenaren bidez ere zehazten ahalko da zerga-oinarria, erregelamenduz ezarritako moduan. Kasu horietan, ikur, indize edo modulu gisa, billeteen, txartelen edo partaidetza frogagiriaren kopurua eta balioa erabiliko dira, jaulki diren bitartekoa eta sariaren zenbatekoa edozein direlarik ere, bai eta jarduera egunen kopurua edo jarduera gauzatzen den herriaren herritar kopurua ere.

3. Lortuko diren diru-sarrerak aurretik jakitea edozein arrazoiengatik ezinezkoa bada, behin-behineko likidazioa egiten ahalko da, lortzen ahal diren diru-sarreraren arabera, lortutako diru-sarreraren behin betiko zenbatekoa ziurtatu ondoren bidezko den tributua likidazioa galarazi gabe.

**7. artikulua.** Kasino jokoei aplikatu beharreko karga-tasa.

Kasino jokoetan urteko tarifa hau aplikatuko da:

Bi zenbateko hauen arteko zerga-oinarri tartea	Tasa (%)
0 eurotik 1.322.226,63 eurora	20
1.322.226,64 eurotik 2.187.684,06 eurora	35
2.187.684,07 eta 4.363.347,88 bitartean	45
4.363.347,88 eurotik gora	55

Tarifen ezarritako tariteak independenteak dira, eta horregatik zerga-oinarriaren zati bakoitzak dagokion tarterako ezarritako tasaren arabera ordainduko du zerga.

**8. artikulua.** Bingo jokoari aplikatu beharreko karga-tasa.

Bingo jokoari aplikatu beharreko karga-tasa 100eko 20 izanen da.

**9. artikulua.** Makina edo tresna automatikoen ustiapenaren bidezko jokoetan aplikatu beharreko kuotak.

1. Jokatzeko prestatutako makinak edo tresnak ustiatzen badira, kuota zehaztuko da makinaren sailkapenaren arabera. Sailkapen hori kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiaren arabera egiten da.

2. "B" motako makinak edo saria duten jolas-makinak:

a) Urteko kuota: 3.000 euro.

b) "B" motako makina edo tresna automatikoak badira eta aldi berean bi jokalarik edo gehiagok parte har badezakete (betiere haietako bakoitzaren joko beste egindakotik independentea bada), urteko kuota honako hau izanen da: 3.000 euro, gehi makinak onartzen duen jokalaria kopurua 900 zenbakiarekin biderkatuz ateratzen den emaitza.

c) "B" motako makina edo tresna automatikoak badira eta aldi berean bi jokalarik edo gehiagok parte har badezakete (haietako bakoitzaren joko beste egindakoaren mende badago), urteko kuota honako hau izanen da: 4.020 euro, gehi makinak onartzen duen jokalaria kopurua 1.000 zenbakiarekin biderkatuz ateratzen den emaitza.

3. "C" motako makinak edo ausazkoak:

Urteko kuota: 4.020 euro.

4. Saria jenerotan ematen duten jolas-makinak:

Urteko kuota: 100 euro.

5. Ustiatzeko baimena lortzen den urtean berean, edo, kasua bada, baimen hori eten, baliogabetu edo amaitzen denean, kuota hiruhileko naturalan hainbanatuko da, baimena ematen denetik edo baimen hori eten, baliogabetu edo amaitzen den arte zenbatuz.

**10. artikulua.** Apustuen bidezko jokoetan aplikatu beharreko karga-tasa.

1. Hurrengo idatz-zatian xedatutakoa galarazi gabe, apustuen bidezko jokoei dagokien karga-tasa 100eko 12 izanen da, apustuak egiten diren bitartekoa edozein delarik ere.

2. Kirol edo lehiaketa jardueretan oinarritutako apustuetan, jarduera horiek gauzatzen diren tokian bertan soilik egiten badira eta kanpoan egindako

apustuekin batzen ez badira, berariazko kuota hauek aplikatuko dira:

a) Pilota partidetan egindako apustuek 150 euroko kuota finkoa ordainduko dute zerga gisa, antolatutako partida bakoitzeko.

b) Landa edo toki izaera duten bestelako kirol-jarduera edo txapelketetan egindako apustuek 20 euroko kuota finkoa ordainduko dute zerga gisa, antolatutako jardunaldi bakoitzeko, urtean 50 jardunaldi baino gutxiago egiten badira, edo 30 eurokoa, urtean 50 jardunaldi edo gehiago egiten badira.

**11. artikulua.** Txartelen eta loterien jokoei aplikatu beharreko karga-tasa.

Txartelen eta loterien bidezko jokoari aplikatu beharreko karga-tasa 100eko 15 izanen da.

**12. artikulua.** Zozketen, tonbolen eta ausazko konbinazioen jokoei aplikatu beharreko karga-tasa.

1. Oro har, zozketen eta tonbolen jokorako karga-tasa 100eko 12 izanen da.

Hala ere, 100eko 1eko tasa aplikatuko da bi baldintza hauek betetzen dituzten zozketa eta tonboletan:

a) Antolatzailea Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak, ondorio horietarako, izaera sozialekotzat deklaraturako entitatea izatea, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 17.3 artikuluan eta bere erregelamenduaren 6. artikuluan ezarritako betebeharren eta baldintzen arabera.

b) Lortutako diru-sarrera garbia entitate antolatuaren xedea edo berariazko helburua osatzen duten jardueretara bideratzea.

2. Ausazko konbinazioen jokoaren tributu tasa 100eko 10 izanen da.

**13. artikulua.** Betebehar formal eta materialak tributuak ordaintzeko.

1. Jokoaren gaineko tributuen subjektu pasiboak behartuta egonen dira ezartzen diren aitorpenak edo autolikidazioak aurkeztera tributu horien gainetik. Dagokion tributu zorra aitorpena aurkeztean zehaztuko da, eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren titularrak, kasu bakoitzerako, ezartzen dituen tokian, moduan eta epeetan ordainduko da.

2. Subjektu pasiboek zehapenen berri emanen diote tributu administrazioari, joko jarduerak egiteko emandako baimenei edo erabilitako lokal edo establezimenduei dagokienez.

3. Jokoaren gaineko tributuen subjektu pasiboen Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren titularrak ezartzen dituen erregistro liburuak eraman beharko dituzte.

4. Jokoa bitarteko tekniko, telematiko edo interaktibo bidez garatzen bada, bitarteko horiek zerga-oinarria zorrozki zehaztea bermatzen duten kontrol elementuak edo prozedura izan beharko dituzte.

#### **14. artikulua.** Arau-haustek eta zehapenak.

Jokoaren gaineko tributuei dagozkien arau-haustek Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

### **BIGARREN KAPITULUA** **Joko jardueren gaineko zerga**

**15. artikulua.** Joko jardueren gaineko zergaren ordainarazpena.

1. Hitzarmen Ekonomikoaren 40. artikuluan xedatutakoarekin bat, Estatuaren eskumeneko joko jardueren gaineko zergaren ordainarazpenean, hau da, Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legean arautzen diren jardueren gaineko zergaren ordainarazpenean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

2. Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren titularrak aitortpena eta ordainketak egiteko ereduak onetsiko ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatuko ditu, Estatuako Administrazioak ezartzen dituen etik asko aldendu gabe.

3. Subjektu pasiboek, helbide fiskala edozein tokitan dutela ere, ekitaldian lurralde bakoitzean izandako eragiketen bolumenaren arabera ordainduko dizkiote tributuei administrazio bakoitzari.

Ekitaldian lurralde bakoitzean izandako eragiketen bolumenaren proportzioa zehazteko, kontuan hartuko da Nafarroan eta lurralde erkidean egoiliarren diren jokalariek jokatutako zenbatekoen garrantzi erlatibo Proportzio hori aplikatuko zaie, halaber, jokalariaen egoitza identifikatzeko modurik ez duten joko modalitateetan lortutako kuota likidoei, bai eta Espainiako lurraldeko egoiliarren ez diren jokalariaen kuotei ere.

4. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, jokalariaen egoitza identifikatu gabe egiten diren apustueta, kirol eta ongintzaren arloko elka-

rrekiko apustueta nahiz estatuko elkarrekiko apustu hipikoetan, zerga Nafarroako Foru Komunitateak ordainaraziko du apustua egiten den salto-lurralde horretan dagoenean.

5. 1. idatz-zatian xedatutakoa galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateak karga-tasak handitzen ahalko ditu, Estatuak unean-unean ezarrita dituen tasen ehuneko 20, gehienez ere, egoitza fiskala lurralde horretan duten operadoreek, antolatzaileek edo tributuei hauek kargatutako jarduerak garatzen dituztenek gauzatutako jardueren kasuan; igoera aplikatuko zaio, soilik, egoitza fiskala Nafarroako lurraldean dutenek jokoan izandako partaidetzari dagokion zerga-oinarriaren zati proportzionalari.

6. Zergaren ordainarazpena Foru Komunitateari dagokionean, tributuei dagozkien arau-haustek Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

**Xedapen iragankor bakarra.** Entitate sozialek antolatutako tonbolak.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak izaera sozialekotzat deklaraturako entitateek antolatzen dituzten tonboleak, azken bost urtetan salbuetsita egon badira, hobari hau izanen dute hurrengo bost urteetako bakoitzean, 2017etik aurrera:

- 2017. urtean, 100eko 90.
- 2018. urtean, 100eko 70.
- 2019. urtean, 100eko 50.
- 2020. urtean, 100eko 30.
- 2021. urtean, 100eko 10.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, indarrak gabe gelditzen da Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legearen 10. artikulua.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2017ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.



## **Foru Legea, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra hein batean aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra hein batean aldatzen duena.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Foru Legea, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra hein batean aldatzen duena.**

### ZIOEN AZALPENEA

Foru lege honek Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren aldaketa partzial bat egitea du xede, jabeturik lege horrek Nafarroako tributuen sistemaren oinarritzeko printzipioak garatzen dituela eta Foru Komunitateko zerga arloko antolamenduko oinarritzeko araua dela. Horrela, zioen azalpenean esaten duenez, zergadunen eta Foru Komunitateko zerga administrazioaren arteko harremanen funtsezko euskarri da, eta tributuen aplikaziorako ardatz Nafarroan.

Hori kontuan hartuta eta ikuspegi horretatik ikusita, honen bidez egiten diren aldaketen asmo orokorra da tributuen arloko prozedurak modernizatzea eta herritarren eta zerga administrazioaren arteko harreman horiek sendotu eta hobetzea, Nafarroako herritarrek zerga betebeharrak osokiago bete ditzaten ziurtatzeko, betiere segurtasun juridikoa eta zilegizko konfiantza gero eta handiagoak diren esparru batean.

Gogoratu beharra dago Zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzei buruzko abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legeko zazpigarren artikulua jadanik heldu ziola Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra egokitzeko lanari, hura doitze aldera errealitate sozialean eta tributuen arloko harreman juridikoan eragiten duten inguruabar juridiko eta ekonomiko-en bilakaera etengabeari.

Foru lege honek, beraz, aipatutako 23/2015 Foru Legeak ezarritako ildoari jarraitzen dio, eta erdietsi nahi dituen xedeak hiru multzo nagusitan sailka daitezke.

Lehenengo eta behin, zerga administrazioaren eskumenak eta ahalmenak sendotzea iruzur fiskalaren prebentzioari eta haren kontrako borrokari begira. Arlo horretan azpimarratu beharra dago Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrari V. titulu berri bat eransten zaiola, “Ogasun publikoaren kontrako delituaren kasuetarako jarduketak” izenekoa, osoki eskainia administrazio prozedura bat arautzeari, zeinak Nafarroako Zerga Ogasunari bide emanen baitio ikertutako zerga egitatei dagozkien tributuen likidazioak egin eta likidazio horien zenbatekoak kobratzeko diru-bilketako jarduketak egiteko, delitu fiskalaren zantzuak egoteagatik zigor prozedura bati hasiera eman zaionean ere.

Bigarrenik, foru legeak zerga arloko foru araudia egokitu nahi du Europar Batasuneko zuzenbidearen eskakizunetara, bi gai hauei dagokienez: bata, Estatuko laguntzak berreskuratzea; eta bestea, finantza entitateei informazioa ematearen betebeharrak ezartzea, izan beharreko arretaren eta elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Hirugarrenik, tributuen arloko araudian hobekuntza tekniko batzuk sartzen dira, bai eta araudi hori Nafarroako Zerga Ogasunaren funtzionamenduan pilatu den eguneroko esperientziara egokitzeko ere. Arlo horretan aipatzekoak dira gai hauekin lotutako neurrietan gertatutako aurrerapausoak: preskripzioa; tributuen zor bat bidegabea deklaratu denean haren exekuzioa bertan behera uzteko aurkeztutako abal eta bermeen kostua itzultzea zergadunei; eta tributuen arloko datuak Nafarroako administrazio publikoei lagatzea beren eginkizun eta eskumenak bete ditzaten.

Foru legeak sustatzen dituen aldaketak zehatzago azaltzeko, bidezkoa da proposatutako xedeen lehen multzoari begiratzea, zeina baita tributuen arloko Administrazioak iruzur fiskalaren prebentzioan eta haren kontrako borrokaren arloan dituen eskumenak eta ahalmenak sendotzei dagokiona. Esan dugunez, arlo honetan nabarmentzekoa da jarduketaren eta prozeduraren arautze berritzailea, zerga arloko ikuskaritzak Ogasun Publikoaren kontrako delitu zantzuak aurkitzen dituen kasurako. Ezarritako jarduketaren eta prozeduraren oinarria Zigor Kodearen 305.5 artikuluan dago (abenduaren 27ko 7/2012 Lege Organikoaren bidez egindako aldaketaren arabera), zeinean aukera bat irekitzen baita Zerga Administrazioaren diru-bilketarako prozedura ez dadin eten, prozedura penalaren hasieraren ondorioz, delitu fiskalaren



kasuan. Araitze berri honen alderdi nagusiak hauek dira:

1. Aipatutako lege organikoaren jarraibideak betetzen dira: delitu fiskalaren zantzuak dituzten tributu prozeduretan, arau orokorra izan da Nafarroako Zerga Ogasunak bere jarduketak ez gelditzea, baizik eta tributu likidazio bat egitea, eta tributu zorrari dagozkion kasuko diru-bilketako jarduketak garatzea. Horrenbestez, tributu-zorra tributu-likidazio aipatu horren bidez zenbatetsiko da kasu gehienetan, baina ezertan galarazi gabe epailearen erabaki bat egotea geroago, hari kontrajarria edo hura eten dezakeena. Aurrekoa gorabehera, zenbait kasu murriztu zedarrizten dira, zeinetan tributu jarduketak geldiarazten ahalko baitira tributu likidaziorik egin gabe.

Azken finean, zerga prozedura bat ezartzen da, halakoa non kasu gehienetan Zerga Administrazioa behartuko baitu tributu likidazioak eta haien diru-bilketa egitera, are zigor prozedura bat tramitatzeari ekiten zaion kasuetan ere.

2. Jarduteko modu berri horrek egungo egoera nabarmen hobetzea ahalbidetuko du; izan ere, gaur egun ez dira nahikoak zigor arloko epaitegiek diru-bilketarako eta kautelazko neurriak hartzeko aurrera eramandako jarduketak, eta horrek ahalbidetzen du, askotan, ustezko arau-hauslearen ondarea "desager" dadin.

3. Arauaren eduki berriari esker, gainera, Ogasun Publikoaren kontrako delitu baten ustezko egileei eman zaien mesedezko tratua amaituko da. Izan ere, zerga arloko arau-hauste administratibo baten egilea gaur egun behartuta dago likidazioaren zenbatekoa ordaintzera edo likidazio-egintza administratiboaren exekutibotasunaren etetea bermatzera. Delitu fiskal baten ustezko egilea, ordea, ez. Proposatzen den araudiarekin, delitu fiskalaren ustezko egileak ere ordaindu edo abala eman beharko du zerga administrazioak agindutako likidazioaren tributu-egintzaren exekutibotasunaren etetea bermatzeko.

4. Aurrekoa gorabehera, ordena penalaren jurisdikzioaren lehentasuna mantentzen da, zigor arloko epaileak diru-bilketarako egintza administratiboak eten edo aldatzen ahalko baititu eta, horrekin batera, egokitzen jotzen dituen kautelazko neurriak hartu eta Zerga Ikuskaritzak agindutako tributu-likidazioaren exekutibotasuna eteteko baimena eman; horrez gain, ordena penalaren lehentasuna berretsita gelditzen da epaileak bere epaian behin betikoz frogatuzat deklaritzen dituen egitateek tributu-likidazioaren aldean izan duten gailentasunarekin. Egitate horien ondorioz, kasua bada, zigor bat ezarriko da eta, hala-

ber, tributu-iruzurraren behin betiko zenbatespena eta kalifikazioa eginen dira.

5. Beste berritasun nagusi bat hau da: Zigor Kodean xedatutakoarekin bat, Zerga Ikuskaritzak bi zerga likidazio desberdin egiten ahalko ditu: lehenbizikoan sartuko dira Ogasun Publikoaren kontra egindako balizko delituarekin lotura daukaten zerga betebeharraren elementuak; eta bigarrenean, berriz, balizko delitu fiskalarekin loturarik ez daukaten zerga betebeharraren elementuak. Delituarekin loturarik ez daukaten elementuei dagoen azken likidazio horren tramitazioak ikuskapen prozedura arruntaren arabera beharko du izan. Beste likidazioak, aldiz, hau da, delituarekin lotutako elementuenak, bere tramitazioan ez du beteko ikuskapen prozedura arrunta, eta berariazko prozedura ezartzen zaio.

Zerga administrazioaren ahalmenak indartzeko neurrien multzoan, ezin da aipatu gabe utzi tributu erantzukizunaren deribazioaren arloko jarduketaren hobekuntza. Zerga Iruzuraren aurkako Planean jasotako proposamen baten ildotik, lehen aldaketa da Tributu-uruzko Foru Lege Orokorraren 32. artikulua 3. idatz-zatian jasotako erantzukizunaren izaera aldatzea ("beloa altxatzea" izenekoaren kasuei dagokiena), erantzukizun subsidiarioa izatek solidarioa izatera igarotzeko.

Proposatutako aldaketaren xedea da sozietate-sareen zorrak kobartzeko aukerak areagotzea, beloa altxatzearen doktrinaz baliatzea beharrezkoa denean.

Bigarren aldaketa 32.2 artikuluan gertatzen da, zeinak arautzen baitu konkurtso-administratzaileen eta sozietate-likidatzaileen erantzukizun subsidiarioa, konkurtso-egoeran edo likidazio-prozesuan dauden zergadunek dituzten tributu-betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren zuzemnak egin ez dituzten kasurako.

Aipatutako 32.2 artikulua aldaketaren funtsa da, batetik, zabarkeriak edo asmo txarrak utz diezaiotela erantzukizuna baieztatu ahal izateko baldintza izateari. Horren arrazoia da maiz zaila izaten dela, erantzukizuna baieztatze aldera, zabarkeria edo asmo txarra frogatzea. Pilatutako esperientziak dio, aldiz, Diru-bilketa Zerbitzuak halako kasu batzuk aurkitu izan dituela, eta horietan erantzukizun-baieztatzea eragotzia suertatu dela. Eta gogoratu behar da gure inguruko zerga administrazioek hala dutela araututa.

Bestetik, arau horretan berean erantzukizun subsidiarioko beste kasu bat ezartzen da konkurtso-administratzaileentzat eta sozietateen likidatzaileentzat, tributu kredituen aldean lehentasunik ez duten hirugarrenen kredituak ordaindu direne-

koa, eta muga gisa izanen du bidegabeki ordaindutakoaren zenbatekoa.

Garrantziko beste aldaketa bat zeharkako zenbatespenaren araubideari dagokiona da, eta helburu du hark egun dituen akatsak eta gabeziak zuzentzea. Horrela, zeharkako zenbatespenean erabili beharreko datuen jatorriak eta sorburuak zehazten dira: zeinu, indize eta moduluenak, zergadunak zenbatespen objektiboko metodoa aplikatzea izan badu; enpresak berak emandako informazioarenak; azterlan estatistikoarenak edo zerga administrazioak hartutako lagin batenak. Adierazten da, halaber, zeharkako zenbatespena aplikatzen ahal zaiela salmenta eta diru-sarrerei soilik, edo erosketa eta gastuei soilik, edo bie aldi berean, ezkutatutako datuei edo ez daudenei begiratuta. Eta jasandako BEZ kuoten kengarritasuna onartzen da, zergaren araudiak oro har eskatzen dituen fakturak edo agiria ez daudenean ere, betiere Administrazioak datuak edo zantzuak eskuratzen baditu, frogatzen dutenak ezen zergadunak egiaz jasan dituela kasuko BEZ kuotak.

Horrez gain, fakturaren froga-balioa zehazten da. Faktura izanen da, aurrerantzean ere, gastu kengarriak eta zerga-oinarriko edo kuotako kenkariak justifikatzeko bide nagusia. Aurrekoa gorabehera, faktura ez da frogabide pribilegiatua izanen eragiketen existitzeari dagokionez; horregatik, Administrazioak arrazoizko zalantzak dituelarik eragiketaren egiazkotasunaz (hau da, zalantzan jartzen duenean ondasun-entregaren edo zerbitzu-ematearen errealitate edo izatea), faktura ez da aski froga izanen, eta zergadunak aurkeztu beharko ditu eragiketen errealitateari buruzko frogak.

Foru legearen helburuen bigarren multzoak zerga arloko foru araudia Europar Batasuneko zuzenbidearen eskakizunetara egokitzea du xede. Jakina denez, lehia askearen printzipioa Europar Batasuneko merkatu bakarraren funtsezko zutabe-etako bat da. Printzipio horren ondorioa da kide diren estatuek lehia askea faltsutu edo oztopatzeko hartutako neurri guztiak ezabatu behar direla. Baldin eta Europako Batzordeak, kasuan kasuko neurria aztertu ondoren, ondorioztatzen badu laguntza bateraezina dela Batasuneko legeriarekin, estatu kideak laguntza berreskuratzea beharko du, berandutze-interesak barne. Gaur egun, estatu-laguntzak berreskuratzearen betebeharra 2015/1589 EB Erregelamenduan araututa dago. Estatu-laguntzak berreskuratzea ahalbidetzen duen tributuzko-prozedura berariazkorik ez izatea hutsune bat da araudian, foru legeak bete egin nahi duena. Horretarako, Tributuei buruzko Foru Lege orokorrari titulu berri bat eransten dio, VI.a, zerga

arloko estatu-laguntzak berreskuratze erabaki horiek betetzeko prozedurak arautzen dituen.

Argitu beharra dago ezen, estatu-laguntzen berreskurapenean, Foru Komunitateko zerga administrazioa Europako Batzordeak inposatzen duen erabaki baten betearazle hutsa dela, eta bere esku-hartzea gai horri buruz Batasunean onartutako araudira egokitu behar duela.

Estatu-laguntzak berreskuratze prozeduren oinarriko ezaugarriak hauek dira:

a) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziarekin bat, irmo bihurtu diren egintza administratiboak aldatzeko aukera ezartzen da.

b) Laguntza berreskuratzeak sortzen dituen tributuzko zorrak ezin izanen dira geroratu, ez eta zatikatu ere.

c) Preskripzioari dagokionez funtsezko aldaketa bat ezartzen da. Epea hamar urtekoa izanen da, halaxe eskatzen baitu Batasunaren araudiak. Horregatik, kasu hauetan ez dira aplikatuko Nafarroako araudian jasotako preskripzio epeak, Batasunaren erabakia betetzetik heldu den tributuzko zorrari dagokionez.

d) Berreskuratze-erabakiak betetzeko bi prozedura ezartzen dira. Bata, berreskuratze-erabakiak ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuetakoren bat erregularizatu beharra dagoenerako; eta bestea, erregularizazio hori beharrezkoa ez denerako.

Horrez gain, adierazten da berreskuratze-erabaki horiek ikuskapen prozedura arruntaren bidez ere betetzen ahalko direla, zergadunari beste betebeharrak batzuk edo betebeharraren beste elementu batzuk egiaztatzen zaizkionean, berreskuratze-erabakiaren xede ez direnak.

Bestalde, hamaseigarren xedapen gehigarria aldatzen da, Nafarroako foru araudian tokia izan dezaten informazio-betebeharrek eta behar bezalako arretari dagozkion betebeharrek, finantza kontuei dagozkienak elkarrekiko laguntzaren esparruan. Ezartzen den informazio-betebeharrek finantza entitateak behartuko ditu finantza kontuen titularrak identifikatzera, bai eta haien saldoak eta sarrera- eta irteera-mugimenduak ere. Informazio hori betetzeak bide emanen du nazioartean informazio horren trukea egiteko, eta tresna paregabea izanen da tributuzko administrazioek egiaztatu ahal izan dezaten zergadunek behar bezala betetzen dituztela beren zerga-betebeharrek. Bistan denez, iruzur fiskalaren kontrako borrokan konprometituta dauden zerga administrazioen aurrerapauso bat da, bai Europar Batasunean bai ELGA-Ekonomia

Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko kide diren zenbait herrialdetan.

Informazioa trukatzeko betebeharrak horrek bi sorburu ditu:

1. Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, 2011ko otsailaren 15ekoa, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa, zeina Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentzarauak aldatu baitzuen, fiskalitatearen arloan informazio-truke automatikoa egin beharri dagokionez.

2. ELGAren esparruan Finantza-kontuei buruzko Informazioaren Truke Automatikoaren gaineko Agintaritzaren Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztutuan xedatutakoa.

Hitzarmen Ekonomikotik eratorritako beharrik ez diren gain, zeinak Foru Komunitateari errespetarazi egiten baitzizkion Europako Batasunaren arauak eta Espainiako Estatuak izenpetutako nazioarteko tratatu eta itunak, Foru Komunitateko zerga administrazioak uste osoa du nazioarteko informazio-trukea iruzurraren kontra borrokatzeko bide egokia dela. Horregatik, Foru Komunitatean ezartzeko prozesuan daude, halaber, tributu arloan nazioarteko informazio-trukea egiteko beste bide paralelo batzuk ere, hala nola tax rulings direlakoak, mugaz harandik eragina daukatenak, eta herrialdez herrialdeko informazioa, enpresa-talde multinazionaleri eskatuko zaiena.

Foru legearen hirugarren helburu-multzoan tributu araudiaren hobekuntza tekniko batzuk inplementatzen dira, araudia gaurkotzeko eta Nafarroako Zerga Ogasunaren funtzionamenduan pilatu den eguneroko esperientziara egokitzeko. Horietako bost nabarmendu daitezke:

Lehenengo eta behin, 9.1.c) eta 149. artikulua aldatzen dira. Bi arau horiek zergadunaren eskubide hau dute hizpide: tributu zor bat epai edo administrazio ebazpen irmoz bidegabe deklaratu denean, horren exekuzioa eteteko asmoz jarritako abalen eta bermeen kostua itzul dakion. Horren helburua da eskubide horren edukia eta aplikazio eremua handitzea, zenbait alderdi barnean hartzeko:

1. Itzulketarako eskubideak abalak eta bermeak hartuko ditu haiek zor baten ordainketa geroratu edo zatitzeko aurkeztu direnean ere (hau da, ez bakarrik egintza administratibo baten exekuzioa eten denean), zor hori osorik edo zati batean bidegabe dela deklaratu bada.

2. Itzulketaren zenbatekoan legezko interesaren ordainketa ere sarturik egonen da, horretarako eskaerarik egin beharrik gabe. Legezko interesa-

ren sortzapena kostuak egin direnetik ordainketa agindu den egunera artekoa izanen da.

Multzo honen bigarren aldaketa 36.4 artikuluari dagokio. Proposatutako aldaketa honek ere iruzur fiskalaren kontrako planean du jatorria, eta helburu du zordunaren jaraunsle ezezaguneri eskatzen zaizkien zorrak kobratzeko aukerak sendotzea.

36. artikulua zergadunen ordezkari arautzen du. Artikulu horren 4. idatz-zatiak, berriz, nortasun juridikorik gabeko entitateen ordezkari arautzen du; esate baterako, ondasun-komunitate-ena eta jaraunspen jasogabeena. Egungo arauaren edukia ez da aldatzen (baina aurrerantzean arauaren lehen lerroa izanen da), eta, horregatik, entitate horien ordezkari jardunen da ordezkari hori duena, hura modu fede-emailean frogatzen bada; eta inor ez badago ordezkari izendatuta, itxuraz kudeaketa edo zuzendaritzaren lanetan aritzen dena hartuko da halakotzat, eta halakorik ez bada, entitatea edo komunitatea osatzen duten bazkide edo partaideetako edozein.

Aurrekoa gorabehera, arau horri gehitzen zaizkion hurrengo lerroketan zerga administrazioaren jokabidea arautzen da, kasu honetan: jaraunspen jasogabeak izan eta, pertsona baten heriotza behar bezala justifikatu ondoren, jaraunspenaren ezein ordezkariengana jotzerik ez dagoenean ezezagunak direlako; dela testamenturik ez egoteagatik, dela testamentuan izendatutakoek jaraunspenari uko egiteagatik. Arautze berri honek konponbidea jarri nahi dio arazo bati; izan ere, Nafarroako Zerga Ogasunak diru-bilketako prozedura bat kudeatzen duenean zordunaren jaraunsle ezezagunekin, jabetzaren erregistratzaileek ezezkia ematen diote zordunaren jabetzakoak diren ondasun higiezinaren gaineko enbargo idazpenak egiteari jaraunsle ezagunak ez dagoenean (ez dago testamenturik edo jaraunspenari uko egin zaio), enbargoa ez zaiolako jakinarazi jaraunsle izaera duenari. Horren ondorioa da diru-bilketako prozedura gelditu egiten dela zuzeneko ahaideek uko egin diotenean jaraunspenari edo ezezagunak direnean, ia ezinezko bihurtzen baita frogatzea nor den jaraunspenaren jaraunspenaren xedea da, hortaz, jaraunsle ezagunak ez dagoenean (testamenturik ez dagoelako edo bertan izendatutakoek uko egin diotelako) eta hori espedientean frogatuta uzten denean, modua egon dadila zordunaren/kausatzailearen jaraunspenaren interesa dutenei dei egiteko, prozeduran ager daitezke; agertu ezean, tramiteak aurrera egingen luke jakinarazpen gehiagorik egin gabe.

Hirugarren aldaketan jasotzen da “zerga betebeharrak lotuak” deitzen direnen preskripzioaren etena. Erregulazio berri horrek xedatzen duenez,

zerga betebeharraren baten preskripzioa eteteak bera-ekin ekarriko du, legez aginduta, harekin nolabait-eko lotura duten gainerako zerga betebeharraren guz-tien etena ere. Zerga betebeharraren lotu horien adibide da zergaldi jakin batean sozietateen gaineko zerga-aren zerga-oinarri negatiboak gutxitu edo kentzea, ikuskapen-ekintza baten ondorioz. Horrela, zergaldi horretako zerga betebeharraren preskripzioa eteten denean, eten eginen dira, halaber, harekin lotutako zerga betebeharrak; hau da, lehenago erregularizatutako alditik datozen zerga-oinarri negatiboaren gutxitzea ondorengo zergaldietan aplikatzearekin lotuta daudenak.

Laugarren aldaketaren xedea da n) letra 105.1 artikuluarri gehitzea, eta hori beste salbuespen bat da tributu arloko datuen isilpeko izaerari dagokio-nez. Berezitasun berri hori dela-eta, zerga administrazioak zenbait datu laga ahalko dizkie Nafarroako administrazio publikoei, baldin eta haiek beren eskumenak betetzeko behar badituzte. Laga daitezkeen datu horiek pertsona fisiko eta juridiko- en identifikazioari eta helbideei dagozkienak izan- nen dira.

Legearen aldaketaren helburua da egungo arauak eragiten dituen zenbait disfuntziora aurre egitea; horiek sortzen dira Nafarroako administrazio publikoek pertsona fisikoak eta juridikoak ego-kiro identifikatu eta lokalizatzeko datuak eskatzen dituztenean beren eskumeneko eginkizunak bete-rik, hala nola diru-laguntzen kudeaketa, diru-bilke- tako zereginak eta zehapen-espeditenteen abiaraz- penak.

Amaitzeko, hogeita seigarren xedapen gehiga- rriak 2017an egiten diren tributu zorraren gerora- tzerako edo zatikatzerako eskaerei aplikatzen zaiz- kien neurri berariazko batzuk ezartzen ditu. Nabarmendu behar dugu aurrenekoz 2012. urtean aurreikusitako zirela arlo honi buruzko berariazko neu- rriak, eta hurrengo urteetan eutsi egin zaiela, alda- keta txiki batzuk eginda. Funtsean, eta krisi ekono- mikoaren ondorioz, neurri horien asmoa zen lehen bezain zorroztza ez izatea geroratzeen onarpene- an, horrela zergadunei tributu zorrak ordaintzen laguntzeko. Pentsa daiteke gaur egun krisi ekono- mikoak lasaitzen edo arintzen joan dela; horregatik, 2017rako neurria aurreko urteetako baino murriz- taileagoa da, eta hurbilago dago Diru-bilketaren Erregelamenduko arautze orokorretik. Bistan denez, geroratzeak onartzeko baldintza zorroztzago hauek nabarmen handituko dute diru-bilketa 2017. urtean.

Hauek dira berritasunak:

1. Oro har, ez da bermerik eskatuko gehienez ere bi urteko epea duten geroratzeetan, eta beti

eskatuko da %30eko sarrera egitea. Lehen, kasu batzuetan %20ko sarrera bakarrik eskatzen zen, eta hiru urte arteko geroratzea onartzen zen.

2. Salbuespenez, ez da bermerik ez aurretiko sarrerarik eskatuko 6.000 eurotik beherako gerora- tzeetan (lehen, 12.000 euro), sei hilabete arteko epearekin (lehen, urtebete).

3. Ukatze automatikorako arrazoia izanen da (borondatezko epean dagoen zorraren kasuan) osorik kitatu gabe hiru geroratze (lehen, lau ziren) edo gehiago izatea.

Horrenbestez, esan daiteke geroratzeak erabakitzeari buruzko arau berri zorroztzago horiek zuzenduta daudela, oro har eta baldintza gehiga- rriekin, 6.000tik 12.000 eurora bitarteko zorra duten zordunengana (2017an zorraren %30 ordaindu beharko dute; lehen, ordea, ez zuten konturako sarrerarik egiten) eta 12.000 eurotik 200.000 eurora bitarteko zorra duten zordunenga- na (zorraren % 30 ordainduko dute; lehen, ordea, %20, kasu zehatz batzuetan).

**Artikulu bakarra.** Tributuei buruzko abendu-aren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren aldaketa.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren agindu hauek honako eduki hau izanen dute:

Bat. 9.1.c) artikulua.

“c) Eskubidea du itzul dakion, foru lege honek agintzen duen moduan, egintza baten exekuzioa eteteko edo tributu-zor baten ordainketa geroratu edo zatikatzeke jarri dituen abal eta beste berme- en kostua, baldin eta epai edo administrazio-ebaz- pen irtho batek egintza edo zor hori osorik edo hein batean bidegabea dela deklaritzen badu; eta legezko interesa ere ordainduta, horretarako eskaerarik egin beharrik gabe; eskubidea du, hala- ber, jarritako bermea proportzionalki gutxitzeko, aurkeztutako errekurtsioa edo erreklamazioa hein batean baiesten denean.”

Bi. 27.5. artikuluko azken lerrokada.

“Bereziki, zehaztuko da zein kasutan aurkeztu edo eraman behar diren erregistro liburuak aldizka eta baliabide telematikoak erabiliz”

Hiru. 30.4. artikulua. e) letra kentzea.

Lau. 30. artikulua. Idatz-zati berri bat gehitzea, bosgarrena.

“5. Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboak ordaindu beharreko tributu-zorraren erantzule solidarioak izanen dira zerga-jasana- razpen egokia saihesten duten eragiketaren har-

tzaileak, baldin eta saiheste horretan egite edo ez-egite erruzko nahiz dolozkoa izan badute.”

Bost. 30. artikulua. Idatz-zati berri bat gehitzea, seigarrena.

“6. Ordaintzeko dagoen tributu-zorriaren eta, kasua bada, tributu zehapenen erantzule solidarioak izanen dira, halaber, honakoak:

a) Pertsona juridikoen egiazko kontrola, erabatekoa nahiz partziala, zuzeneko nahiz zeharkakoa, duten pertsona edo entitateak, edo pertsona juridikoekin amankomuneko zuzendaritza-borondatea dutenak, betiere frogatzen baldin bada pertsona juridikoak gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla Ogasun publikoaren aurrean dagoen ondare-erantzukizun unibertsala saihesteko, eta pertsonen edo esfera ekonomikoen bakartasuna badago, edo ondare-nahasketa nahiz -desbideratzea.

b) Tributudunek osorik edo parte batean egiazki kontrolatzen dituzten pertsona edo entitateak, edo tributudun horiekin amankomuneko zuzendaritza-borondatea dutenak, tributudun horien tributu-betebeharrengatik, frogatzen baldin bada pertsona edo entitate horiek gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla Ogasun publikoaren aurrean dagoen ondare-erantzukizun unibertsala saihesteko; betiere, pertsonen edo esfera ekonomikoen bakartasuna badago, edo ondare-nahasketa edo -desbideratzea.”

Sei. 32.2 artikulua.

“2. Erantzule subsidiario izanen dira kasuan kasuko konkurtso-administrazioaren partaideak eta sozietate eta entitateen likidatzaileak oro har, ez bazituzten egin egoera horiek baino lehenagotik sortutakoak izanik kasuan kasuko zergadunei egoztekoak diren zerga betebeharrak oso-osorik betetzeko beharrezkoak ziren zuzemenak. Egoera horien ondotik exigitzekoak diren tributu betebeharreri eta ezartzen diren zehapenei dagokienez, administratzaile gisa erantzunen dute administrazio-eginkizunak esleituak dituztenean.

Aipatutako zerga betebeharraren erantzule izanen dira, halaber, hirugarrenen kredituak ordaindu direnean, tributu izaera dutenen ginetik lehenasuna ez dutenak, bidegabeki ordaindutako zenbatekoak muga izanik betiere.”

Zazpi. 32. artikulua. 3. idatz-zatia kentzea.

Zortzi. 36.4 artikulua.

“4. Unitate ekonomiko bat edo ondare bereizi bat diren entitate, elkarte, jaraunspen jasogabeen eta ondasun komunitateen kasuan, haien ordezkariak duen pertsonak jardunen du ordezkari,

ordezkari hori modu fede-emailean frogatzen bada; inor ez badago ordezkari izendaturik, halakotzat hartuko da kudeaketa edo zuzendaritza lanetan itxuraz aritzen dena, eta halako pertsonarik ez bada, entitatea edo komunitatea osatzen duten bazkide edo partaideetako edozein.

Nolanahi ere, jaraunspen jasogabearen kasuan, behin heriotza behar bezala justifikatu ondoren ezinezkoa bada aurreko leerroaldean aipatzen diren ordezkariengana jotzea denak ezezagunak direlako, testamenturik ez egoteagatik edo bertan izendatutakoek uko egin izateagatik, Zerga Administrazioako organoek abian den prozedura jaraunspenean interesa dutenei jakinarazteko eginbidea emanen dute.

Eginbide horretan, kausatzailea hil zen egunean jakinarazteko zegoen azken tramitea aipatuko da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktu baten bidez jakinaraziko da. Kausatzailearen azken helbideari eta heriotza gertatu zen tokiari dagozkien toki entitateetako iragarki oholetan ere argitaratzeko igorriko da, zabalkunderako beste bitarteko batzuk erabiltzeko aukera baztertu gabe. Ediktuek hilabetez egon beharko dute ikusgai.

Epe horretan, jaraunspenean interesa dutenek beren eskubidea frogatzen ahalko dute zerga administrazioaren organoetan, eta horrek, eskubide hori frogatuzat ematen badu, jaraunspen jasogabearen ordezkariak hartuko ditu idatz-zati honen lehen lerokadan jasotzen den moduan; kausatzailea hil zen egunean jakinarazteko zegoen azken tramitea jakinaraziko die, bai eta abian den prozedurak hortik aurrera eragiten dituen guztiak ere, eskubideari uko egiten ez dioten bitartean.

Jaraunspenean interesa duenik epe horretan agertu ezean, ulertuko da jaraunspen ezezagunei jakinarazi zaiela kausatzailea hil zen egunean jakinarazteko zegoen azken tramitea, bai eta prozedura horretan hortik aurrera egiten diren jarduketak eta eginbideak ere, eta prozeduran beste edozein unetan agertzeko eskubidea gordeko dute. Nolanahi ere, prozeduran egiten diren likidazioak eta enbargatutako ondasunak besterentzeko ebazpenak 99. artikuluan ezarritako moduan jakinarazi behar dira betiere.”

Bederatzi. 43 artikulua. 4. idatz-zatia aldatzea eta 5., 6. eta 7. idatz-zatiak gehitzea.

“4. Zeharkako zenbatespenaren araubidea aplikatzeko erabilitako datu eta aurrekarien sorburua hauetako edozein izan daiteke:

a) Zenbatespen objektiborako metodorako ezarritako zeinuak, indizeak eta moduluak, lehentasunez erabiliko baitira metodo horri uko egin dioten zergadunen kasuan. Nolanahi ere, zerga administrazioak frogatzen badu jarduera ekonomikoak eragindako etekinak edo kuotak daudela, zenbateko handiagoa egiten dutenak, zenbateko hori hartuko da aintzat erregularizazioaren ondorioetarako.

b) Zergadunak berak emandako datu ekonomikoak eta ekoizpen prozesuari buruzkoak.

Erregularizatutakoaren aurreko edo ondorengo ekitaldietako datuak erabiltzen ahalko dira, horietaz informazio aski eta fidagarria izanez gero. Bereziki, kudeaketa edo ikuskapen jarduketa egin zen uneari buruzko informazioa erabiltzen ahalko da, aurreko ekitaldietan aplikatzeko modukoa irizten bazaio, salbu eta zerga administrazioak edo zergadunak berak justifikatzen badu datu horietan doikuntzak egin behar direla eta zenbatekoak diren.

Metodo hori aplikatzen bada ezaugarri homogeneoetakoak diren zergadunaren beste eragiketa batzuk zenbatesteko eta zergadunak horri buruzko informaziorik aurkezten ez badu, edo informazio okerra edo aski ez dena aurkezten badu, edo eragiketa horien lagin batean oker errepikatuak daudela ikusiz gero, zerga administrazioak laginen arabera erregularizatzen ahalko ditu. Kasu horietan, laginetik ateratzen den batez bestekoa aplikatzen ahalko zaie aztertutako aldiko eragiketa guztiei, salbu eta zergadunak frogatzen badu berariazko arrazoiak daudela, proportzio hori bidegabea dela justifikatzeko.

c) Erakunde publikoek edo pribatuek teknika estatistiko egokiek sektoreaz egindako azterlanetatik ateratako datuak, erregularizazioaren xede den aldiari dagozkionak. Kasu horretan azterlanen jatorria identifikatuko da, zergadunak horiei dago kienez bere eskubidearentzat egokitzen jotzen duena adierazi ahal izan dezan.

d) Zerga administrazioiko organoek enpresa, jarduera edo produktu batzuei buruz lortutako lagin bateko datuak, horien ezaugarri nagusiak eta zergadunak dituenenak antzekoak direnean. Kasu horretan, zerga administrazioak identifikatu egin beharko du aukeratutako lagina, hori zergadunaren ezaugarriekin bat datorrela bermatzeko, eta adierazi beharko du datuak zein erregistro publikotan edo sorburutan lortu ziren. Baldin eta erabilitako datuak zerga administrazioak berak emandakoak badira, lagina erregelamenduz xedatutakoarekin batera egiten da.

5. Zuzeneko ezarpenaren kasuan, zeharkako zenbatespenaren metodoaren bidez zehazten ahalko dira salmentak eta prestazioak, erosketak eta gastuak edo jardueraren etekin garbia. Posible da zeharkako zenbatespena salmenta eta prestazioen gainekoa soilik izatea, baldin eta kontabilitatean edo erregistro fiskaletan ageri diren erosketak eta gastuak behar adina frogatu direla ulertzen bada. Era berean, posible da erosketak eta gastuen gainekoa soilik izatea, salmentak eta prestazioak behar adina frogatu direnean.

Kontsumoaren gaineko ezarpenaren kasuan, zeharkako zenbatespenaren metodoaren bidez ezartzen ahalko dira jasanarazitako kuota eta oinarria, kalkulaturiko kuota jasana eta kengarria edo bi zenbatekoak. Kalkuluen arabera ateratzen den jasadako kuota kengarria kalkulatzeko, kasuko salmentak edo prestazioak lortzeko normalki beharrezkoak liratekeen ondasun eta zerbitzuei legezkiekeen kuotak hartuko dira aintzat, baina zerga jasanarazi den zenbateko kalkulatuaren soilik, eta zergadunak zerga egiaz jasan duela ikusita. Zerga administrazioak kuotak jasanarazi direla ikusteko moduko informaziorik ez badu, zergadunari dagokio zerga jasanarazi zioten pertsonak edo entitateak identifikatzeko bide emanen duen informazioa aurkeztea eta haren zenbatekoa kalkulatzeko.

Zeharkako zenbatespenaren bidez erregularizatutako ekitaldi bati dagozkion jasadako gastu edo kuotak ezin izanen dira beste ekitaldi batean izan kenkariaren xede.

6. Likidazioaldia urtebetetik beherakoa duten tributuen kasuan, zerga administrazioak urterako kalkulaturiko kuota modu linealean banatuko da kasuan kasuko likidazioaldien artean, non zergadunak ez duen justifikatzen beste denbora-banaketa bat egin behar dela.

7. Zeharkako zenbatespenaren araubidea aplikatzea eragin zuten inguruabarrekin lotutako datuak, agiriak edo frogak kontuan hartzen ahalko dira aurkeztutako errekurtsu edo erreklamazioak ebazteko baldin eta, soilik, ikuskapen-prozedura amaitu aurretik aurkeztu badira, salbu eta zergadunak frogatzen badu ezinezkoa izan zela datu, agiri edo froga horiek prozeduran zehar aurkeztea."

Hamar. 52. artikulua, 6. idatz-zatia gehitzea.

"6. Zergadun baten zorraren sarrera osorik edo zati batean etenda geldituko da, bermerik aurkeztu gabe, egiaztatzen denean eragiketa horregatik beragatik Administrazio berari edo beste bati tributu zor bat ordaindu zaiola edo beste zerga baten jasanarazpena jasan dela; betiere, egindako

ordainketa edo jasandako jasanarazpena bateraezina bada eskatutako zorrarekin eta, gainera, azken kasu horretan, subjektu pasiboak eskubiderik ez badu bidegabeki jasandako zenbatekoaren kenkaria osorik egiteko.

Erregelamenduz arautuko da aurreko lerrokan aipatzen diren tributu zorrak azkentzeko prozedura eta, kasuan bi zerga administrazioak esku hartzen dutenean, elkarren arteko konpentziaziorako bideak.”

Hamaika. 55. artikulua. Epeak.

“Honako eskubide eta akzioek lau urteren buruan preskribatuko dute:

a) Administrazioak kasuko likidazioa eginez tributu zorra zehazteko duen eskubidea.

b) Administrazioak tributu-zor likidatu eta autolikidatu ordainketa eskatzeko duen eskubidea.

c) Tributu-zehapenak ezartzeko akzioa.

d) Tributu bakoitzaren araudiaren arabera itzulketak, sarrera bidegabean itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko eskubidea.”

Hamabi. 57. artikulua, 5. idatz-zati berria gehitzea.

“5. 55. artikulua a) letrak aipatzen duen eskubidearen preskripzio epea, zerga betebeharrak bati dagokiona, eteten bada, artikulua horren berran a) eta c) letratan aipatzen diren eskubideen preskripzio epea ere etenda geldituko da; letra horiek zergadunaren beraren zerga betebeharrak lotuei buruzkoak dira, betebeharrak horietan bestelako zergapetzea gertatzen denean edo gertatu behar denean, Zerga Administrazioak edo zergadunek zerga betebeharrak lotuekin lotura duen betebeharraren erregularizazioaren oinarri diren irizpideak edo elementuak aplikatzen dituztelako.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zerga betebeharrak lotuak hauek dira: haietako elementuren bat beste betebeharrak bati edo aldi desberdin bati dagozkion elementuek ukitzen dutenean edo horien arabera zehazten denean.”

Hamahiru. 58.1 artikulua.

“1. Preskripzio lortua baliagarria da zerga zorra ordaintzera beharturik dauden guztientzat, aurreko artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa kenduta.

Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, zerga zorra ordaindu den kasuetan ere, zergadunak eskatu edo salbuetsi beharrik gabe.

Preskripzio lortuak zerga zorra azkentzen du.”

Hamalau. 66.3. artikulua, b) eta c) letrak.

“b) Talde fiskalaren entitate ordezkaria zergakontsolidazioaren araubidean.

c) Beren bazkide edo kideei errentak egotzi edo esleitzera beharturik dauden entitateak.”

Hamabost. 66. artikulua 6. eta 7. idatz-zatiak. Kentzea.

Hamasei. 99.5. artikulua, hirugarren lerrokada.

“Jakinarazpen elektronikoen sistemak aukera emanen du jakiteko zer egun eta ordutan uzten den interesdunaren eskura jakinarazpenaren xedeko egintza, baita interesdunak noiz ikusi duen edukia ere, jakinarazpena une horretatik aurrera egindakotzat joko baita legeko ondorio guztietarako. Halere, bitarteko elektronikoen bidez egindako jakinarazpenak jasotzera beharturik dauden edo borondatez aukera hori egin duten subjektuen kasuan, ulertuko da prozeduren iraupenaren gehieneko epean jakinarazteko betebeharrak bete dela zerga administrazioaren egoitza elektronikoa edo gaitutako helbide elektronikoa jakinarazpena eskuragai jartzen denean.”

Hamazazpi. 105.1. artikulua. Letra bat gehitzea, n) letra.

“n) Nafarroako Administrazio Publikoekin lankidetzan aritzea, haien eskumenen esparruan pertsona fisikoaren eta juridikoaren identifikaziorako behar dituzten datuak eta helbideak izateko.”

Hemezortzi. 105.1 artikulua. ñ) letra berria gehitzea.

“ñ) Etxebizitzaren arloan eskuduna den Nafarroako Gobernu departamentuarekin lankidetzan jardutea, etxebizitzarako sarbidea sustatzeko, laguntza publikoak kudeatzeko eta bere ardurapean dituen etxebizitza-erregistroak mantentzeko eginkizunez baliatzearen arloan.

Lankidetzak hori foru lege honen zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz egingen da.”

Hemeretzi. 107. artikulua. Artikuluaren egungo edukia 1. idatz-zatia izan da aurrerantzean, eta 2. idatz-zatia gehitzen da.

“2. Gastu kengarriak eta egindako kenkariak, enpresaburuak edo profesionalak egindako eragiketarako eragindakoak direnean, justifikatu behar dira, lehentasunez, zerga araudian adierazitako baldintzak betetzen dituen eragiketarako egin duen enpresaburuak edo profesionalak entregatutako fakturaren bidez.”

Aurrekoa gorabehera, faktura ez da eragiketak gauzatu izanaren frogabide nagusia, eta, beraz, Administrazioak arrazoiekin zalantzan jartzen badu egiaz gauzatu diren, zergadunari dagokio eragiketen errealitateari buruzko frogak aurkeztea.”

Hogei. 112.4. artikulua.

“4. Gainerako kasuetan behin-behinekoak izanen dira, direla konturakoak, direla osagarriak, kauziozkoak, partzialak edo osoak.

Behin-behinekoak izanen dira, halaber, 160.2 eta 163.b) artikuluetan xedatutakoaren babesean emandako likidazioak.”

Hogeita bat. 118.5. artikulua. Letra bat gehitzen da, e) letra.

“e) 163. artikuluan deskribatutako prozedura tramititzen den bitartean edo amaitu ondoren hartzen direnean. Kasu horietan, haien ondorioak hartzen direnetik hogeita lau hilabeteko epean amaituko dira.

163. artikuluan deskribatutako tramitazioa hasi aurretik hartu baziren, 160.2 artikuluan aipatzen den likidazioa behin eginda, epea handitzen ahalko da erabaki arrazoituaren bidez, baina hartutako neurrien luzapena ez da izanen guztira 18 hilabetetik gorakoa.

e) Letra honek aipatzen dituen neurriak egingako likidazioa kobratzeko hasitako premiamendu prozedurako enbargo bihurtzen ahalko dira.”

Hogeita bi. 118.7. artikulua, lehen lerrokada.

“Egiaztatzeko edo ikertzeko ikuskapen prozedura bat dela-eta, salaketa edo kereila formalizatu denean Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik edo, delitu horrengatik, prozesu judiziala bideratu denean, 160.2 artikuluan aipatzen den likidazioa eman gabe, zerga administrazioako organo eskudunak artikulua honetan araututako kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu, hemeretzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa galarazi gabe.”

Hogeita hiru. 139.3.a) artikulua.

“a) Espedientea Fiskaltzara edo jurisdikzio eskudunera igortzea 161. artikuluan aipatzen denarekin bat likidazioa egin gabe.”

Hogeita lau. 139.3. artikuluko azken lerrokada.

“Behin etena amaituta, prozedurak jarraituko du, 1. idatz-zatian aurreikusitako epea amaitu arte falta den denboran edo sei hilabetez, azken epe hori luzeagoa izanez gero.”

Hogeita bost. 149. artikulua. Bermeen kostuak itzultzea.

“1. Zerga administrazioak egintza baten exekuzioa eteteko edo tributu zor baten ordainketa geroratu edo zatikatzeko jarri dituen abalen eta beste bermeen kostua itzuliko du, zenbatekoa frogatu ondoren, epei edo administrazio ebazpen irmo batek egintza edo zor hori bidegabekoa dela deklaritzen badu. Egintza edo zorra zati batean bidegabekoa dela deklaraturaz gero, itzulketa bermeen kostuaren kasuko zatiari dagokiona izanen da.

Erregelamenduz arautuko dira itzulketarako prozedura eta bermeen kostua zehazteko modua.

2. Bermeen kostuen itzulketarekin, zerga administrazioak sortzapenaren aldi indarra duen legezko interesa ere ordainduko du, zergadunak eskatu beharrik izan gabe. Ondorio horietarako, legezko interesa sortzapena kostuak egin diren egunetik (behar bezala frogatua) ordainketa egiteko agintzen den bitartekoa izanen da.

3. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatu tributu bakoitzaren araudian zerga betebeharrak beteko direla ziurtatzeko ezarritako bermeen kasuan.”

Hogeita sei. V. titulua gehitzea. Ogasun Publikoaren kontrako delitu kasuetarako jarduketak

Hogeita zazpi. 160. artikulua. Likidazioak egitea Ogasun Publikoaren kontrako delitu zantzuak daudenean.

“1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren kontrako delitu zantzuak ikusten dituelarik, prozeduraren tramitazioak aurrera egingen du aplikatzekoak diren arau orokorrekin bat, horrek galarazi gabe erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunera igortzea edo espedientea Fiskaltzara, titulu honetan ezartzen diren arauarekin bat betiere.

Hurrengo artikuluan aipatzen diren kasuetan salbu, zerga betebeharraren elementuen likidazioa ematen ahalko da, egiaztapenaren xede diren elementuena alegia, likidazio desberdinetan bereiziz, alde batera Ogasun Publikoaren kontrako ustezko delituarekin lotura dutenak, eta beste batera Ogasun Publikoaren kontrako ustezko delituarekin loturarik ez dutenak.

2. Ematen den likidazioa, Ogasun Publikoaren kontrako ustezko delituarekin lotura duten zerga betebeharraren elementuei dagokiena, bat etorriko da titulu honetan ezarritakoarekin.

Idatz-zati honek aipatzen dituen kasuetan, Administrazioak ez du hasiko edo jarraituko egitate horiei beraiei dagokien zehapen prozedura. Zehapen prozedura bat hasita baldin badago, eta



lehenago amaitu ez bada, amaiera hori gertatu dela ulertuko da, betiere, erruduntasunaren testigantza jurisdikzio eskudunera igortzen denean edo espedientea Fiskaltzara, horrek galarazi gabe beste zehapen prozedura bat hasteko aukera, idatz-zati honen azken lerrokadan aipatzen diren kasuetan.

Agintari judizialek kondena-epaia emanaz gero, ezin izanen da administrazio zehapena jarri egitate berberengatik.

Delitua dagoenik ikusten ez bada, zerga administrazioak zehapen prozedura administratiboa hasiko du, bidezkoa denean, epaitegiek frogatutzat eman dituzten egitateekin bat.

3. Ogasun Publikoaren kontrako balizko delituarekin loturarik ez duten tributu kontzeptuei dagokienez ematen den likidazioaren tramitazioa bat etorriko da foru lege honen IV. tituluko VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera dagokionarekin, eta IV. titulu horren beraren VII. kapituluaren ezarritako berrikuspen araubideari jarraituz.”

Hogeita zortzi. 161. artikulua. Salbuespenak, Ogasun Publikoaren kontrako delitu zantzuak daudenean likidazioak egiteko.

“1. Zerga Administrazioak Ogasun Publikoaren kontrako delitu zantzuak ikusten dituztenean, erruduntasunaren testigantza igorriko du jurisdikzio eskudunera edo espedientea Fiskaltzara, eta ez du egiten 160.2 artikuluan aipatzen den likidazioa kasu hauetan:

a) Likidazio administratiboaren tramitazioak delituaren preskripzioa eragin dezakeenean Zigor Kodearen 131. artikuluan aurreikusitako epeekin bat.

b) Ikuskapena edo egiaztapena eginda ere zehatz-mehatz ezartzerik ez dagoenean likidazioaren zenbatekoa edo zergadun zehatz bati egoteko modurik izan ez denean.

c) Likidazio administratiboak moduren batean kaltetu dezakeenean iruzurraren ikerketa edo egiaztapena.

Lehenago aipatutako kasuetan, zerga administrazioak aurkeztutako salaketa edo kereila idatziarekin batera, likidazioa ez emateko erabaki administratiboa eragin duten inguruabarretako bat dagoela justifikatzen duen erabaki arrazoitua ere igorriko da.

Kasu horietan, zergadunari ez zaio emanen entzuteko tramitea edo alegazioak aurkeztekoa.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren kasuetan, Administrazioak ez du prozedura administratiboa

hasiko edo, kasua bada, jarraituko, eta etenda geldituko da agintari judizialek epai irmoa eman arte, jarduketan largespena edo artxiboa gertatu arte edo Fiskaltzak espedientea itzuli arte.

Halere, zehapen espedientea hasita baldin badago, ulertuko da amaituta dagoela erruduntasunaren testigantza jurisdikzio eskudunera igortzen denean edo espedientea Fiskaltzara. Hori guztia, zehapen prozedura berri bat hasteko aukera ukatu gabe azkenean deliturik ikusten ez bada eta epaitegiek frogatutzat eman dituzten gertaerekin bat.

Erruduntasun testigantza edo espedientea igortzeak eten egiten ditu tributu zorra zehazteko eta zehapena ezartzeko eskubidearen preskripzio epeak, 57.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Agintari judizialek kondena-epaia emanaz gero, ezin izanen da administrazio zehapena jarri egitate berberengatik.

Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak, salatutako egitateen gainean etendura aldian egiten direnak, ez direla izan ulertuko da.

3. Aurreko kasuetan, deliturik izan denik ikusi ez bada, zerga administrazioak jarduketak hasi edo aurrera eramanez, organo jurisdikzionalak frogatutzat eman dituzten egitateen arabera, 139.1 artikuluan aipatzen den epea amaitu arteko aldi edo 6 hilabeteko epean, hura luzeagoa izanez gero; epe hori prozedurarekin jarraitu behar duen organo eskudunak kontatu beharko du, ebazpen judiziala edo Fiskaltzak itzulitako espedientea jasotzen denetik aurrera.

Preskripzio epeen zenbaketa berriz hasiko da ebazpen judiziala zerga administrazio eskudunaren erregistroan sartzen denetik aurrera.”

Hogeita bederatzia. 162. artikulua. Borondatezko erregularizazioa.

“Zerga Administrazioak ez du erruduntasun testigantza jurisdikzio eskudunera igorriko, ez eta espedientea Fiskaltzara, egiaztatzen bada zergadunak erregularizatu duela bere zerga egoera, tributu-zorra osorik onartu eta ordainduz erregularizazioaren xede den tributu-zorra zehazteko egiaztapen edo ikerketa jarduketak hasi direla jakinarazi aurretik, edo, halako jarduketak gertatu ez badira, Fiskaltzak, Estatuko abokatuak edo kasuko autonomia erkidegoko, foru edo toki administrazioaren ordezkari prozesalak, zergadunaren kontra zuzendutako kereila edo salaketa aurkeztu aurretik, edo eginbideak hasi direla modu formalean jakiteko bide emateko, Fiskaltzak edo Instrukzioko epaileak jarduketak egin aurretik.

Tributu-zorra 50. artikuluan aipatzen diren elementuek osatzen dutela ulertzen da, eta zergadunak hauen autolikidazioa eta sarrera egin beharko du aldi berean: kuota, berandutze-interesak eta sarreraren egunean legez sortutako errekarquak. Halere, borondatez erregularizatutako tributuak autolikidazioaren prozeduraren bidez eskatzen ez direnean, zergadunak kasuko aitortpena aurkeztu beharko du, eta Administrazioak likidatutako tributu zor osoaren sarrera egin beharko du tributuaren araudian ordainketarako ezarritako epean.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, erregularizazioa gertatzen denean Administrazioak tributu-zorra zehazteko duen eskubideak behin preskribatu ondoren ere.

Artikulu honen lehen lerroaldean aipatzen den bezala, zor osoaren onarpena eta sarrera egin direla ezartzeko, Zerga Administrazioak bidezkoak diren egiaztapen eta ikuskapen jarduketak egiten ahalko ditu, horien xede diren zergaldien eta kontzeptuen preskripzioa, 55.a) artikuluan arautzen dena, gertatu bada ere.”

Hogeita hamar. 163. artikulua. Ikuskapen prozeduraren tramitazioa likidazioa egin behar denean.

“1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren kontrako delitu zantzuak ikusiz gero eta 161.1 artikularekin bat likidazioa ematea galarazten duten inguruabarrak tartean ez badira, bidezkoa izanen da delituarekin lotutako likidazio proposamen bat formalizatzea, bertan adierazita haren oinarri diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak.

Proposamen hori zergadunari jakinaraziko zaio, eta entzuteko tramitea emanen zaio bere eskubideen alde komeni zaiona alega dezan 15 egun naturaleko epean, proposamena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Tramitazio administratiboan egin diren prozedura akatsek, egin badira, ez dituzte inola ere delituarekin lotutako zerga betebeharrak osorik edo zati batean azkentzeko ondorioak sortuko, ez eta 139.6 artikuluko a) eta b) letretan aurreikusitakoak ere zerga administrazioak tributu-zorra likidatzeko egindako jarduketei dagokienez; horrek ez du galaraziko haiek eragin ditzakeenak izatea, baldin eta Fiskaltzak espedienteak itzultzen badu edo ebazpen judizial irmoa ematen bada, 167.2.c) artikuluan aurreikusitako doikuntza egitera behartzen duena Ogasun Publikoaren kontrako delitua dagoenik ez ikusteagatik.

Entzutea emateko tramiterako aurreikusitako epea iraganik eta alegazioak aurkeztu baldin badira, horiek aztertu ondoren, Tributu Ikuskapenerako

Zerbitzuko zuzendariak likidazio administratibo bat emanen du, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailearen alde aurreko edo aldibereko baimenarekin, bera baita salaketa edo kereila aurkezteko eskumena duena, bidezkoa den erregularizazioak agerian uzten badu bere ustez Ogasun Publikoaren kontrako delitua egon daitekeela.

Likidazio administratiboa eman ondoren, zerga administrazioak erruduntasun testigantza igorriko du jurisdikzio eskudunera, edo espedienteak Fiskaltzara, eta egiaztapen prozedura amaitzeko, likidazio horren bidez erregularizatutako zerga betebeharraren elementuei dagokienez betiere, zergadunari horren jakinarazpena eginez, eta bertan ohartaraziko da sarrera egiteko borondatezko epea hasiko dela kasuko salaketa edo kereila tramitera onartu dela jakinarazi ondoren, 165. artikuluan ezarri bezala.

Erruduntasun testigantza edo espedienteak igortzeak eten eginen ditu tributu zorra zehazteko eta zehapena ezartzeko eskubidearen preskripzio epeak, 57.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

2. Salaketa edo kereila ez onartzeak atzera eramanen ditu ikuskapen jarduketak, delituarekin lotutako likidazio proposamena eman aurreko unera, eta, kasu horretan, dagokion akta formalizatuko da, eta foru lege honetan eta haren garapen araudian ezartzen denarekin bat tramitatuko.

Ikuskapen jarduketak 135. eta 136. artikuluetan xedatutakoarekin bat amaituko dira.

Prozedura amaitu beharko da jarduketak atzera eramandako unetik hasita 139. artikuluen 1. idatz-zatian aipatzen den epea amaitu arteko aldi, edo sei hilabete, epe hura luzeagoa baldin bada. Ebazpen judiziala jasotzen denetik hasita kontatuko da epe hori, edo Fiskaltzak edo prozedurari jarraipena eman behar dion organo eskudunak itzulitako espedienteak jasotzen denetik hasita.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutze-interesak eskatuko dira. Berandutze-interesa kontatzen hasteko eguna baliogabetutako likidazioari zegokiokeen berbera izanen da, eta interesa likidazio berria ematen den unera bitarte sortuko da.

Kasu horietan, tributu-zorra zehazteko eta zehapena ezartzeko eskubidearen preskripzio epean kontaketa hasiko da, 57.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. Zergaldi eta zerga kontzeptu berberetarako, bereizi behar badira, alde batetik elementu batzuk, zeinetan Ogasun Publikoaren kontrako delitua izan daitekeen dolozko jokabidea dagoela ikusten baita, eta, beste alde batetik, erregularizatu beha-

rreko beste elementu batzuk, zeinetan ez baita dolozko jokabide hori ikusten, bi likidazio eginen dira, bereizita.

Bi likidazioak zenbatestearen ondorioetarako, delituarekin lotutako likidazio proposamen bat formalizatuko da eta ikuskapen akta bat, arau hauen arabera:

a) Delituarekin lotutako likidazio proposamenean deklarazioaren xede izan ziren elementuak egonen dira sartuta, kasua bada, eta horiei gehituko zaizkie beste batzuk, horietan doloa dagoela ikusten denean; zergadunak doikuntzetarako eskubidea izanez gero, horiek deskontatuko zaizkio, bai eta, oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partidak ere, gehigarri gisa dagozkionak tributu bakoitzaren araudian ezarritakoarekin bat. Aurkeztutako aitortpenak kuota bat ezartzen badu, sartu beharrekoa, hura deskontatu eginen da likidazio proposamen horren kalkulurako.

b) Aktan jasotako likidazio proposamenean egiaztatutako elementu guztiak sartuko dira, balizko delituarekin loturik egon nahiz ez, eta likidazio proposamenean kenduko da aurreko letran aipatzen den zenbatekoa.

Nolanahi ere, zergadunak hauta dezake bi kuoten kalkulurako sistema bat aplikatzea, oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partidak proportzioan aplikatzean oinarritua, erregelamenduz ezartzen den moduan. Hautu hori Administrazioari jakinarazi beharko zaio delituarekin lotutako likidazio proposamena jakinarazi ondoko alegazio epean.”

Hogeita hamaika. 164. artikulua. Likidazioen inpugnazioa.

“1. 160.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioz emandako likidazio administratiboaren kontra ez da bide administratiboko errekurtsorik ez erreklamaziorik aurkezterik izanen, baina horrek ez du ukatzen doikuntza egitea, zigor prozesuan ezartzen denaren arabera bidezkoa dena, Zigor Kodearen 305. artikuluan eta foru lege honen 167. artikuluan xedatutakoarekin bat; zigor arloko epaileari dagokio epai bidez zehaztea zenbatekoa den iruzurraren kuota, Ogasun Publikoaren kontrako delituekin lotutakoa, Zigor Kodearen 305. artikuluko 5. idatz-zatian eta titulu honetan aurreikusitakoaren babesean likidatu dena.

Tramitazio administratiboan egin diren prozedura akatsek, egin badira, ez dituzte inola ere delituarekin lotutako zerga betebeharra osorik edo zati batean azkentzeko ondorioak sortuko, ez eta 139.6 artikuluko a) eta b) letretan aurreikusitakoak

ere zerga administrazioak tributu-zorra likidatzeko egindako jarduketei dagokienez.

2. Delituarekin lotuta ez dauden elementuen eta zenbatekoen erregularizaziotik ateratako likidazioaren kontra IV. tituluko VII. kapituluan aurreikusitako errekurtsioak eta erreklamazioak aurkezten ahalko dira.”

Hogeita hamabi. 165. artikulua. Likidatutako zorraren diru-bilketa egitea Ogasun Publikoaren kontrako delitu zantzuak daudenean.

“160.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, Ogasun Publikoaren kontrako delituak eragindako zigor prozedura izateak ez ditu geldiaraziko likidatutako tributu zorra kobratzeko jarduketa administratiboak, salbu eta epaileak erabaki badu exekuziorako jarduketak etetea.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren jarduketa administratiboak, kobratzeko xedea dutenak, IV. tituluko V. kapituluan ezarritako arau orokorrek zuzenduko dituzte, titulu honetan ezarritako berezitasunekin.

Ogasun Publikoaren kontrako delitua dela-eta salaketa edo kereila onartu dela jasota gelditu ondoren, Zerga Administrazioak zergadunari jakinaraziko dio ordainketarako borondatezko epearen hasiera, eta likidatutako tributu-zorraren sarrera egiteko eskatuko dio.”

Hogeita hamahiru. 166. artikulua. Diru-bilketa egiteko jarduketei kontra egiteko arrazoiak.

160.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz likidatutako tributu zorra kobratzeko egiten diren diru-bilketako prozeduraren egintzen kontra, kasu bakoitzean erabiltzen ahal diren arrazoi bakarrak 128. artikuluan aurreikusitakoak izanen dira, bai eta enbargo eginbidearen eta enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakiaren kontra aurreikusitakoak ere, eta horien berriak IV. tituluko VII. kapituluan xedatutakoaren arabera eginen da.”

Hogeita hamalau. 167. artikulua. Ebazpen judizialak tributu likidazioan dituen ondorioak.

“1. Zerga administrazioak 160.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan emandako likidazioa bat etorririko da zigor prozesuaren amaieran ezartzen denarekin iruzurraren existentziari eta zenbatekoari dagokienez.

2. Doikuntza honela eginen da:

a) Zigor prozesuan Ogasun Publikoaren kontrako delituagatik zigorra ezartzen duen epaia ematen bada, eta prozesu horretan ezartzen bada iruzurraren kuota bide administratiboan likidatutako bera dela, ez da beharrezkoa izanen egindako liki-

dazioa aldatzea, horrek ukatu gabe, nolahi ere, dagozkion berandutze-interesen eta errekaruen likidazioa egitea.

Zigor prozesuan zehazten den iruzurraren zenbatekoa bide administratiboan finkatu dena baino handiagoa edo txikiagoa baldin bada, 160.2 artikularen babesean emandako likidazioa aldatu egin beharko da. Kasu horretan, hasierako egintzak iraunen du, eta epaiaren edukiarekin bat zuzenduko da, zigor prozesuan zehaztutako iruzurraren kuotaren zenbatekora egokitzeko.

Zerga administrazioak aurreko lerrokadan xedatutakoaren babesean egindako aldaketa horrek ez du eraginik izanen diru-bilketarako egindako jarduketan balioan, zigor prozesuan berretsitako zenbatekoari dagokionez.

Aldaketaren erabakia exekuziorako eskumena duen epaimahaira igorriko da, bai eta ordaintzera behartuta dagoenari eta zigor prozeduran agertutako gainerako aldeei ere.

Zigor prozesuan zehaztutako iruzurraren zenbatekoa bide administratiboan finkatutakoa baino txikiagoa baldin bada, aplikatzekoak izanen dira tributu araudian horretarako ezarritako arau orokorrak, sarreraren itzulketei eta bermeen kostuaren itzulketari dagozkionak.

b) Zigor prozesuan ez bada ikusten azkenean delitua dagoenik, zerga betebeharririk ez dagoelako, likidazio administratiboa baliogabetu egingen da, eta aplikatzekoak izanen dira tributu araudian horretarako ezarritako arau orokorrak, sarreraren itzulketei eta bermeen kostuaren itzulketari dagozkionak.

c) Zigor prozesuan ebazpen irmoa ematen bada, baina horretarako arrazoiak ez bada zerga betebeharririk ez izatea, bidezkoa izanen da ikuskapen jarduketak atzera eramatea, delituarekin lotutako likidazio proposamena, 163.1 artikuluan aurreikusitakoa, eman aurreko unera, kontuan hartuta organo judizialak frogatutzat eman dituen egitateak, eta akta formalizatuko da, eta ondoren foru lege honetan eta haren garapen araudian ezarritakoarekin bat tramitatuko.

Ikuskapen jarduketak 135. eta 136. artikuluetan xedatutakoarekin bat amaituko dira.

Prozedura amaitu beharko da jarduketak atzera eramandako unetik hasita 139. artikuluan 1. idatz-zatian aipatzen den epea amaitu arteko aldiaren, edo sei hilabetearen, epe hura luzeagoa baldin bada. Jarduketari ekiteko eskumena duen organoak espedienteak jasotakoan hasiko da kontaktzen epe hori.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutze-interesak eskatuko dira. Berandutze-interesa kontaktzen hasteko eguna baliogabetutako likidazioari zegokiokeen berbera izanen da, eta interesa likidazio berria ematen den unera bitarte sortuko da.

Likidazio hori tributu likidazio orori dagozkion berrikuspen eta errekurtsioen araubidearen menpe egonen da –IV. tituluko VII. kapituluan araututakoa–, baina epai judizialean frogatutako egitateen kontrako inpugnaziorik ezin izanen da egin.

Kasu horietan, zorra zehazteko eta zehapena ezartzeko eskubidearen preskripzio epeen kontakteta hasiko da, 57.3 artikuluan adierazitakoarekin bat.”

Hogeita hamabost. 168. artikulua. Erantzuleak.

“1. 160.2 artikuluan agindutakoarekin bat likidatutako tributu-zorraren erantzule solidarioak izanen dira likidazio hori eragin duten egintzen kausatzaileak edo partaide aktiboak izan direnak, salautako delituagatik hasitako zigor prozesuan inputaturik daudenak edo prozesu horren ondorioz zigorra jaso dutenak.

Likidazio prozeduran lortu diren eta artikuluan honetan ezarritako erantzukizuna eskatzeko prozeduran kontuan hartu behar diren datuak, frogak edo inguruabarrak ebazpen proposamena egin aurretik gehitu beharko zaizkio formalki prozedurari.

2. 160.2 artikuluan aipatzen diren likidazioei dagokienez, aplikatu beharrekoak izanen dira, halaber, 30.4 artikuluan araututako erantzukizun kasuak.

3. Aurreko 1. idatz-zatian aurreikusitako erantzukizuna deklaratzeko duen erabakiaren kontrako errekurtsioan edo erreklamazioan erantzukizun horren irismen orokorra baizik ez da inpugnatzeko ahalko.

4. Zigor prozesuan erabakitzen bada largestea edo absolbitzea 1. idatz-zatian aipatzen diren erantzuleetako edozein, haren erantzukizunaren deklarazioa baliogabetu egingen da, eta tributu araudian ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira, sarreraren itzulketari eta bermeen kostuaren itzulketari dagozkionak.

5. 57.4 artikuluan xedatutakoa ukatu gabe, 1. idatz-zatian aipatzen diren erantzukizun kasuetan, zergadun batentzako preskripzio epea etenda, ondorio horrek gainerako zergadunak ere hartzen ditu, erantzuleak barne.

6. 1. eta 2. idatz-zatietan araututako kasuetan, erantzukizuna deklaratzeko erabakiak emateko eskumena diru-bilketaren organoari dagokio.

7. Erantzukizuna deklaratzeko prozedurarako epea etenda dagoela ulertuko da salaketa edo kereila Fiskaltzan edo organo judizialean aurkezten denetik auzipetuen inputazio formala egin arte iragaten den denboran.

Artikulu honetan erantzukizuna deklaratzeko aurreikusten den prozedura tramitatu bitartean hartutako kautelazko neurriei 118.5.e) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.”

Hogeita hamasei. VI. titulua gehitzea. Zerga arloari eragiten dieten Estatuko laguntzak berreskuratzea.

Hogeita hamazazpi. I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

Hogeita hemezortzi. 169. artikulua. Xedapen orokorrak.

“1. Nafarroako Zerga Ogasunari dagokio Estatuko laguntzak berreskuratzeke erabakiak betetzeko behar diren jarduketak egitea, laguntza horien esparruaren gaineko tributu ahalmena Nafarroako Foru Komunitatearena baldin bada Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat.

2. Tributu kudeaketako prozeduratzat jotzen dira, batetik, Estatuko laguntzak berreskuratzeke erabakiak betetzeko beharrezkoak diren jarduera administratiboak egitea, laguntza horiek tributu arlokoak badira, eta, bestetik, zergadunen jarduketak, erabaki horietatik datozen eskubideak baliatzeke edo zerga betebeharrak betetzeko egindakoak.

3. Artikulu honen aurreko idatz-zatietan aipatzen diren kasuez gain, titulu honetan xedatutakoa beste kasu batzuetan ere aplikatuko da, baldin eta horietan, Europar Batasuneko zuzenbidea betez, bidezkoa bada eskatzea tributuen esparruko Estatuko laguntza gisa jasotako zenbatekoen itzulketa.”

Hogeita hemeretzi. 170. artikulua. Estatuko laguntzak berreskuratzeke erabakiak betetzeko prozedurak.

“1. Estatuko laguntzak berreskuratzeke erabakiak betetzeko prozedurak hauek dira:

a) Berreskuratzeke prozedura, erabakiak ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuen erregularizazio kasuetan.

b) Berreskuratzeke prozedura beste kasu batzuetan.

2. Estatuko laguntzak berreskuratzeke erabakiak betetzeko, IV. tituluko VI. kapituluan araututako ikuskapen prozedura ere erabiltzen ahalko da, prozedura horren irismenak 174.1 artikuluan xedatutakoa gainditzen badu.

Kasu horietan, egiaztapenaren xede diren zerga betebeharraren elementuen likidazioa emanen da, likidazio desberdinetan bereizita erabakia- ren xede direnak, batetik, eta horrekin loturarik ez dutenak, bestetik.”

Berrogei. 171. artikulua. Preskripzioa.

“1. Berreskuratzeke erabakia betetzetik sortzen den tributu-zorra zehazteke eta haren ordainketa eskatzeko Administrazioak duen eskubideak hamar urtera preskribatuko du.

2. Erregularizazioaren xede den zerga betebeharra betez Estatuko laguntzaren aplikazioak, tributu araudiarekin bat, ondorio juridikoak izan eta biharamunean hasiko da kontaktzen preskripzio epea.

3. Preskripzio epea kasu hauetan etenda geldituko da:

a) Europako Batzordeak edo, Batzordeak berak eskatuta, zerga administrazioak Estatuko laguntzarekin lotuta egindako edozein jarduketagatik.

b) Zerga administrazioaren edozein egingzatigatik, zergadunak horren berri formalki duelarik, berreskuratzeke erabakiak ukitzen dituen elementuetatik sortutako tributu-zorra onartu, erregularizatu, egiaztatu, ikuskatu, ziurtatu eta likidatzeko denean, edo ordainketa eskatzeko.

c) Zergadunaren edozein jarduketa frogatugatik, tributu-zorra likidatu edo ordaintzeko helburua duena, edo bidezkoak diren errekurtsioak aurkezteagatik.

4. Preskripzio epea etenda geldituko da berreskuratzeke erabakia Europar Batasuneko Justizia Auzitegian prozedura baten xede den denboran.”

Berrogeita bat. 172. artikulua. Berreskuratzeke erabakia betetzeak dituen ondorioak.

“1. Estatuko laguntza berreskuratzeke erabakiak ukitutako zerga betebeharrari dagokionez zerga administrazioak aurrez emandako ebazpen edo likidazio bat dagoenean, erabakia betetzeak ebazpena edo likidazioa aldatzea ekarriko du, irmoa bada ere.

2. Berandutze-interesak Europar Batasuneko araudian xedatutakoak arautuko ditu.”

Berrogeita bi. 173. artikulua. Betetzeko egin-tzaren kontrako errekurtsioak.

“Berreskuratzeko erabakia betetzeak eraginda-ko ebazpenaren edo likidazioaren kontra berraztertzearen errekurtsioa aurkezten ahalko da, bai eta, kasua bada, erreklamazio ekonomiko administratiboa ere, foru lege honetan aurrekusi bezala.

Ebazpena edo likidazioa aurreko lerrokadare-kin bat berrikusten bada, egintza administratiboan exekuzioaren etena onartuko da, soilik, bermea aurkezten bada Nafarroako Zerga Ogasunaren Diruzaintzan egindako diru-gordailua eginez.”

Berrogeita hiru. II. kapitulua. Berreskuratzeko prozedura, berreskuratzeko erabakia ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuen erregula-rizazio kasuetan.

Berrogeita lau. 174. artikulua. Berreskuratzeko prozedura, berreskuratzeko erabakia ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuen erregula-rizazio kasuetan.

“1. Berreskuratzeko erabakia ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuen erregularizazio kasuetan, zerga administrazioak erabaki horrek ukitzen dituen betebeharraren elementuak egiaz-tatu besterik ez du eginen.

2. Prozedura horretan Zerga Administrazioak jarduketak hauek baizik ez du egiten ahalko:

a) Zergadunek beraien aitortpenetan jarritako datuen eta aurkeztutako agirien edo eskatzen dire-nen azterketa.

b) Zerga administrazioak dituen datuen eta aurrekarien azterketa.

c) Tributu araudiak eskatzen dituen erregistro-en eta gainerako agirien azterketa, bai eta beste edozein liburu, erregistro edo agiri ofizialena, merkataritza kontabilitatea barne, eta liburu, erre-gistro edo agiri horietan sartutako eragiketarako justifikatzen dituzten faktura edo agiriena ere.

d) Hirugarrenei egindako informazio eskaerak.

3. Prozedurako jarduketak zerga administra-zioaren bulegoetatik kanpo egiten ahalko dira, eta horretarako aplikatzekoak izanen dira 131.2, 132. eta 133. artikuluetan jasotako arauak.

4. Ulertzen da aurreko idatz-zatietan aipatzen diren agiri eta jarduketan azterketa egiten dela, soilik, Estatuko laguntzaren berreskurapena bidez-koa den ezartzearen ondorioetarako, eta hori ez dela eragozpena ez eta muga ere izanen geroago egitate edo agiri horiek berak egiaztatzeak.”

Berrogeita bost. 175. artikulua. Hasiera.

“1. Erabakia ukitzen dituen zerga betebeharra-ren elementuen erregularizazio kasuetan, berreskuratzeko prozedura ofizioz hasiko da, Nafa-rrako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak emandako erabakiaren bidez.

2. Prozedurako jarduketak hasi direla jakinarazi beharko zaie zergadunei jakinarazpen baten bidez, bertan adierazita jarduketan izaera eta iris-mena eta jarduketa horietan zergadunak dituen eskubide eta betebeharraren berri emanez.

Zerga administrazioaren esku dauden datuak aski baldin badira likidazio proposamena egiteko, prozedura proposamena jakinaraziz hasten ahalko da.”

Berrogeita sei. 176. artikulua. Izapidetzea

“1. Erabakia ukitzen dituen zerga betebeharra-ren elementuen erregularizazio kasuetan, berreskuratzeko prozedurako jarduketak Zerga Ikuskaritzak eginen ditu, eta horien berri jasoko da foru lege honen 134. artikuluan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduaren 46. eta 47. arti-kuluetan aipatzen diren komunikazio eta eginbide-ak erabiliz. Erregelamendu hori ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

2. Zergadunek harrera egin beharko diote zerga administratioari, eta eginkizunak betetzeko behar duen laguntza emanen diote.

Eskaera jasotzen duen zergadunak jarduketak egiteko adierazitako tokian, egunean eta orduan agertu beharko du, eta dokumentazioa eta eskatu-tako gainerako elementuak jarri beharko ditu Administrazioaren eskura.

3. Behin-behineko likidazioa egin aurretik, zerga administratioak likidazio proposamena jaki-narazi beharko dio zergadunari, 10 eguneko epean bere eskubidearen alde komeni zaiona alega dezan.”

Berrogeita zazpi. 177. artikulua. Amaiera-egin-tzak.

“1. Berreskuratzeko erabakia ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuen erregularizazio kasuetan, berreskuratzeko prozedura modu haue-tako batean amaituko da:

a) Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuko zuzenda-riak emandako ebazpen espresaren bidez, eduki honekin, gutxienez:

1.a Berreskuratzeko erabakia ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuak eta jarduketan xede den denbora-eremua.”

2.a Ebazpena arrazoitzen duten egitateen eta zuzenbideko oinarrien zerrenda.

3.a Behin-behineko likidazioa edo, kasua bada, adierazpen espresa, berreskuratzeko erabakiaren ondorioz zerga egoera erregularizatu beharrik ez dagoela dioena.

b) Ikuskapen prozedura bat hasteagatik, berreskuratzeko prozeduraren xedea barne biltzen duena.

2. Prozeduraren iraupen epea, 87. artikuluan araututakoa, ez betetzeak ez du prozeduraren iraungipena ekarriko, eta prozedurak amaitu arte jarraituko du. Kasu horretan, preskripzioa ez da etentzat emanen epe horretan egindako jarduketa administratiboen ondorioz.

Kasu horietan, ulertuko da preskripzioa eten dela aurreko lerrokadan aipatzen den epea amaitu ondoren jarduketak egiten badira, interesdunak horren berri formala izanik.

3. Ebazpen judizial batek akats formalak daukela ikusi, eta jarduketa administratiboak atzera eramatea agintzen duenean, horiek epe honetan bukatuko dira: jarduketak atzera eramaten diren unetik 87. artikuluan adierazitako epea bukatzen den arte, edo hiru hilabeteen, baldin eta beste epea luzeagoa bada. Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuko zuzendariak espedientea jasotakoan hasiko da kontaktzen epe hori.”

Berrogeita zortzi. III. kapituluua. Berreskuratzeko prozedura beste kasu batzuetan

Berrogeita bederatzi. 178. artikulua. Berreskuratzeko prozedura beste kasu batzuetan.

“1. Berreskuratzeko erabakia betetzeak ez badakar berarekin zerga betebeharrak bat erregularizatzea, bete beharreko prozedura kapitulu honetan araututakoa izanen da.

2. Berreskuratzeko erabakia betetzeko, zerga administrazioak 123. artikuluan aurreikusten diren ahalmenak erabiltzen ahalko ditu, han jarritako baldintzekin.”

Berrogeita hamar. 179. artikulua. Hasiera.

“Berreskuratzeko prozedura ofizioz hasiko da.

Prozedurako jarduketak hasi direla jakinarazi beharko zaie zergadunari jakinarazpen baten bidez, bertan adierazita jarduketaren izaera eta jarduketa horietan zergadunak dituen eskubide eta betebeharren berri emanez.

Hasieraren jakinarazpenean ebazpen proposamena jasoko da, eta 10 eguneko epea emanen

zaio zergadunari bere eskubidearen alde komeni zaiona alega dezan.”

Berrogeita hamaika. 180. artikulua. Izapidetzea

“1. Erabakiak ukitzen dituen zerga betebeharraren elementuen erregularizazioa ekartzen ez duen kasuetan, laguntza berreskuratzeko prozedurako jarduketak zerga kudeaketarako organoek egiten dituzte, eta horien berri komunikazio eta eginbideak erabiliz egiten da.

2. Zergadunek harrera egin beharko diote zerga administrazioari, eta eginkizunak betetzen behar duen laguntza emanen diote.

Eskaera jasotzen duen zergadunak jarduketak egiteko adierazitako tokian, egunean eta orduan agertu beharko du, eta dokumentazioa eta eskatutako gainerako elementuak eman beharko ditu edo administrazioaren eskura izan.”

Berrogeita hamabi. 181. artikulua. Amaiera-egintzak.

“1. Berreskuratzeko prozedura Zerga Kudeaketa Zerbitzuko zuzendariak emandako ebazpen espresaz amaituko da, eta zergadunari prozeduraren hasiera jakinarazten zaionetik lau hilabete epean jakinarazi beharko da, salbu eta berreskuratzeko erabakiak beste epe bat ezartzen badu, 177. artikuluan xedatutakoa aplikatuko baita.

2. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean honako eduki hau jaso beharko da, gutxienez:

a) Administrazioak aurretik emandako ebazpena aldatzeko erabakia, berreskuratzeko erabakiak ezartzen duena betetzeko, edo, kasua bada, berreskuratzeko erabakiaren ondorioz inolako aldaketarik ez dela egin behar dion adierazpen espresa.

b) Ebazpenaren oinarri diren egitateen eta zuzenbideko oinarrien zerrenda.

c) Likidazioa, berreskuratzeko erabakia betetzeak tributu-zorra eskatzea ekartzen badu berarekin, bereziki berandutze-interesen sortzapenetik datorrena 172.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Ebazpen judizial batek akats formalak daukela ikusi, eta jarduketa administratiboak atzera eramatea agintzen duenean, horiek epe honetan bukatuko dira: jarduketak atzera eramaten diren unetik 1. idatz-zatian adierazitako epea bukatzen den arte, edo bi hilabeteen, baldin eta beste epea luzeagoa bada. Epe hori Zerga Kudeaketa Zerbitzuko zuzendariak espedientea jasotzen duenetik aurrera hasiko da kontaktzen.”

Berrogeita hamahiru. Hamaseigarren xedapen gehigarria aldatzea. Elkarren laguntzaren gaineko zerga araubidea. Finantza kontuei dagokienez informazio eta izan beharreko arreta betebeharrak elkarren laguntzaren esparruan.

“1. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 5.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, araubide berekirik ezean, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren III. tituluko VI. kapituluan elkarren laguntzari buruz aurreikusitako zerga araubidea aplikatuko da Nafarroan, baita arau horretan arlo horri buruz dauden gainerako xedapenak ere, eta, zehazki, honako hauei buruzkoak: berandutze-interesak kobratzea, ordainketa geroratzea eta zatikatzea, preskripzio epeak etetea, kredituen lehentasuna eta bermeak, tributu arloko datuak lagatzea, frogen bitartekoak eta balorazioa, kautelazko neurriak hartzea eta ordainarazpen aldiaren errekaratzea sortzapena.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz, halaber, bertako erregularizaziorik izan ezean, finantza kontuei dagokienez informazio eta izan beharreko arreta betebeharrak elkarren laguntzaren esparruan, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren hogeita bigarren xedapen gehigarrian eta harekin lotutako xedapenetan araututakoak aplikatuko dira Nafarroan.

Ondorio horietarako, finantza erakundeek finantza kontu batzuen titularitatea edo kontrola duten pertsonen bizilekua identifikatu beharko dute, eta zerga administrazioari informazioa eman beharko diote kontu horiei buruz, fiskaltasunaren arloko lankidetzaren administratiboari buruz Kontseiluak 2011ko otsailaren 15ean emandako 2011/16/EB Zuzentarauan xedatutakoari jarraikiz (Zuzentaru hori Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaruak aldatu zuen, fiskaltasunaren arloan informazio truke automatikoaren betebeharrari dagokionez); era berean, kontuan hartu beharko da Finantza-kontuei buruzko Informazioaren Truke Automatikoaren gaineko Agintaritzaren Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuen xedatutakoa.

Horrekin batera, finantza kontuen titularitatea edo kontrola duten pertsonak beharturik egon behar dira beren egoitza fiskala identifikatzera kontu horiek irekita dauden finantza erakundeetan. Erregelamendu bidez garatuko dira egoitza identifikatzeko eta informazioa emateko betebeharrak, bai eta izan beharreko arretari dagozkionak ere, hain zuzen ere finantza erakundeek bertan irekitako finantza kontuei dagokienez aplikatu beharrekoak haien titularitatea edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko.

Hogeita bigarren xedapen gehigarri horretan xedatutakoa aplikatzeko izanen da, halaber, finantza kontuen gainean informazio eta izan beharreko arreta betebeharrari dagokienez Amerikako Estatu Batuen eta Espainiako Erresumaren arteko Akordioan xedatutakoari jarraikiz, gai fiskalak nazioartean betetzea hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act - FATCA inplementatzeko Akordioan alegia.

Idatz-zati honetan aipatzen diren aitorten informazioak Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko titularrak ezartzen duen moduan, tokian eta epean aurkeztu beharko dira.”

Berrogeita hamalau. Hogeitaseigarren xedapen gehigarria gehitzea. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2017an egiten diren eskaerei aplikatzen zaizkien neurri berriak.

“Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2017an egiten diren eskaerei, betiere horien diru-bilketa kudeatzeko lana Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari badagokio, honako xedapen berriak hauek aplikatuko zaizkie:

Lehenena. Geroratzeetan ez da bermerik eskatuko baldin eta zorraren zenbatekoa, guztira, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduen 51.1.b) artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa bada, betiere zerga edo geroratu beharreko zorrari dagokion kontzeptua ez badago aipatutako Erregelamenduen 48.3 artikuluan adierazitako salbuespenen artean, maiztasuna hilerokoa bada, epea ez bada bi urte baino handiagoa, eta eskatzaileak geroratzeko eskatutako zorraren 100eko 30 ordaintzen badu tramitatu aurretik.

Bigarrena. Bai borondatezko epean bai ordainarazpen aldiaren egindako geroratze edo zatikatze eskaeretan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 6.000 eurotik beherakoa bada, geroratze edo zatikatze epea hamabi hilekoa gehienez, eta maiztasuna hilerokoa, ez da bermerik eskatuko, ez eta ordainketa tramitazioaren aurretik egin beharra ere.

Hirugarrena. Premiamendu bidez geroratu edo zatikatu beharreko zorraren artean baldin badaude bide horretan berean lehenago geroratu edo zatikatutako zorrak, kitatuta daudenak, zor horien saldoaren 100eko 30, arestian aipatutako lehen xedapenean aipatzen dena, ordaintzeko eskatuko da, bai eta bete gabeko geroratze edo zatikatzean kontuan hartu ziren zorrei dagozkien ordainarazpen aldiko errekaratzeak eta interesak ere, osorik, horiek ordaintzeko beharra atzeratu egin baitzen



geroratzea onartu zenean, 117.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zenbateko horiek exijituko dira, halaber, bermea eratzeko beharra dakarten geroratze edo zatikatzeetan, Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Geroratu edo zatikatzeko eskaeran sartutako gainerako zorretarako, baldin badago, aurreko lehen eta bigarren xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

Laugarrena. Borondatezko epeko zorren kasuan, geroratze edo zatikatze eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta erabat kitatu gabe badaude hiru tributu-zor edo gehiago edo Nafarro-

ako Ogasun Publikoaren bestelako eskubide ekonomiko batzuen hiru sarrera edo gehiago, salbu eta geroratzeko eskatutako zergak bermatzen badira edo aurrekoak bermatuta badaude, soil-soilik aipatutako Diru-bilketa Erregelamenduaren 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin bermatuta egon ere.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2017ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Nolanahi ere, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren V. eta VI. titulu berrietan xedatutakoa 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako prozeduretan aplikatuko da.



## **Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena."

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legeiltzarreko Erregelamenduaren 153. artiku-luak ezarritakoarekin bat, aipatutako foru legea gehiengo osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artiku-luan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasu-nei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena**

Foru lege honen xedea da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea hein batean aldatzea, lau helbururekin.

Lehendabizi, foru legearen asmoa da berrestea "itzaleko bidesaria" delakoa duten autobiak lurraren kontribuzioa ordaintzera behartuta daudela; horretarako, araudia argitzen du, gaiari buruz dagoen desadostasun juridikoa amaiarazteko, zeina islatzen baita gaur egun gauzatzen ari diren zenbait prozedura judizialetan. Aipatu autobiez gain, itzaleko bidesaria delakoa daukaten beste azpiegitura batzuk ere lurraren kontribuzioari lotuta geldituko dira.

10/2013 Foru Legeak Nafarroako Toki Ogasu-nei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea-ren 134. artikuluan egindako aldaketak argi utzi bazuen ere legegile nafarraren asmoa, itzaleko bidesaria delakoa daukaten autobiak lurraren gai-neko kontribuzioari lotzekoa, kontua da haren hitzek zenbait zehazgabetasun dituztela, zuzendu beharrekoak direnak, gaur egungo gatazka judizialak bukatuko badira.

Bigarrenik, jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren hainbat aspektu berritzera dator, zergaren Erregistroaren publikotasunari eta osaerari buruz, bai eta haren edukiari buruz ere. Testuinguru horretan, zehaztu egiten da zein datu diren, sub-

jektu pasiboarenak eta jarduera ekonomikoarenak, Erregistroaren zentsuetan agertu beharrekoak. Urteko Erregistroaren publikotasunari dagokionez, zenbait berrikuntza garrantzitsu egin dira: aipatu Erregistroa ez zaio Udalari igorriko hark jendaurrean jartzeko, baizik eta Interneten ikusgai jarriko da; gainera, publikotasunak ez du denbora mugarik izanen, urteko Erregistroaren edukia urte osoan zehar kontsultatzen ahalko baita web-orrian; hala-ber, ahalbidetuko da Jarduera Ekonomikoaren Erregistroan jasota dauden hurrengo datuak bide bere-tik ikustea, kontsulta egiten den unean: jarduera ekonomikoak burutzen dituzten subjektu pasiboak identifikatzekoak eta jardueraren helbidea eta epi-grafea edo azpiepigrafeak.

Bestetik, udalei esleitzen zaie jarduera ekono-mikoen gaineko zergaren ikuskatzea, nahiz eta zeregin hori Nafarroako Zerga Ogasunarekin partekatuta izanen duten. Horrela, aipatu entitateek behar bezala betetzen ahalko dituzte beren esku-menak: udalek, zergaren likidazioari eta Erregis-troa etengabe eguneratzen laguntzeari dagokie-nez; Nafarroako Zerga Ogasunak, Erregistroa osatzeari eta jarduera ekonomikoaren kuotak kalifikatzeari eta jartzeari dagokionez.

Foru legeak aintzat hartuta Jarduera Ekono-mikoen gaineko Zergaren Erregistroak berebiziko garrantzia duela bi erakundeentzat, jakintzat ema-ten da udalen eta Nafarroako Zerga Ogasunaren eskumen-jardunaren hobekuntza horrek funtsezko beste ondorio bat izanen duela: eraginkortasun handiagoa iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekono-miaren aurkako borroka bateratuan.

Bestetik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaine-ko zergaren tarifak eguneratu egiten dira, azken urteotan erabili diren irizpide berei jarraituz.

Azkenik, funtsezko aldaketak egin dira zerga-dunaren ordezkoren figuran, hirilurren balio igoe-raren gaineko zergari dagokionez.

Jakina denez, foru legeriak ezartzen du ezen, lur-eskualdaketetan edo jabetza mugatzen duten gozamen-eskubide errealeen kostu bidezko eskualdatzean nahiz eraketan, subjektu pasibo dela lurraren eskualdatzailea edo kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona, zergadun gisa. Dena dela, kasu horietan, eskura-tzailea zergadunaren ordezko izanen da, salbu eta eskuratzaile horrek salbuespen subjektiboa duen kasuetan.

Araudi horri jarraituz, Udalak zuzenean jo behar du ordezkorengana, zerga-bilketa egiteko. Beraz, eskuratzailerak edo erosleak *ope legis* ordeztzen du saltzaile-zergaduna; hau da, legearen indarrez, beharrezkoa izan gabe alderdien artean itun pribaturik egin izana zergaren ordaintzaile eroslea izateari buruz.

Egoera horrek, zerga-kudeaketa eta -bilketa errazten baititu, disfuntzio eta irregulartasun ugari ekarri ditu, eta askotan eta fundamentuz salatu izan dituzte horiek Arartekoak, doktrinak eta jurisprudentziak. Foru legeak egoera hori konpondu nahi du eta, gure inguruko tributu araudiek bezala, hirilurren balio igoerari buruzko zergan kostu bidezko negozio juridikoetako ordezkoren figura mugatu egiten du halako kasuetara non lurra saltzen duen zergaduna edo kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona Espainian bizi ez den pertsona fisiko bat den. Hortaz, lurra eskuratzen duen edo eskubide erreala bere alde eratzen edo eskualdatzen den pertsona kasu horietan bakarrik izanen da ordeko.

Hori galarazi gabe, dagoen moduan mantentzen da ordezkoren figura, finantza-entitate bat denean etxebizitza eskuratzen duena, judizio barenko nahiz kanpoko hipoteka-betearazpen batean.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako artikuluek testu hau izanen dute:

Bat. 134.3.a) artikulua

"a) Errepideak, bideak, lur gaineko bestelako bideak eta ur jabari publikoko ondasunak, betiere erabilera edo aprobetxamendu publikoa eta doakoa baldin badute. Itzaleko bidesaria delakoa daukaten autobiak eta bestelako azpiegiturak zergari lotuta egonen dira"

Bi. 134.4 artikulua.

"4. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 34. artikuluari jarraituz, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du udalez gaindiko balorazio partzial baterako lantalde bat onestea, bi udal mugarte edo gehiago ukitzen dituzten azpiegiturei balio bat eman ahal izateko metodo eta parametroak ezartzeko"

Hiru. 156. artikulua.

"1. Udalek kudeatuko dute zerga, Jarduera Ekonomikoen Erregistrotik abiatuta.

Erregistro hori urtero osatuko da udal mugarte bakoitzerako, eta halako zentsuz osatuta egonen da non jasoko baitira jarduera ekonomikok egiten

dituzten subjektu pasibo guztien identifikazio-datuak eta helbide fiskala, jardueraren helbidea eta epigrafea edo azpiepigrafea, eta ordaintzen duten zergaren kuota (nazionala, lurraldekoa edo udalean gutxienekoa).

Urte bakoitzeko Erregistroa aurreko urteko abenduaren 31n itxiko da, eta urte horretan izandako alta, aldaketa eta bajak jasoko ditu, barne direla urtarrilaren 31 arte aurkeztuak izanik urtarrilaren 1a baino lehenagoko egitateei buruzkoak diren aitortpenen ondoriozkoak.

2. Urteko Erregistro hori jendearen eskura egonen da urte natural osoan Nafarroako Zerga Ogasunaren web-orrialdean.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa galarazi gabe, zilegi izanen da bide beretik eskuratzea hurrengo datuak ere, kontsulta egiteko unean Jarduera Ekonomikoen Erregistroan jasota daudenak: jarduera ekonomikok egiten dituzten subjektu pasiboak identifikatzekoak, eta jardueraren helbidea eta epigrafea edo azpiepigrafea"

Lau. 157.3 artikulua.

"3. Hurrengo artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoa galarazi gabe, zergaren erregistroaren osaketaz Nafarroako Zerga Ogasuneko organo eskudunak arduratuko dira. Orobat, aipatu organoek eginen dute jarduera ekonomikoen kalifikazioa eta kasuko kuoten zehaztapena, eta jarduerak kalifikatzeko eta kuotak zehazteko egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahalko da urteroko urtarrilean, Ogasun arloan eskumena duen departamentuaren titularrari zuzenduta"

Bost. 158.3 artikulua.

"3. Bai Foru Komunitateko Zerga Administrazio-ko organo eskudunek bai lotutako jarduerak gartzten diren udal mugarteko udalekoek, zeinek bere eskumena behar bezala baliatzeko beharrezko ikuskatze jarduketak egiten ahalko dituzte; bereziki, Jarduera Ekonomikoen Erregistroa uneoro eguneratzeko beharrezkoak direnak. Lurraldeko edo Estatuko kuoten araberako zerga-ordainketaren kasuan, eskumena dagokio subjektu pasiboak non duen ohiko etxebizitza edo helbide fiskala, hango udalari.

Baldin eta udal eskudunak, egiaztatze eta iker-tze urrats egokiak egin ondoren, jakiten badu subjektu pasiboak hasi, aldatu edo bukatu egin duela aitortu gabe dagoen zergapeko jarduera baten egitea, urrats horien emaitza jakinaraziko dio, eta hamabost eguneko epea emanen, bere eskubidearentzat komenigarritzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Epe hori iraganik, eta egiten diren alegazioak ikusita, udalak, zer den bidezkoa,

Jarduera Ekonomikoen Erregistroan sartu, aldatu edo bertatik kenduko du behar dena; orobat, dagozkion zerga likidazioak eginen ditu. Ofizioz egiten diren sartze, kentze edo aldatze horiek erregistro-eta likidazio-alorretako ondorioak izaten ahalko dituzte preskribatu gabeko zergaldiei dagokienez, eta 155.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Bai aipatu erregistro-egintzak bai likidaziokoak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkio, eta 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera aurkaratzen ahalko dira.

Modu berean eta ondorio berekin, Foru Komunitateko Zerga arloko Administrazioako organo eskudunek bidezkoa den sartze, aldatze edo kentzea egiten ahalko dute Jarduera Ekonomikoen Erregistroan, aurreko lerroaldean aurreikusitako prozedura bera baliatuz. Aurreko artikulua 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera gauzatuko dira erregistro-egintzen aurkako errekursoak; errekurso horiek hilabeteko epean jarri beharko dira, jakinarazpenetik aurrera.

Foru Komunitateko zerga arloko administrazioek eta Nafarroako toki entitateek berehala emanen diote elkarri zeinek bere jarduketan emaitzen berri”

Sei. 162.1 artikulua. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

“1. Zerga eskatuko da tarifa hauei jarraikiz:

Kuotak:

a) Turismoak:

- 8 zaldi fiskal baino gutxiago: 19,42 euro.
- 8tik 12 zaldi fiskal bitarte: 54,61 euro.
- 12 zaldi fiskaletik 16ra bitartean: 116,48 euro.
- 16 zaldi fiskal baino gehiago: 145,65 euro.

b) Autobusak:

- 21 leku baino gutxiago: 135,89 euros.
- 21 lekutik 50era bitartean: 194,16 euros.
- 50 leku baino gehiago: 242,71 euro.

c) Kamioiak:

- 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 68,02 euros.
- 1.000 kg-tik 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria: 135,89 euros.
- 2.999 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria: 194,16 euros.
- 9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria: 242,71 euro.

d) Traktoreak:

- 16 zaldi fiskal baino gutxiago: 33,36 euro.
- 16tik 25 zaldi fiskal bitarte: 66,69 euro.
- 25 zaldi fiskal baino gehiago: 133,23 euro.

e) Atoiak eta erdi-atoiak:

- 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 34,04 euro.
- 1.000 kg-tik 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria: 68,02 euros.
- 2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria: 135,89 euro.

f) Bestelako ibilgailuak:

- Ziklomotorrak: 4,89 euro.
- 125 cc bitarteko motozikletak: 7,34 euro.
- 125 cc-tik gora 250 cc-ra bitarteko motozikletak: 12,17 euro.
- 250 cc-tik gora 500 cc-ra bitarteko motozikletak: 24,00 euro.
- 500 cc-tik gora 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak: 48,02 euro bakoitzeko.
- 1.000 cc-tik gorako motozikletak: 96,03 euro”

Zazpi. 174.1.b) artikulua.

“b) Lurrak eskualdatzen edo jabaria mugatzen duten eskubide errealak eratu edo eskualdatzen direnean, kostu bidez, lurraren eskualdatzailea edo kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

Letra honetan aipatzen diren kasuetan, lurraren eskuratzailea edo delako eskubide erreala noren alde eratzen edo eskualdatzen den, huraxe hartuko da zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat; betiere, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren arabera eskuratzailea zergadunaren ordezkotako denean, eskualdatzaileari betiere jasanarazten ahalko dio kargaren zenbatekoa”

Zortzi. 174.2 artikulua.

“2. Hipoteka-zordunek ohiko etxebizitzaren gainean egiten dituzten eskualdaketetan, baldin eta etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasunpean duen bakarra bada, higiezia eskuratzen duen entitatea zergadunaren ordezkotako izanen da, eta ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari, honako kasu hauetan:

a) Finantza-entitate batek eskatuta abiarazitako prozedura judizial batean.

b) Etxebizitza notario bidez judizioz kanpo saltzen den kasuetan (Hipoteka Legearen 129. artikulua).

c) Etxebizitza ordainean ematen denean, hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin hipoteka-betearazpenaren ordezkotzako neurri gisa erdietsitako akordioen ondorioz.

d) Etxebizitza finantza-entitate hartzekodun baten, haren higiezin-filialen edo haren aktibokudeaketarako entitateen alde eskualdatzen den gainerakoetan, zeinak Kreditu-erakundeak berregituratu eta konpontzeari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legean definitzen baitira.”

Bederatzi. 174.3 artikulua.

“3. Hipoteka betearazpen judizial edo ez-judizial bat egiten ari den bitartean hipoteka-zordunek ohiko etxebizitzaz beste ondasunak direla-eta egindako eskualdaketetan, konkurtso-prozeduraren esparruan, higiezina eskuratzen duen finantza-entitatea zergadunaren ordezkotzako joko da, eta hari ordainarazten ahalko zaio haren kargaren zenbatekoa.”

Hamar. 178.6 artikulua.

“6. Artikulu honen 1. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, halaber behartuta dago zerga-egita-

tea gertatzearen berri Udalari ematera, subjektu pasiboen epe beretan:

a) Emailea edo kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duen pertsona, foru lege honen 174.1 artikulua a) letran aipatutako kasuetan; betiere, bizidunen arteko negozio juridikoaren bidez gertatu badira.

b) Eskuratzalea edo kasuko eskubide erreala bere alde eratzten edo eskualdatzen den pertsona, aipatu artikulua b) letran jasotako kasuetan.”

**Azken xedapenetan lehena.** Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

1. Foru lege honek 2017ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

2. Dena dela, 158.3 artikuluan xedatutakoa udalek 2017ko urtarrilaren 1aren ondoren hasten dituzten ikuskatze prozeduretan aplikatuko da, baina eragina izaten ahalko dute prozeduraren hasieran preskribatu gabe dauden zerga-egitateetan.

3. 174.1.b), 174.2 eta 178.6 artikuluetan xedatutakoa 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren zerga-egitateei aplikatuko zaie.

## **Foru Legea, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhua Aznárez Igarza

### **Foru Legea, Zenbait zerga aldatu eta beste tribu- tu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa**

#### ZIOEN AZALPENA

Foru lege honek arau hauek aldatzen ditu, besteak beste: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia; Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea; Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia; Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia; Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea; Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea; eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legea.

Foru legearen egitura hau da: hamaika artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Arau aldaketan helburua da Foru Komunitateko tributuen arloko legedia egokitzea tributuen arloko harreman juridikoaren, hau da, tributua aplikatzen diren obligazio, betebeharrak eta eskubideen multzoaren oinarri diren errealitate juridiko eta ekonomiko aldakorretara, helburu iraunkor hauek betetzeko: zerga-bilketa hobetzea eta tribu-

tuen kudeaketan metatutako esperientziak une bakoitzean eskatzen dituen interpretazio arazoak konpontzea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aldaketa asko sartu dira, hiru kategoriatan sailka daitezkeenak. Lehenik, legegintzako teknika hobetzeko, manu batzuk berrantolatuta dira eta beste manu batzuei barneko eta kanpoko koherentzia handiagoa eman zaie, beste arau batzuetara eginko igorpenak eta erreferentziak zuzenduz eta eguneratuz. Bigarrenik, sozietateen gaineko zergaren araudi berria sartutako aldaketan ondorioz, bere edukia pertsona fisikoen zerga pertsonalaren edukiarekin koordinatu behar da hainbat alderditan, hala nola errentak eratzitzeko araubidean, higiezinaren errentamenduaren kontzeptuan, enpresa jardueren gastu kengarrietan edo enpresa ekintzailtzarako pizgarrietan. Hirugarrenik, tributuen kudeaketan metatutako esperientziak gomendagarri egiten du aldaketa puntual batzuk sartzea zenbait arazo praktikoko konpontzeko, arlo zehatz batzuetako erregulazio eza betetzeko, interpretazio zalantzak argitzeko eta segurtasun juridikoa hobetzeko.

Testuinguru horretan, errenta salbuetsiak arautzen dituen 7. artikulua egitura antolatuta eta hobetu da, eta manu osoari testu berria eman zaio. Horrez gain, artikulua horretan salbuetsi nahi izan da Gizarte Segurantzak gaixotasun larria duten seme-alabak zaintzeko ematen duen prestazio ekonomikoa. Horretarako, salbuespen orokorra ezarri da seme-alaba adingabeak zaintzeko prestazio publikoetarako.

Errentak eratzitzeko araubideari dagokionez, PFEZaren testu bateginaren 11. artikulua testu berriak xedatzen du ezen sozietate zibilek errentak eratzitzeko araubidean ordainduko dituztela zergak, baldin eta sozietateen gaineko zergari lotuta ez badaude. Modu horretan, PFEZa sozietateen gaineko zergara egokitzen da, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera merkataritza helburua eta nortasun juridikoa dituzten sozietate zibilak sozietateen gaineko zergaren zergadunak izanen baitira.

Bestetik, kapital gisa jasotzen diren pentsio planen eta aurreikuspen plan aseguratuen prestazioetan lan etekin osoan aplikatu beharreko 100eko 40ko murriztapena aldatzen da, betiere bi urte igaro badira lehenbiziko ekarpenetik.

Izan ere, 17.2.b) artikuluari azken tarteki bat gehitu zaio, kasu zehatz batzuetan 100eko 40ko murriztapen horren aplikazioa mugatzeko. Hortaz, pentsio planen eta aurreikuspen plan aseguratuen onuradunek kapital gisa jasotzen dituzten prestazioetan, murriztapena kapital gisa jasotako zenbatekoari aplikatuko zaio, baina prestazioa jaso aurreko urtebetean egindako ekarpenen zenbatekoa kenduta.

Mugaketa honen arrazoia da egiten ari zen maltzurkeria hau saihestea: azken urtean kenkariaren goiko mugatik (7.000 euro) hurbil dauden ekarpenak egitea, zerga-oinarrian dagokion murriztapena sortuz, eta gero zenbateko horren arabera ordaintzea zergak, baina 100eko 40ko murriztapena aplikatuta.

Zuzeneko zenbatespenaren araubidean etekin garbia zehazteko arauak dagokienez, 35. artikulua arau orokor bat eta berariazko arau batzuk finkatzen ditu enpresa edo lanbide jardueretan etekin hori zehazteko. Arau orokorrean ez dago aldatarik: enpresa edo lanbide jardueretan etekin garbia zehazteko, zuzeneko zenbatespenaren araubidean sozietateen gaineko zergaren arauak aplikatuko dira. Berariazko arauetan aldaketa batzuk egin dira. Hortaz, nabarmendu behar da sozietateen gaineko zergaren arauetara eginiko igorpena, subjektu pasiboak jatetxe, ostalaritza, bidaia eta joan-etorrien zerbitzuei lotutako harreman publikoen arloan garatutako enpresa jardueren gastuen kasuan, baina ezberdintasun honekin: kontzeptu horien multzoaren gehieneko muga subjektu pasiboak zergaldian izandako diru-sarreraren bolumenaren 100eko 5 izanen da, jarduera bakoitzak zehaztua.

Sozietateen gaineko zergarekiko koherentzia mantentzeko antzeko arrazoiengatik, zehazten da ondasun higiezinaren errentamendua enpresa jardueratzat joko dela baldin eta, jarduera antolatzeke, lan kontratua eta lanaldi osoa dituen langile bat, gutxienez, erabiltzen bada, betiere subjektu pasiboaren ezkontidea ez bada eta, lerro zuzenean edo albotik, berarekin hirugarren maila arteko odol edo ezkontza bidezko ahaidetasunik ez badu.

Hirurogeita bost urtetik goitikoen edo menpekotasun larriko egoeran nahiz menpekotasun handikoan dauden pertsonak ohiko etxebizitza eskualdatzean duten salbuespena ere aldatzen da. Izan ere, kostu bidezko eskualdaketa salbuetsiko dira bakarrik, hau da, etxebizitza iraupen-gastuetarako dirua lortzeko saltzen denean. Bestetik, gutxieneko adina, 65 urtekoa zena, 70 urtekoa izanen da. Azkenik, ohiko etxebizitzaren lehenbiziko eskualdaketa salbuetsiko da bakarrik, hau da, etxebizitza baten eskualdaketa salbuetsiko da soilik.

Horrez gain, aldaketa esanguratsuak sartzen dira nazioarteko gardentasun fiskalari buruzko araubidean egiten den errenten egozpenean, sozietateen gaineko zergaren arauetara egokituz. Neurri horren oinarriko helburua da zerga-iruzur eta -ihesaren aurkako nazioarteko borroka bultzatzea. Horretarako, kontuan hartu behar dira ELGAK zerga-oinarrien higaduraren eta mozkinen lekualdaketaen aurkako ekintza planean (BEPS) egindako azterlanak. Nazioarteko joera horiek enpresa egiturak tributazio txikiko jurisdikzioetara lekualdatzearen aurkako borrokarekin koordinatu behar dira.

Testuinguru horretan, PFEZaren subjektu pasiboek Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek lortutako errenta positiboak egotziko dituzte, baldintza hauek betetzen direnean:

a) 100eko 50eko edo hortik gorako partaidetza izatea Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen kapitalean edo entitate horren funts berekietan, berak bakarrik edo loturiko entitateekin batera, entitatearen sozietate-ekitaldiaren itxiera egunean.

b) Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak sozietateen gaineko zergaren izaera berdindina edo antzekoa duen karga batengatik ordaindutako zenbatekoa, 51. artikuluan ezarritako errenta klaseetako baten bati egotzen ahal zaiona, aipatu zergaren arauen arabera egokituko zitzaionaren 100eko 75etik beherakoa izatea.

Konturako ordainketetan, negozio-zifraren zenbateko garbia 2.000.000 eurotik 1.000.000 eurora murrizten da. Zenbateko hori errentak eratzitzeko araubideko entitateei eskatzen zaie, zergaren konturako ordainketatzat jo ahal izateko jarduera ekonomikoaren gaineko zergagatik ordaindutako kuota. Horrela, gure inguruneke zerga administrazioek ezarritako irizpide bera erabiltzen da. Horrez gain, konturako ordainketatzat joko dira gutxieneko udal kuota, autonomia erkidegoko kuota eta estatuko kuota.

Bestalde, diru-sarreraren eta gastuen denboragozpenarako arau berri bat sartu da. Horren helburua da praktikan gatazkatsua zen kasu bat arautzea. Kasu hori da, nahitaezko desjabetzean, desjabetuak balio justua bide judizialean errekurritzea. Oro har, ondarean aldaketa gauzatzen da desjabetutako ondasuna okupatzen denean, eta zergaldi horretan ondare gehikuntza egotzi behar da. Hala ere, urte batzuk geroago balio justu handiagoa ezartzen duen ebazpen judizial bat ematen bada, bi aukera daude:

a) Ondare gehikuntza berriz kalkulatzea eta ondarean aldaketa gauzatu zen urtean egozte



eta, horren ondorioz, urte horretako autolikidazioa inpugnatzea. Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren 2015eko maiatzaren 13ko Ebazpenaren irizpidea da, gaur egungo arauditik ondorioztatzen ahal dena.

b) Balio justu handiagoak ekarritako gehikuntza epai irmoa eman zen urtean egoztea. Horixe da, hain zuzen ere, gure inguruneke araudiek finkatzen duten aukera, eta, horri esker, aurreko autolikidazioen inpugnazioak saihesten dira.

Azken irizpideari jarraikiz, 10. idatz-zatia gehitu zaio 78. artikuluari, honako hau ezartzeko: errenta bat osorik ordaindu ez bada errenta hori jasotzeko eskubidea edo errentaren zenbatekoa ebazpen judizial batek zehaztu behar duelako, zenbateko ordaindugabeak aipatu ebazpen judiziala irmo bihurtu den zergaldiari egotziko zaizkio.

Autolikidazioaren proposamena arautzeari dagokionez, ikusi da batzuetan subjektu pasiboak ez duela autolikidazioaren proposamena berresten, ez eta PFEZaren beste aitorten bat aurkezten ere, baina epez kanpo ordaintzen du proposamen horren ondoriozko kuota. Planteatzen diren interpretazio zalantzak argitzeko, xedatu da ezen, kasu horretan, autolikidazioaren proposamena autolikidazioa izanen dela; eta, gainera, zehazten da autolikidazioa ordainketaren egunean aurkeztutakotzat joko dela ondorio guztietarako.

Berrogeita laugarren xedapen gehigarriaren testu berriaren xedea da ekintzaitzari laguntzeko neurriak PFEZean arautzea. Sozietateen gaineko zergaren foru legean ekintzaitzari laguntzeko neurri berriak abian jarri direnez 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, berrogeita laugarren xedapen gehigarrian honako hau zehazten da soilik: sozietateen gaineko zergaren foru arauan ezarritakoaren arabera, sozietateen gaineko zergaren foru arau horretan ekintzaitzari laguntzeko ezarritako neurriak aplikatuko zaizkie ekintzaile izateko bete behar diren baldintzak betetzen dituzten PFEZaren subjektu pasiboek edo entitate ekintzaile izateko bete behar diren baldintzak betetzen dituen errentak eratzitzeko araubideko entitate bateko kideei.

Azkenik, berrogeita hamargarren xedapen gehigarria eta berrogeita hamaikagarrena sartzen dira, atxikipena egiteko betebeharra ezarritako landalurreko higiezin errentamenduen ondoriozko etekinen gainean eta harpidetza eskubideen eskualdaketa ondariorik ondare gehikuntzen gainean, hurrenez hurren. Atxikipena edo konturako diru-sarrera egin beharko da landalurreko higiezin errentamenduen edo azpierrementamenduen ondoriozko etekinengatik, eta atxikipenaren edo

konturako diru-sarreraren zenbatekoa hirilurreko higiezin errentamenduen edo azpierrementamenduen kasuetako zenbateko berdina izanen da. Harpidetza eskubideen eskualdaketa ondariorik ondare gehikuntzen gaineko atxikipen ehuneko 100eko 19 izanen da.

Ondarearen gaineko zergan bi aldaketa puntual sartu dira. Alde batetik, enpresa edo lanbide jarduerari atxikitako ondasun eta eskubideen balorazioa beste modu batean finkatzen da, edozein kasutan kontabilitateki ateratzen den baliora egiten baita igorpena, betiere Merkataritza Kodean xedatutakora egokitzen bada. Kontabilitate baliora egiten den igorpen horrek ez du salbuespenik. Bestetik, sortutako zalantza bat argitzeko, zergaren sortzapenaren gaineko zehaztapen bat sartu da, subjektu pasiboa abenduaren 31n hiltzen den kasurako.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan xedapen gehigarri bat sartu da, desgaitasuna duten pertsonen egoera hori eta desgaitasun maila errazago frogatu ditzaten. Horrez gain, judizialki deklaratu ezintasuna dutenek eta mendeotasun egoera bat, edozein gradutakoa, aitortua dutenek 100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna dutela ulertuko da.

Lau aldaketa nabarmendu behar dira ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan. Lehenik, 4.1 artikuluan egiten den aldaketaren helburua da honako hau argitzea: ez dira kostu bidezko ondare eskualdaketa izanen enpresaburu edo profesional batek bere enpresa edo lanbide jardueran gauzatutako ondasun entregak edo zerbitzu egiteak, ez eta, edozein kasutan, balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar duten ondasun entregak edo zerbitzu egiteak ere.

Beraz, a contrario sensu, ulertzen da kostu bidezko ondare eskualdaketa izanen direla enpresaburu ez den pertsona batek gauzatutako ondasun entregak edo zerbitzu egiteak, kontuan hartu gabe eskuratzaila enpresaburua den ala ez.

Horrela, behin betiko argitu nahi da enpresaburuak ez diren pertsonen egindako urte eta antzekoen salmentak kostu bidezko ondare eskualdaketa direla, eskuratzaila enpresaburua bada, epaitegi ekonomiko-administratiboan eta epaitegi judizialen interpretazio okerre aurka eginez.

Bigarrenik, 3. idatz-zatia gehitu zaio 8. artikuluari, higiezin eskualdaketa jakin batzuetan karga-tasa murriztua ezartzeko. Jakina denez, gaur egun ondare eskualdaketa zergan 100eko 6ko karga-tasa aplikatzen zaie enpresa edo lanbide ondararen parte diren elementu gorpuzdunen

edo, kasua bada, gorpuzgabeen multzo baten eskualdaketa sartzan diren higiezinaren eskualdaketei, baldin eta elementu horiek berez enpresa edo lanbide jarduera bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute, betiere bere inguruabarrengatik ondare horren eskualdaketa balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar ez badu. Beraz, BEZa ordaindu behar ez badu, karga-tasa normal bat aplikatzen da ondare eskualdaketen zergan.

Aldaketaren ondorioz, kasu horietan 100eko 2ko karga-tasa aplikatuko da bi baldintza hauek betetzen direnean:

a) Eskuratzailerak eskualdaketa aurreko urtean zegoen langileen batez besteko plantilla mantentzea, lan arloko araudian araututako pertsona-urte unitatetan neurtua.

b) Higiezinak ez eskualdatzea eta xedatze-egintzarik edo sozietate-eragiketarik ez egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eskurapen balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete.

Baldintza hauek hiru urtez bete behar dira, datatik datara zenbatuta eskualdaketatik hasita. Neurri horren helburua da, batetik, araua Europar Batasuneko legegilearen espiritura egokitzea eta, horrenbestez, enpresa eskualdaketei trabarik (aparteko kostu fiskalik) ez jartzea; eta, bestetik, harrigarria ematen badu ere, zerga horren benetako bilketa handitzea, gaur egun enpresa berregituratzeko eragiketa gehienek BEZa ordaintzen baitute eta ez, beraz, kostu bidezko ondare eskualdaketen zerga.

Hirugarrenik, 22. artikulua 2. idatz-zatia aldatzen da, lerrokada berri bat gehituz, egintza juridiko dokumentatuen gaineko mailakako kuota 100eko 0,5etik 100eko 1era igotzeko kasu batzuetan. Ondasun higiezinaren eskualdaketa dokumentatzen dituzten eskrituren eta notario-akten lehenbiziko kopiak izan behar dira, eta eskualdaketa horietan balio erantsiaren gaineko zergaren salbuespenari uko egin behar izan zaio.

Azkenik, aipatu behar da berritasun garrantzitsuak sartzan direla balioen egiaztapenean, bai ondare eskualdaketen zergan bai oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan. Hortaz, egiaztapenak egiteko bi bide zuzendu, eta horien irismena zabaltzen da:

a) Erregistro fiskal ofizialetan agertzen diren balioei egindako erreferentziaren arabeko zenbatespenaren bidez. Horrez gain, erreferentziaren arabeko zenbatespena egiteko aukera bat argitzen du: koefiziente biderkatzaileak aplikatzea

Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroan ondasun higiezinatarako agertzen diren balioei.

b) Merkatuko batez besteko prezioei egindako erreferentziaren arabeko zenbatespenaren bidez. Halaber, erreferentziaren arabeko zenbatespena egiteko aukera bat zehazten du: merkatuko prezioak egiaztatzeko metodo estatistikoa erabiltzea, eskaintzaren eta eskaeraren printzipioak araututako merkatu librean ondasunak duen balio probableena lortzeko.

Aurrekoa gorabehera, irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduerak bultzatzeko, foru legeak onura fiskal batzuk sartu ditu mezenasgo sozialerako. Helburu horrekin, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarriari edukia gehitu zaio.

Onura fiskal berri horiek izateko, entitate onuradun jakin batzuei eman behar dizkiote dohaintzak. Entitateek baldintza hauek bete beharko dituzte: irabazi-asmorik ez izatea; beren helburuak sozialak izatea, gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan; eta horiek eskuratzeko gastuak kendu ondoren jasotako errenten eta diru-sarreraren 100eko 70, gutxienez, bideratzea interes orokorreko helburuetara, eta gainerakoa, berriz, ondare zuzkidura edo erreserbak handitzera bideratzea, horiek eskuratu eta gehienez ere 4 urteko epean.

Pertsona fisikoak diren dohaintza-emaileek eskubidea izanen dute, emandako lehenbiziko 150 euroetan, zergaren kuotatik 100eko 80 kentzeko. 150 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 35eko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute. Bestetik, sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek, entitate onuradunei dohaintzak egiten edo dirukopuru batzuk ematen badizkiete, onura fiskal hauek izanen dituzte:

a) Emandako zenbatekoak kenkaria egiteko modukotzat hartuko dira zerga-oinarrian.

b) Horrez gain, zergaren kuota likidoan dohaintzen zenbatekoaren 100eko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

Gainera, foru legeak saneamenduko kanonaren tarifak eta Nafarroako Gobernuako Departamentuen tasa batzuk eguneratzen ditu. Saneamenduko kanon hori Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen bidez sortu zen. Horri dagokionez, nabarmentzekoak dira Osasun Departamentuaren osasun eta albaitaritza zerbitzuen tasa berriak, Kultura Departamentuaren

dokumentu ondareko agirien erreprografia zerbitzuaren tasaren aldaketa eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren tasak.

Halaber, Nafarroako Parlamentuko ikerketa batzordeek eskaturik, zenbait datu jakinarazteko betebeharrak arautzen duen abenduaren 9ko 21/1994 Foru Legearen artikulua bakarrik aldatzen da, haren edukia egungo zirkunstantzietara egokitzeko asmoz. Izan ere, iritzia da indarreko arauak eragotzi egiten duela Nafarroako Parlamentuko ikerketa batzordeek beren eginkizuna behar bezala betetzea. Hala ere, sartzen diren aldaketek kontuan hartzen dute pertsonen intimitatea eta segurtasun juridikoa bezain garrantzitsuak diren balioak zentzutasunez eta proportzioan baino ez direla ukitu behar, datuak eta zerga arloko aurrekariak jendaurrean ez jartzearen interesari dagokionez.

Halaber, aldaketa puntual bat egiten da Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean, kirol klub jakin batzuei zerga-zorren gerorapenak baldintza berezietan ematea ahalbidetze aldera.

Azkenik, hidrokarburoen gaineko zergaren karga-tasa autonomikoak kendu dira. Zerga berezietan dagokienez, gogoratu behar da ezen, Hitzarmen Ekonomikoaren 35.5 artikulua xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak zilegi izanen duela zerga horien karga-tasak ezartzea, betiere lurralde erkidean unean-unean indarra duten mugekin eta baldintzetan. Diru-sarrera publikoak gehitzeko, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legeak hidrokarburoen gaineko zergaren autonomia erkidegoko karga-tasa batzuk ezarri zituen Nafarroan 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Inguruar bar hori lehen ere gertatu zen, ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legearen bidez. Lege horren indaraldia 2013ko abenduaren 31ra luzatu zen.

2016. urteko esperientzia berriarekin egiaztatu da estatuko tasatik soilik eratorritako bilketa pixka bat murriztu dela Nafarroan, 2015. urtean erregistratuarekin alderatuta. Hala ere, egia da bilketa osoa hobetu dela, hain zuzen ere autonomia erkidegoko tasaren ekarpenagatik eta Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz zerga bereziak doitzeko gaur egun dagoen mekanismoaren aplikazioagatik. Haatik, aurreikusita dago zentzuzko akordio bat lortzea Estatuarekin, zerga berezien doikuntzarako indizeak nabarmenki aldatuko dituen hurrengo urteetan aplikatzeko, eta, horregatik, bilketaren ikuspuntutik jada ez da interesgarria autonomia erkidegoko indarreko tasak mantentzea hidrokarburoen gaineko zergan.

Horrez gain, kontuan hartu behar da autonomia erkidegoko tasa horiek Nafarroako kontsumoa kaltetzen dutela, ondoko lurralde gehienetan prezio merkeagoan daudelako, eta garraio sektorearen ordezkariak behin eta berriz adierazi dute hori. Horregatik guztiagatik, bidezkoztat jotzen da tributazio hori kentzea. Izan ere, 2015. urtearen bukaeran onetsi zenean iragarri zen koiunturala zela.

**Lehenengo artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) testu hau izanen dute:

Bat. 7. artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“7. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Errenta hauek salbuetsirik egonen dira:

a) Gizarte Segurantzak edo horren ordezkotzat erabiltzen diren subjektu pasiboari aitortzen dizkieten prestazioak, erabateko ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasun handiaren ondorioz.

Era berean, norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalen aitorturiko prestazioak -aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotzat erabiltzen dituzten gizarte-aurreikuspenarako mutualitateen prestazioak badiara-, beti ere, Gizarte Segurantzaren erabateko ezintasun iraunkorrerako edo baliaezintasun handirako aurreikusitako diren egoera berberetarako prestazioak badiara.

Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik onesten duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Mugaz gaindikoa lan etekin gisa ordainduko da zergan, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin batera gertatuz gero, lan etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Era berean, salbuetsiak egonen dira Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak ordainketa bakarreko modalitatean ordaindutako langabezia-prestazioak (ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretua, enplegua sustatzeko neurri gisa, ordainketa bakarreko langabezia-prestazioa arautzen duena, bere zenbatekoaren balio eguneratua), betiere, aipatu arauan aurreikusitako xedeetarako eta kasuetan.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, akzioa edo partaidetza bost urtez mantendu beharko da, baldin eta subjektu pasiboa lan-sozietateetan edo lan elkartuko kooperatibetan sartu bada edo merkataritza entitate bateko kapital sozialera ekarpen bat egin badu, edo bestela, jarduna epe berean mantendu beharko da langile autonomoaren kasuan.

b) Administrazio publikoek desgaitasunagatik edo baliaezintasunagatik aitortutako pentsioak, baldin eta gorputz-urritasunaren edo urritasun psikikoaren mailak edozein lanpostu betetzeko erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia badakar.

c) Langilea kaleratzeagatik edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuaren edo hori garatzeko araudian, edo kasua bada, epaiak betearazteko araudian nahitaezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutakoa ezin izanen da, ordea, derrigorrezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa alde batera utzi gabe, kaleratze kolektiboak Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten badira edo aipatu Estatutuaren 52.c) artikuluan aurreikusitako arrazoien ondorio badira, eta betiere bi kasuetan kausa ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak, produkzioak edo ezinbesteko kausak direla medio, aipatutako Estatutuaren bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da.

Letra honetan aipatutako kalte-ordain salbuespena 180.000 eurokoa izanen da, gehienez ere.

Baldin eta kaleratzearen kalte-ordaina guztiz edo hein batean ordaintzen bada kaleratutako langileak lan egiten zuen entitatetik heldu diren ondare-elementuak emanez, ondare-elementu horiek merkaturuan duten balioa salbuetsita egonen da, betiere honako baldintzak betez gero:

1. Subjektu pasiboak ondare-elementu horiek jartzea jarduera ekonomiko bat langile autonomo gisa egiteko edo lan elkartuko kooperatiba bateko nahiz lan sozietate bateko bazkide-langile gisa jarduteko.

2. Subjektu pasiboak langile autonomo gisa jardutea edo bazkide-langile gisa aritzea bost urtez, gutxienez ere.

3. Subjektu pasiboak langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzea, hain zuzen ere 1044/1985 Errege Dekretuan arautu bezala.

4. Gauzazko kalte-ordainaren zenbateko salbuespena ezin izanen da izan 180.000 eurori letra honetako lehenengo bi lerrokaden arabera salbuespena dagoen diruzko kalte-ordainaren zenbatekoa kenduta ateratzen den kendura baino handiagoa.

d) Zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondoriozko kalte pertsonalengatik administrazio publikoek ordaindutako kalte-ordainak, baldin eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren IV. kapituluaren ezarritakoaren arabera ezartzen badira.

Orobat, zerga honetatik salbuespena egonen dira honako lege hauetan aipatutako kalte-ordainaren ondorioz jasotako diru-kopuruak: Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legea, eta Terrorismoaren Biktimei Aintzatetsi eta haiei Osoko Babesa Emateko irailaren 22ko 29/2011 Legea. Era berean, salbuespena egonen dira ekintza terroristen ondoriozko kalteak arintzeko prestazio publiko bereziak, bai eta terrorismoaren aurkako borrokan emandako dominetatik eta kondekorazioetatik heldu diren pentsioak ere.

e) Kalte pertsonalen ondoriozko erantzukizun zibilaren kalte-ordainak, legalki edo juridikoki onesten den zenbatekoan.

Halaber, salbuetsirik egonen dira mota horretako kalteetarako istripu aseguruaren kontratuetatik heldu diren kalte-ordainak, salbu eta kontratu horien primek zerga-oinarria murriztu badezakete edo gastu kengarritzat har badaitezke foru lege honen 35. artikuluko 1. araua aplikatzearen ondorioz. Salbuespenaren muga izanen da jasandako kalteari zirkulazioko istripuetan pertsonen eragindako kalteak baloratzeko sistema aplikatuz ateratzen den kopurua; sistema hori Ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen Testu Bateginaren IV. tituluaren eta Zirkulazioko istripuetan pertsonen eragindako kalteak baloratzeko sistema aldatzen duen irailaren 22ko 35/2015 Legearen eranskinean ezarri da. Testu bategin hori urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

f) Espetxeetan askatasuna kentzea konpentsatzeko estatuko eta autonomia erkidegoetako legegintzetan ezarritako kalte-ordainak, Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legean aurreikusitako kasuetan.

g) Literatur sari, sari artistiko edo sari zientifiko garrantzitsuak, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, bai eta "Vianako printzea" eta "Asturiasko printzesa" sariak ere, modalitate guztietan.

h) Beka publikoak, Fundazioen eta babes jardueren tributua araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen aplikazio esparruan sartzen diren entitateek emandako beka, bai eta Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen II. tituluan araututako banku-fundazioek beren gizarte ekintza gauzatzeko emandako beka ere, hezkuntza sistemen maila eta gradu guztietako ikasketa arauak Espainian nahiz atzerrian egiteko ematen direnak, are doktoregokoak ere, erregelamenduz ezartzen den bezala.

Salbuetsita egonen dira, orobat, erregelamenduz ezarriko den bezala, Prestakuntzako Ikerlarien Estatutua onetsi zuen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak finkatutako eremuan, irabazimorik gabeko entitateek eta lehen aipatutako banku-fundazioek ikerketarako emandako beka eta beka publikoak, eta orobat, administrazio publikoen zerbitzuko funtzionario eta langileei eta unibertsitateko irakasle eta ikerlariari, ikerketarako bakar-bakarrik, entitate haiek ematen dizkieten beka eta beka publikoak.

Salbuetsita egonen dira, halaber, teknologoak teknologia zentroetan, unibertsitateetan edo enpresetan prestatzeko Foru Komunitateko Administrazioak emandako beka, kasuan kasuko deialdian hautatzen diren ikerketa eta garapen proiektuetarako.

Halaber, salbuetsiak egonen dira atzerriko unibertsitateetan masterreko programak egiteko Nafarroa Bekak, bai eta Foru Komunitateko Administrazioak "Ekintzailearen Beka" delako programaren bidez emandako laguntzak ere.

i) Epailearen erabakiaren ondorioz gurasoen mantenerako jasotako urtesariak.

j) Hirurogeita bost urteko edo hortik gorako pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak edo babesik gabe dauden adingabeak familian hartzeko edo egoitza batera edo eguneko zentro batera eramatearen gastua finantzatzeko erakunde publikoek emandako dirua.

Era berean, erakunde publikoengandik jasotako kopuruak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen beren arretarako zaintzak etxean bertan jaso ditzaten, eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko publikoak, familiaren baitako zainketa-erako eta laguntza pertsonalizaturako, Autonomia

pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeari jarraikiz.

Era berean, Foru Komunitateko Administrazioak gizarte integratzearako etxebizitzaren erosle edo esleipen-hartzaileei ematen dizkien diru-laguntzak.

k) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren VI. tituluko I. kapituluaren araututa dauden familia prestazioak, bai eta administrazio publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba desgaitu bakoitzarengatik ezarritako familia laguntza.

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urtetik beherakoak diren edo lan guztietarako ezindua dauden biloben edo anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik jasoak eta, halaber, zurtasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Modu berean, salbuetsiak egonen dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalen aitorturiko prestazioak -aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordeko lanak egiten dituzten gizarte-aurreikuspenarako mutualitateen prestazioak badira-, betiere, aurreko bi lerrokatetan aurreikusi diren egoera berberetarako prestazioak badira, hots, Gizarte Segurantzak aipatu araubide berezian txertatutako profesionalentzat aurreikusitakoak. Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik onesten duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Mugaz gaidikoa lan etekin gisa ordainduko da zergan, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateekin batera gertatuz gero, lan etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legearen ezarritako errenta bermatua ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagorik erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik

jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere.

l) Goi mailako kirolariei emandako eduki ekonomikoko laguntzak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak edo Kirolaren Kontseilu Nagusiak Espainiako kirol federazioekin edo Espainiako Batzorde Olinpikoarekin ezarritako prestakuntza programei doituak daudenak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

m) Espainiako Estatuak nazioarteko bake edo gizabide misioetan parte hartzeagatik ordainduta-ko aparteko dohaintzak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, ondoko baldintza hauek betetzen baldin badira:

Lehena. Lan horiek egiteko langileak atzerria joan behar badu, lekualdatutako pertsona enplegatu duen enpresaren edo entitatearen nazioz gaindiko zerbitzu prestazio bat dela eta.

Bigarrena. Lan horiek Espainiako egoiliarra ez den enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. Bereziki, lan horiek hartuko dituen entitatea langilea enplegatu duen entitatearekin edo langileak bere zerbitzuak ematen ditueneko enpresarekin lotua badago, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 29. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

Hirugarrena. Lanak egiten direneko lurraldean zerga hau bezalako edo antzeko beste zerga bat aplikatzea eta zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde bat ez izatea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da baldin eta lanak egiten direneko herrialde edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena badu nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko, informazioa trukatzeko klausularekin.

Salbuespena atzerrian egon bitartean sortutako ordainsariei aplikatuko zaie, urtean 30.000 eurori gehienez. Erregelamenduz ezartzen ahalko da egun bati dagokion diru-zenbateko salbuetsia kalkulatzeko prozedura.

Atzerrian aritzen diren subjektu pasiboan kasuan, albuespen hori ez da bateragarria izanen zerga ordaintzetik salbuetsitako soberakinen araubidearekin (zerga honi buruzko erregelamenduarien 8.ºA).3.b) artikuluan dago ezarria), haren zen-

batekoa edozein izanda ere. Subjektu pasiboak soberakinen araubidea aplikatzea aukeratzen ahalko du, albuespen honen ordez.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko mugaz gaindiko langileen izaera duten langileei, apirilaren 29ko 59/2011 Foru Aginduan aurreikusitakoarekin bat.

ñ) 1936-1939ko Gerran edo gerraren ondorioz lesioak edo mutilazioak jasan zituzten pertsonen alde aitortutako pentsioak, Estatuak klase pasiboen araubidearen bidez edo horretarako emandako legediaren babesean.

o) Giza Immunoeskasiaren Birusa duten pertsonen osasun sistema publikoan egindako jarduketan ondorioz jasotzen dituzten edozein motatako laguntzak. Laguntza horiek maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuan daude arautuak, horren bidez laguntzak ematen baitzaizkie Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIB) duten pertsonari.

Halaber, Hemofilia edo bestelako sortzetiko koagulopatiak dituzten eta C hepatitis garatu duten pertsonentzako gizarte laguntzak arautzen dituen ekainaren 5eko 14/2002 Legearen 2. artikuluan araututako laguntza ekonomikoak, osasun sistema publikoan koagulazio faktoreen kontzentratuen tratamenduak jasotzearen ondorioz, eta bestelako zerga-arau batzuk.

p) Foru Komunitateko administrazioak erabilera partikularreko motorrezko ibilgailuak erosi edo egokitzeko pertsona desgaituei ematen dizkien prestazio ekonomikoak.

q) Ehorzketagatik edo lurperatzeagatik jasotako prestazioak; izandako gastuen zenbateko osoa izanen da muga.

r) Foru lege honen 30.1.g) artikuluan aipatzen diren aurrezki sistematikorako banakako planen ondorio diren biziarteko errenta aseguratutako errenten direnean aditzera ematen diren errentak.

s) Epe luzeko aurrezki planak bideratzeko erabiltzen diren bizi-aseguru, gordailu eta finantza-kontratuetatik heldu diren kapital higigarriaren etekin positiboak, Estatuak araudian ezarritakoaren arabera, baldin eta zergadunak ez badu planetik heldu den kapitala ezertarako erabili hura ireki eta bost urteko epea amaitu baino lehen.

Aipatutako kapitalaren edozein erabilpenek edo aipatutako epea amaitu baino lehen Estatuak araudian ezarritako baldintzetatik edozein ez-betetzek beraiekin ekarriko dute aurreko lerrokadan aipatutako etekinak –planak indarra izan duen aldiaren sortutakoak– itzultzeko betebeharra, ez-betetze hori gertatzen den zergaldian.

t) Erakunde publikoek genero indarkeriaren biktimei eta Bortxazko delituen eta sexu askatasunaren kontrako delituen biktimei laguntzak eta sorospena emateari buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aipatzen diren bortxazko delituen biktimei emandako diru prestazioak.

u) Lan sozietateetan eta lan elkartuko kooperatibetan ordezkapen enpresariala sustatzeko laguntzetatik datozen prestazio ekonomiko publikoak.

v) Ibilgailu automobilak, ordenagailu eramangarriak, telebistak, etxetresna elektrikoak eta lurreko telebista digitala hartzeko deskodegailuak erosteko eta autoak eta ibilgailu astunak prest jartzeko diru-laguntza publikoak.

Halaber, baoak aldatuz etxebizitzaren isolamendu termikoa hobetzeko laguntza publikoak (leihokak, balkoiak ateak eta sabai-leihoak aldatzekoak), eta orobat, galdara, berogailu edo berokuntzarako sistema elektrikoak kendu eta horien ordez errendimendu handiko galdarak jartzeko laguntza publikoak.”

Bi. 11. artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“11. artikulua. Errentak eratxikitzea.

1. Sozietateen gaineko zergaren zergadunak ez diren sozietate zibilei dagozkien errentak eta jaraunspen jasogabeei, ondasun-erkidegoei eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 25. artikuluan aipatzen diren gainerako entitateei dagozkienak bazkide, jaraunse, erkide edo partaideei eratxikiko zaizkie, hurrenez hurren, foru lege honen III. tituluko II. kapituluaren 5. ataleko 1. azpiatalean ezarritakoarekin bat.

2. Errentak eratxikitzeko araubideko entitateek ez dute sozietateen gaineko zerga ordaindu behar.

3. Errentak eratxikitzeko araubidea ez zaie aplikatuko nortasun juridikoa eta merkataritza helburua dituzten sozietate zibilei, ez eta aurreko 1. idatz-zatian aipatu eta sozietateen gaineko zergaren zergadunak diren entitateei ere.”

Hiru. 14.1.f) artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“f) Enpresek pentsioengatik beren gain hartutako konpromisoei aurre egiteko, enpresaburuek ordaindutako ekarpen edo kontribuzioak, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hori garatzeko araudian ezarrita dagoen moduan, enpresaren aurreikuspen sozialeko planak barne direla.”

Lau. 14.2.a).5 artikulua, lehen lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

5. Enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak bideratzeko aseguru kolektiboko kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzeko araudian ezarrita dagoen bezala, enpresaren aurreikuspen sozialeko planak barne direla.”

Bost. 14.2 artikulua, h) letra gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“h) Obra literario, artistiko edo zientifikoak egitetik datozen etekinak, baldin eta haiek ustiatzeko eskubidearen lagapena egiten bada. Hala eta guztiz ere, etekin horiek enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzeagatik etekintzat sailkatuko dira, produkzio baliabideak eta giza baliabideak, edo bietatik bat, norberaren kontura antolatzea dakartenean, ondasun edo zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzea helburu.”

Sei. 15.1.f) artikulua, lehen lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“f) Pentsio planen sustatzaileek ordaindutako ekarpen edo kontribuzioak eta, enpresek pentsioengatik beren gain hartutako konpromisoei aurre egiteko, enpresaburuek ordaindutako kopuruak, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hori garatzeko araudian ezarrita dagoen moduan, enpresaren aurreikuspen sozialeko planak barne direla.”

Zazpi. 17.2.b) artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) 100eko 40, foru lege honen 14.2.a) artikuluko prestazioak kapital gisa jasotzen badira, betiere bi urte iragan badira lehen ekarpenetik. Pentsio planen eta aurreikuspen plan aseguratuen onuradunek jasotzen duten prestazioetan, prestazioa jaso aurreko urtebetean egindako ekarpenak kenduta ateratzen den zenbatekoari aplikatuko zaio murriztapena.”

Zortzi. 30.1.g) artikulua, azken lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak osorik edo hein batean aurreratuz gero, foru lege honen 7.r) artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz salbuetsita egon zen errenta aipatutako aurreratzea gertatzen den zergaldian sartu beharko du subjektu pasiboak.”

Bederatzi. 33.2 artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da ezen higiezin errentamendua enpresa jardueratzat joko dela baldin eta, jarduera antolatzeke, lan kontratua eta lanaldi osoa dituen langile bat, gutxienez, erabiltzen bada, betiere subjektu pasiboaren ezkontidea ez bada eta, lerro zuzenean edo albotik, berarekin hirugarren maila arteko odol edo ezkontza bidezko ahaidetasuna ez badu.”

Hamar. 35. artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“35. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren bitartez zehazteko arauak

Enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztean, Sozietateen gaineko Zergaren arauak aplikatuko dira, horrez gain, honako erregela berezi hauek kontuan hartuz:

1. Ez dira gastu kengarrizat joko enpresaburu edo profesional beraren gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak, foru lege honen 55.1 artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

Hala ere, gastu kengarrizat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako aseguru-kontratuengatik prima edo kotizazio gisa ordaindutako kopuruak, baldin eta Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharrak betetzeko, aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako gisa erabiltzen badira, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen egoerez arduratzea helburu duen zatian, urteko 4.500 euroko mugaz.

2. Subjektu pasiboaren ezkontidea edo adingabeko seme-alabak berarekin bizi direla, berak garatutako enpresa- edo lanbide-jardueretan etekin gabe lan egin ohi dutela behar bezala egiaztaturik dagoenean, beharrezko lan kontratuaz eta Gizarte Segurantzako dagokion araubiderako afiliazioaz, etekina zehazteko bakoitzarekin hitzartutako ordainsarietako kenkaria egiten da, betiere haien gaikuntza eta beraiek burututako lanari dagozkionak merkatukoak baino handiagoak ez direnean.

Kopuru horiek ezkontideak edo adingabeko seme-alabek lortuztat joko dira, lan etekin gisa.

3. Subjektu pasiboarekin bizi diren ezkontide edo adingabeko seme-alabek haien jardueran erabilitako ondasun edo eskubide lagapenak egiten dituztenean, jardueraren titularraren etekina zehazteko hitzartutako kontraprestazioko kenkaria egiten da, betiere merkatu-balioa gainditzen ez duenean eta, haren faltan, azken honen kenkaria egin ahal izanen da. Kontraprestazioa edo merkatu-balioa ezkontide edo adingabeko seme-alaben kapitalaren etekintzat joko da.

Arau honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko bi ezkontideek amankomunean dituzten ondasun eta eskubideei.

4. Sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritako zenbateko eta baldintzekin, subjektu pasiboak jatetxe, ostalaritza, bidaiaria eta joan-etorrien zerbitzuei lotutako harreman publikoen arloan garatutako enpresa jardueren gastuak kengarriak izanen dira, baina kontzeptu horien multzoaren gehieneko muga subjektu pasiboak zergaldian izandako diru-sarreraren bolumenaren 100eko 5 izanen da, jarduera bakoitzak zehaztua.

5. Subjektu pasiboak berarentzat, ezkontidearentzat eta gutxiengo familiarra dela-eta kenkarirako eskubidea ematen dioten ondorengoentzat egin duen gaixotasun-asegurua- ren primak gastu kengarrizat joko dira etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubidearen arabera zehazterakoan. Aipatutako pertsona horietako bakoitzeko gehieneko gastu kengarria 500 eurokoa izanen da.

6. Zuzeneko zenbatespen erraztua. Modalitate hau, subjektu pasiboak garatutako jardueretarako, aurreko urtean, negozio kopuruaren zenbateko garbia, subjektu pasiboak egindako guztietarako, erregelamendu bidez ezarriko den zenbatekotik gorakoa ez duten jarduerari aplikatuko zaie, aplikatzeari uko egin ezean. Halaber, zenbait gastu kengarri zenbatzeko erregela bereziak ezarri ahal izanen dira.”

Hamaika. 39.4.c) artikulua, lehen lerrokada. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“c) Enpresa baten inter vivos eskualdaketa doaneko bat egiten denean, edo eskualdaketa hori denean Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan araututako kenkaria aplikatzen zaien entitate- etako partaidetza guztiena edo haien zati batena. Baldintza hauek bete beharko dira.”



Hamabi. 39.5.b) artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Hirurogeita hamar urtetik goitikoek edo menpekotasun larriko egoeran nahiz menpekotasun handikoan dauden pertsonak ohiko etxebizitza lehenbizikoz eta kostu bidez eskualdatzen dutenean, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Foru Legean xedatzen denaren arabera. Salbuespen hori ez da inolaz ere aplikatuko ondare-gehikuntza 300.000 eurotik gorakoa denean. Kopuru horren gainetik dagoen zenbatekoa zergapean geratuko da.”

Hamahiru. 39.5.e) artikulua indargabetzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hamalau. 51 artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“51. artikulua. Errenten egozpena nazioarteko gardentasun fiskalari buruzko araubidean

1. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek lortutako errenta positiboak (2. edo 3. idatz-zatietan aipatzen direnak) egotziko dituzte subjektu pasiboek, inguruabar hauek betetzen direnean:

a) 100eko 50eko edo hortik gorako partaidetza izatea Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen kapital, funts bereki, emaitza edo boto-eskubideetan, bera bakarrik edo loturiko entitateekin (sozietateen gaineko zergaren foru legearen arabera) edo, lerro zuzenean edo albotik, lehen edo bigarren mailako odol edo ezkontza bidezko ahaidetasuna (ezkontidea barne) duten subjektu pasiboekin batera, entitatearen sozietate-ekitaldiaren itxiera egunean.

Egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa proportzionala izanen da entitatearen emaitzetan duten partaidetzarekin edo, bestela, kapitalean, funts berekietan edo boto-eskubideetan duten partaidetzarekin.

Egozpen hori derrigorrez eginen da, bai entitate ez egoiliarrean partaidetza zuzena dagoenean, bai zeharkako partaidetza dagoenean beste entitate ez egoiliar baten edo batzuen bidez. Azken kasu horretan, egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izanen da.

b) Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak sozietateen gaineko zergaren izaera berdinberdina edo antzekoa duen karga batengatik ordaindutakoa, 2. edo 3. idatz-zatietan ezarritako errenta klaseetako bati egozten ahal zaiona, aipa-

tu zergaren arauen arabera egokituko zitzaionaren 100eko 75etik beherakoa izatea.

2. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak lortutako errenta positibo osoa egotziko dute subjektu pasiboek, baldin eta entitateak horretarako behar den baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa ez badu, eragiketak errepikatzen badira ere. Haatik, dibidenduak, mozkinetako partaidetzak edo partaidetzak eskualdatzearen ondoriozko errentak badira, 5.a) idatz-zatian xedatutakoari jarraituko zaio edozein kasutan.

Idatz-zati hau ez da aplikatuko subjektu pasiboak egiaztatzen duenean eragiketa horiek Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batean dauden baliabide materialekin eta giza baliabideekin egiten direla, edo haren osaerak eta jarduerak arrazoi ekonomiko baliagarri erantzuten dietela. Entitate horrek talde berekoa izan behar du, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duten kontuan hartu gabe.

Artikulu honen ondorioetarako, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan azaltzen den sozietate-taldeak entitate taldeaniztunak eta elkartuak, merkataritzako legeetan agindu bezala, barne hartzen dituela ulertuko da.

Idatz-zati honen lehenbiziko lerrokadan xedatutakoa hurrengo idatz-zatian ezarritakoaren gainetik dago.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa aplikatzen ez bada, iturri hauetatik datorren errenta positiboa egotziko da soilik:

a) Hiri- zein landa-ondasun higiezinaren edota horiei dagozkien eskubide errealeen titulartasuna, salbu eta enpresa jarduera bati lotuta badaude edo horien erabilera egoiliar ez diren entitateei lagata badago. Entitate horiek titularraren sozietate-talde berekoa izan behar dute, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duten kontuan hartu gabe, eta jarduera ekonomiko bati lotuta egon behar dute.

b) Edozein entitate motaren funts berekietako partaidetzak eta kapital berekiak hirugarrenei lagatzea. 28. eta 29. artikuluetan aipatzen dira. Ez da sartuko ondorengo finantza-aktiboetatik eratortzen den errenta positiboa:

1.) Enpresa jardueretan aritzearen ondorioz sorrarazten diren legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko direnak.

2.) Jarduera ekonomikoak garatzean ezarritako kontratu-harremanen ondorioz sortzen diren kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

3.) Baloreen merkatu ofizialetan bitartekotza jardueretan aritzearen ondorioz sortu direnak.

4.) Kreditu eta aseguru entitateek beraien jardueretan aritzearen ondorioz dauzkatenak, g) letran ezarri dena ezertan galarazi gabe.

Norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzetik eratorzen den errenta positiboa g) letran aipatuko diren kreditu- eta finantza-jarduerak burutzetik datorrela ulertuko da, lagatzailea eta lagapen-hartzailea sozietate-talde batekoak direnean Merkataritza Kodearen 42. artikuluan arabera, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duten kontuan hartu gabe, eta lagapen-hartzailearen diru-sarrerak, 100eko 85ean, gutxienez, enpresa jardueretan aritzeagatik datozenean.

c) Kapitalizazio eta aseguru eragiketak, entitatea bera onuradun dutenak.

d) Jabetza industrial eta intelektuala, aholkularitza teknikoa, ondasun higiezinak, irudi-eskubideak eta negozio edo meategien errentamendu edo azpierrementamendua, 30.3 artikuluan ezarri bezala.

Hala ere, ez da egotziko 52. bis artikuluan xedatutakoaren arabera egotzi behar den irudi-eskubideen errenta.

e) Aurreko a), b), c) eta d) letretan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketa, betiere errentak sortzen baditu.

f) Finantza-tresna deribatuak, berariaz identifikatutako arrisku bat, jarduera ekonomikoak egitearen ondoriozkoa, estaltzeko izendatuak izan ezik.

g) Espainiako lurraldeko pertsona edo entitate egoiliarrekin zuzenean edo zeharka egindako kreditu jarduerak, finantza jarduerak, aseguru jarduerak eta zerbitzuak emateko jarduerak. Lotutako pertsonak edo entitateak izan behar dira, sozietateen gaineko zergaren foru legearen arabera, eta jarduerak zerga ondorioetarako kengarriak diren gastuak sortu behar dituzte pertsona egoiliar horientzat.

Errenta positiboa ez da sartuko, baldin eta, entitate ez-egoiliarrek halako jarduerak (kreditu jarduerak, finantza jarduerak, aseguru jarduerak eta zerbitzuak emateko jarduerak) egitearen ondoriozko diru-sarreretan, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legearen arabera ez lotutako pertsona edo entitateekin egindako eragiketek sarreren 100eko 50etik gora sortzen badute.

4. Errenta hauek ez dira egotziko:

a) 3. idatz-zatiko b) eta e) letretan aurreikusitakoak, entitateen kapitalean edo funts berekietan duten partaidetzaren ondoriozko baloreen kasuan, baldin eta entitate baten kapitalaren ehuneko 5 edo gehiago ematen badute eta gutxienez urtebetez badute, partaidetza zuzendu eta kudeatzeko, betiere behar den baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa bada eta partaidetzako entitatea ondare entitatea ez bada Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Entitateak, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, sozietate-talde berekoak badira, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duten kontuan hartu gabe, talde horretako entitate guztiak kontuan hartuko dira aurreko lerrokadan eskatutako betebeharrak zehazteko.

b) 3. idatz-zatian aurreikusitako errentak, haien zenbatekoen batuketa entitate ez-egoiliarrek lortutako errenta osoaren 100eko 15etik beherakoa bada, salbu eta g) letran aipatzen diren errentak, oso-osorik egotziko baitira.

5. Egotzi beharreko errentaren zenbatekoa kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean eta zerga horren gaineko gainerako xedapenetan zerga-oinarria zehazteko ezartzen diren printzipio eta irizpideak erabiliko dira. Errenta osoztat hartuko da printzipio eta irizpide horiek aplikatuz ateratzen den zerga-oinarriaren zenbatekoa.

Sozietateen gaineko zergaren izaera berdindina edo antzekoa duten zergak ez dira egotziko subjektu pasiboaren zerga-oinarrian; hau da, zerga horietan sozietate ez-egoiliarrek sartu beharreko errenta zatiagatik benetan ordaindutakoa.

Egotzi beharreko errentaren zenbatekoa zehazteko, Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen sozietate-ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen kanbio-tasa erabiliko da.

Artikulu honetan aipatzen diren errenta positiboak zerga-oinarriaren zati orokorrean egotziko dira, 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Entitate ez-egoiliarren errenta osotik gorako zenbateko bat ez da inolaz ere egotziko.

Errenta positibo bakoitza behin baino ezin da egotzi, egozpenaren mota eta xedeko entitatea edozein izanik ere.

6. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitateak bere sozietate-ekitaldia bukatu duen eguna sartuta dagoen zergaldian eginen da egozpena. Ondorio hauetarako, zergaldia ez da 12 hilabetetik gorakoa izanen.

7. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ez dira zerga-oinarrian sartuko, egotzitako errenta positiboari dagokion zatian. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Erreserben banaketa kasuetan, akordio sozialean jasotako izendapena hartuko da kontuan, eta, hala ez bada, ulertuko da erreserba horretara ordaindutako azkeneko kopuruak aplikatu direla.

8. Atzerrian egiazki ordaindutako zerga edo karga kengarria izanen da kuota likidoan, dibidendu edo mozkinetako partaidetzaren banaketaren ondorioz, dela zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten arabera, dela kasuan kasuko herrialde edo lurraldearen barne-legediaren arabera; hain zuzen, zerga-oinarrian lehenago egotzitako errenta positiboari dagokion zatian.

Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak jasotzen diren zergaldian eginen da kenkari hori, egozpenaren zergaldia eta zergari dagokion zergaldia ezberdinak izanik ere.

Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan ordaindutako zergak ez dira inola ere kenkari gisa hartuko.

Kenkari hori ezin da izan zerga-oinarrian egotzitako errenta positiboagatik Espainian ordaindu beharko lukeen kuota osoa baino handiagoa.

9. Zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza eskualdatzetik eratorriko errenta kalkulatzeko, eskurapen balioari egiazki banatu ez diren onura sozialen zenbatekoa gehituko zaio. Onura sozial horiek bazkideei haien akzioen edo partaidetzen errenta gisa, eskurapenetik eskualdaketara doan aldian, egotziko zizkioketen errentei dagozkie.

Partaidetza onura sozialak lortu ondoren eskuratzen duten bazkideen kasuan, eskurapen balioari dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoa kenduko zaio. Dibidendu edo partaidetza horiek lehenago egotzitako errentei dagozkie.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legearen arabera ondare entitateak diren entitateen kasuan, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legean aurreikusitako moduan, zenbatu beharreko eskualdaketa balioa, gutxienez, eskualdatutako balioei dagokien ondare garbiaren balioa, itxikako azken balantzean duena, izanen da, behin aktiboen kontabilitate balioa ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako izanen luketen balioaz edo merkatuan izanen luketen balioaz, hori txikiagoa izanez gero, ordeztu ondoren.

10. Partaidetzako entitateak bere egoitza paradisu fiskal gisa kalifikatutako lurralde edo herrialde batean edo tributazio gabeko lurralde edo herrialde batean duenean, honako hau ulertuko da:

a) 1.b) idatz-zatian aurreikusitako inguruabarra betetzen dela.

b) Partaidetzako entitatearen errentek 3. idatz-zatik ezaugarriak dituztela.

c) Partaidetzako entitateak eskuratutako errenta partaidetzaren erosketa-balioaren 100eko 15 dela.

Aurreko letretan bildutako presuntzioek kontra-ko proba onartuko dute.

11. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatu Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatea Europar Batasuneko beste estatu baten egoiliarra denean, betiere subjektu pasiboak frogatzen badu haren osaerak eta jarduerak arrazoi ekonomiko baliagarriei erantzuten dietela eta jarduera ekonomikoak gauzatzen dituela, edo inbertsio kolektiboko funtsa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauan arautua, 52.4 artikuluan aurreikusita ez dagoena eta Europar Batasuneko estatu batean eratua eta helbideratua. Zuzentzara horren bidez, balore higigarrietako inbertsio kolektiborako erakunde batzuentzako lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatzen dira.

12. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatu behar zaie subjektu pasiboek Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen datu hauek aurkeztu beharko dituzte, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitopenearekin batera:

a) Izena edo sozietatearen izena eta egoitza sozialaren helbidea.

b) Administrazioaren zerrenda eta haien egoitza fiskalaren helbidea.

c) Balantzea, irabazien eta galeren kontua eta memoria.

d) Egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

e) Egotzi beharreko errenta positiboarengatik ordaindutako zergen justifikazioa."

Hamabost. 52.1 artikuluan c) letra, lehen lerrokada eta d) letra. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"c) Sozietateen gaineko zergan karga-tasa orokorrak ordaintzen ez dituzten kapital aldakorreko inbertsio sozietateen kapitala murrizten denean

ekarpenak itzultzeko, itzulketaren zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko balio normala. Kapital higigarriaren etekin gisa kalifikatuko da, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta zenbateko hauetako handiena izanen du muga:

“d) Sozietateen gaineko zergan karga-tasa orokorrak ordaintzen ez dituzten kapital aldakorreko inbertsio sozietateen akzioen jaulkipen-primaren banaketaren kasuan, eskuratutako zenbateko osoa, akzioen eskurapen balioaren gutxitzea (28.d) artikuluan ezarria) aplikatu gabe.”

Hamasei. 54.1.a) artikulua, azken lerrokada. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Lotura bazkideen edo partaideen eta entitatearen arteko harremanean oinarritzen bada, kontuan hartu beharreko partaidetza-portzentajea 100eko 25 izanen da.”

Hamazazpi. 55.1.2.a).c') artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“c') Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratueta ordaindutako kopuruak, lan etekin gisa egotzi zaizkien sustatzailearen ekarpenak barne, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera egin badira, aipatu bazkide langileentzako langabezia-prestazioa sartuz.”

Hemezortzi. 55.1.4 artikulua, azken lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Mendekotasuneko aseguru kolektiboak direnean, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraikiz eratuak, aseguruaren hartzaile gisa enpresa besterik ez da agertuko, eta aseguratu eta onuradun izaera langileari egokitu zaio. Enpresak aseguru kontratu horiengatik ordaintzen dituen primek murrizketako muga berekia eta independentea izanen dute, urtean 5.000 eurokoa”

Hemeretzi. 55.1.5 artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“5. Enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratueta langileek egindako ekarpenak eta hartzailearen kontribuzioak, Pentsio plan eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzeko

araudian ezarri bezala, enpresetako gizarte aurreikuspeneko planak barne.”

Hogei. 55.1.7.a) artikulua. b') letra aldatzen da. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b') 3.500 euro urtean.

Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 6.000 eurokoa izanen da urtean”

Hogeita bat. 62.1.a) artikulua, lehen lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza dena edo izanen dena eskuratzeagatik kasuko zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 15, etxebizitza babestutzat kalifikatu bada eta eskuratzeko den unean salmenta-prezioaren muga bat ezarria badu. Halaber, kenkari horretarako eskubidea emanen du 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten eta Nafarroako Lurralde Estrategiako 10. eremuko 10.4 azpieroaren barruan ez dauden udalerrietan dauden etxebizitzak eskuratzeko, baldin eta udalerririk horietan etxebizitza babesturik ez badago.

Kenkari honen gehieneko oinarria 7.000 eurokoa izanen da urtean”

Hogeita bi. 62.1.h) artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“h) Subjektu pasiboak kenkari hau aplikatzeko eskubidea izanen du zergaldiko oinarrien batura, 53. eta 54. artikuluek ezarritakoaren arabera kalkulatu eta, kasua bada, 55.2 artikuluek aipatzen dituen pentsio konpentsatzaileek gutxitua, ondoko zenbateko hauek baino txikiagoa baldin badauka:

a) 24.000 euro, oro har.

b) 27.000 euro, kenkaria edukitzeko eskubidea ematen dien ondorengo bat edo bi dituzten subjektu pasiboentzat.

c) 30.000 euro, kenkaria edukitzeko eskubidea ematen dieten hiru ondorengo edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat, edo g) letran aipatzen diren familia ugarietzat.

Zenbateko horiei 3.000 euro gehituko zaizkie 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasuna duen subjektu pasibo bakoitzeko, edo 7.000 euro, desgaitasuna 100eko 65ekoa edo handiagoa denean. Lerrokada honetan adierazitako zenbatekoak 1.500 euro edo 3.500 euro izanen dira, hurrenez hurren, ezgaitasuna izan eta kenkaria edukitzeko eskubidea ematen duen ondorengo ahaide bakoitzagatik”

Hogeita hiru. 62.3 artikulua, lehen lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Zerga honen subjektu pasiboei, enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzen badira, sozietateen gaineko zergari buruzko arauetan enpresa inbertsiorako eta enplegu sorkuntzarako ezarriak edo ezartzeko dauden bultzagarri eta pizgarriak aplikatu ahalko zaizkie kuotan egin beharreko kenkari edo itzulketa gisa, kenkariaren portzentajeak, baldintzak eta mugak berdinak direlarik.”

Hogeita lau. 62.9.b) artikulua, azkeneko lerrokada. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin edo ondorengoarekin, gutxieneko familiarrengatik kenkaria gradurik hurbilenekei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz (IPREM) goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoari aplikatuko baitzaie.”

Hogeita bost. 62.11 artikulua indargabetzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hogeita sei. 62. artikulua. 12. idatz-zatia aldatzea eta 13. eta 14. idatz-zatiak gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“12. Energia berriztagarrien instalazioetan eginitako inbertsioengatik kenkariak.

1. Iturri berriztagarrietatik datorren energia berokuntzarako eta elektrizitatea sortzeko erabiltzen duten instalazioetan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute inbertsio horien zenbatekoen 100eko 15eko kenkaria egiteko, honako muga hauekin:

a) Kengarri izanen dira energia elektrikoaren autokontsumorako sortzeko instalazioetako inbertsioak bakarrik, sistemak energia-metaketa baliatzen ahalko duela. Instalazioek ez dute kenkaria izateko eskubiderik emanen, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren arabera derrigorrezko izaera badute, salbu eta haien potentzia nominala eskatzen den gutxienekoa baino handiagoa bada. Halakoetan, instalazioaren kostuaren kenkaria egon daiteke, eskatzen den gutxieneko horretatik gora instalatutako potentziaren proportzioan.

b) Eraikingintzaren Kode Teknikoari jarraikiz proiektu batean aginduzkoa bada energia berriztagarrien instalazio bat egitea etxeko ur beroa sortzeko, kengarri izanen da berokuntzaren eta/edo hoztearen lagungarri gisa diseinatutako instala-

zioetan egindako inbertsioa bakarrik. Kasu honean instalazioaren kostuaren ehuneko 70eko kenkaria baino ez da aplikatuko, ulertzen baita gainerrako ehuneko 30 dela aipatu araua betetzeko behar den inbertsioa.

c) Bero-ponpak erabiltzen dituzten instalazioei dagokienez, inbertsio kengarritzat joko da emandako energia berriztagarriaren eta ponpak emandako energia termiko erabilgarriaren arteko erlazioari dagokion inbertsio-ehunekoak bakarrik, Europako Batzordeak 2013ko martxoaren 1ean emandako Erabakiari jarraituz, zeinak gidalerroak ezartzen baititu Estatu kideek hainbat teknologia-tako bero ponpetatik datorren energia berriztagarria kalkulatzeko. Baldin eta ponpari eragiteko lehen mailako energia osorik iturri berriztagarrietatik badator, kengarritzat joko da inbertsioaren zenbateko osoa.

2. Iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da iturri ez-fosiletatik datorren energia; hau da, energia eolikoa, eguzki energia, aerotermikoa, geotermikoa, hidrotermikoa, ozeanikoa, hidraulikoa, biomasa, zabortegietako gasak, araztegieta-ko gasak eta biogasa, Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2009ko apirilaren 23ko 2009/28/EB Zuzentarauari jarraituz.

3. Halaber, kengarriak izanen dira mikrosareetan egindako inbertsioak. Mikrosareetatik jotzen da halako multzo bat, kargak, generazio banaturako elementuak, biltegitratzeko elementuak eta kontrol eta kudeaketarako elementu eta sistemak dituen, eta horiek lotuta daude sare elektrikoarekin lotura puntu beraren bidez, eta energia kudeatzeko estrategia batekin elkartuta daude. Mikrosare horiek elikatuko dira, funtsean, generazio berriztagarriko iturrien bidez, baina baztertu gabe energia fosilen erabilera, euskarri gisa egoera jakin batzuetan, edo errentagarritasun ekonomikoko arrazoiengatik. Edonola ere, justifikatu egin beharko dira. Generazio ez berriztagarriko elementuei ez zaie kenkaririk aplikatuko.

4. Energiaren arloko organo eskudunak egindako inbertsioei buruzko egiaztapen-txosten bat emanen du, baina bertan ez dira sartuko energiaren produktiorako helburuak betetzeko beharrezkoak ez diren elementuen inbertsioa, ezta funtzionamenduan hasteko datarena ere. Halaber, egiaztatuko du instalazioak zerbitzuan jarri direla aplikatzeko den erregelamendu teknikoaren arabera.

Kenkariaren oinarria txosten horretan frogatutako inbertsioen zenbatekoak determinatuko du.

Baldin eta aipatutako instalazioak enpresa- edo lanbide-jarduerari atxikita badaude, kenkaria apli-

katuko da sozietateen gaineko zergari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz eta artikuluko honetako 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat”.

### 13. Ibilgailu elektrikoengatikoko kenkaria.

1. Ibilgailu elektriko berrietan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute inbertsioen zenbatekoaren 100eko 15eko kenkaria egiteko, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2007ko apirilaren 5eko 2007/46/EE Zuzentarauan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 Erregelamenduan (EB) zehaztutako kategoria hauetako baten batekoak badira:

a) M1 turismoak: Gehienbat pertsonak eta haien ekipajea garraiatzeko asmatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, gidariaren eserlekuaz gain beste zortzi eserleku, gehienez, dituztenak.

b) N1 furgonetak edo kamioi arinak: Gehieneko masa 3,5 tonatik gorakoa ez duten salgaiak garraiatzeko xede nagusiarekin asmatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak.

c) L1e ziklomotorrak: Bi gurpileko ibilgailuak, fabrikazioz orduko 45 kilometroko gehieneko abiadura hartzen dutenak eta 4 kW-tik gorakoa ez den potentzia jarraitu nominala dutenak.

d) L2e trizikloak: Hiru gurpileko ibilgailuak, fabrikazioz orduko 45 kilometroko gehieneko abiadura hartzen dutenak eta 4 kW-tik gorakoa ez den potentzia jarraitu nominala dutenak.

e) L6e kuadriziklo arinak: Kuadriziklo arinak, hutsean 350 kilogramoko edo hortik beherako masa dutenak (baterien masa kontuan hartu gabe), fabrikazioz orduko 45 kilometroko edo hortik beherako abiadura hartzen dutenak eta 4 kW-ko edo hortik beherako gehieneko potentzia dutenak.

f) L7e kuadriziklo astunak: Kuadrizikloak, hutsean 400 kilogramoko edo hortik beherako masa dutenak (550 kg-koa, salgai-garraiorako diren ibilgailuen kasuan), baterien masa kontuan hartu gabe, eta 15 kW-koa edo hortik beherakoa den gehieneko potentzia dutenak.

g) L3e motozikletak: bi gurpileko eta sidekarrik gabeko ibilgailuak, 50 cm<sup>3</sup> baino gehiagoko motorra dutenak eta/edo fabrikazioz orduko 45 kilometro baino gehiagoko gehieneko abiadura har dezaketanak.

h) L5e kategoria: hiru gurpil simetrikoko ibilgailuak, 50 cm<sup>3</sup> baino gehiagoko motorra dutenak eta/edo fabrikazioz orduko 45 kilometro baino gehiagoko gehieneko abiadura har dezaketanak.

i) Motor elektrikodun bizikletak.

2. Kenkaria aplikatzeko, 1. zenbakian aipatutako ibilgailuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) M eta N kategorietako ibilgailuak: ibilgailu elektriko huts-hutsak izatea (BEV, Battery Electric Vehicle).

b) L kategoriako ibilgailuak eta bizikleta elektrikoak: motor elektrikoek bakarrik higiarazitakoak izan eta ibilgailu elektriko gisa homologatuta egotea. Horiez gain:

a) Motozikleta elektrikoek (L3e eta L5e kategorietan) litiozko bateriak izan behar dituzte, 3 kWh-ko edo hortik gorako potentzia eta modu elektrikoan 70 km-ko gutxieneko autonomia dituztenak.

b) Motor elektrikodun bizikletek litiozko bateriak izan eta aplikatu beharreko arau harmonizatuen aginduak bete behar dituzte; bereziki, UNE-EN 15194:2009 araua.

3. Kenkariaren oinarria ezin izanen da honako hauek baino handiagoa izan:

a) M1 eta N1 kategorietako ibilgailuei dagokienez: 32.000 euro.

b) L1e eta L2e kategorietako ibilgailuei dagokienez: 5.000 euro.

c) L3e eta L5e kategorietako ibilgailuei dagokienez: 10.000 euro.

d) L6e eta L7e kategorietako ibilgailuei dagokienez: 15.000 euro

e) Motor elektrikodun bizikletei dagokienez: 1.500 euro.

Baldin eta aipatutako inbertsioak enpresa- edo lanbide-jardueri atxikita badaude, kenkaria aplikatuko da sozietateen gaineko zergari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz eta artikuluko honetako 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat”.

14. Errekarga sistemetan egindako inbertsioengatikoko kenkaria.

1. Kengarri izanen da potentzia arrunteko edo handiko errekarga sistema bat abiarazteko behar diren obra zibilean, instalazioetan, kableetan eta lotura puntuetan egindako inbertsioaren zenbatekoaren 100eko 15, Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2014ko urriaren 22ko 2014/94/EB Zuzentarauan ezarritako definizioari jarraikiz.

Instalazioek ITC→ BT-52 Jarraibide Tekniko Osagarria onesten duen abenduaren 12ko

1053/2014 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute.

2. Kenkariaren oinarriak ezin izanen ditu gainditu honako muga hauek:

a) Potentzia arrunteko erreforma puntuetarako: 5.000 euro.

b) Potentzia handiko erreforma puntuetarako: 25.000.euro.

3. Energiaren arloko organo eskudunak txosten bat prestatuko du, egin diren inbertsioen zenbatekoa frogatzen duena. Kenkariaren oinarria txosten horretan frogatutako inbertsioen zenbatekoak determinatuko du.

4. Baldin eta aipatutako inbertsioak enpresa-edo lanbide-jarduerei atxikita badaude, kenkaria aplikatuko da sozietateen gaineko zergari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz eta artikulua honetako 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat:

Hogeita zazpi. 64. artikulua. 1. artikulua aldatzen da. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1. 62. artikuluko 4, 6., 8, 12., 13. eta 14. idatz-zatietako murrizketen oinarrien batura ezin izanen da subjektu pasiboaren likidazio-oinarriaren % 25etik gorakoa izan.”

Hogeita zortzi. 66.f) artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“f) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan ordaindutako kuotak. Kuotak errentak eratzkitzeko araubidean dauden entitateek ordaintzen dituztenean, bazkide, erkide edo partaideek entitatearen errentatik egozten zaien proportzioaren arabera aplikatuko dituzte kenkariak, 49.2 artikuluan xedatutakoarekin bat. Kenkari hori errentak eratzkitzeko araubidean dagoen entitatearen zergaldiko negozio zifra garbia 1.000.000 euro baino gutxiago izan denean soilik aplikatu ahal izanen da.

Udal kuoten kasuan, kenkariaren gehieneko zenbatekoa jarduera ekonomikoen gaineko zergaren gutxieneko kuota izanen da.

Kenkari hau bateraezina izanen da zenbateko bera enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia zehazteko gastu kengarritzat hartzearekin.”

Hogeita bederatz. 75.1 artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Lehena. 62.1.h) artikuluan aipatzen den oinarrien baturaren zenbatekoa honakoak baino txikiagoa izanen da familia unitate osoarentzat:

a’) 48.000 euro, oro har.

b’) 54.000 euro, seme edo alaba bat edo bi ondorengo dituzten familia unitateak direnean, horiek kenkaria egiteko eskubidea ematen badute.

c’) 60.000 euro, kenkaria edukitzeko eskubidea ematen dieten hiru ondorengo edo gehiago dituzten familia unitateentzat, edo abenduaren 31n familia ugarizat jotzen diren familia unitateentzat, Familia Ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Zenbateko horiei 3.000 euro gehituko zaizkie 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasuna duen subjektu pasibo edo ondorengo bakoitzeko, kenkaria egiteko eskubidea ematen badu, edo 7.000 euro desgaitasuna 100eko 65ekoa edo handiago denean.”

Hogeita hamar. 78. artikuluari 10. idatz-zatia gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“10. Errenta bat osorik edo partez ordaindu ez bada errenta hori jasotzeko eskubidea edo errentaren zenbatekoa ebazpen judizial batek zehaztu behar duelako, zenbateko ordaindugabeak ebazpen judizial hori irmo bihurtu den zergaldiari egotziko zaizkio.”

Hogeita hamaika. 80.3.d) artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“d) Ondasun higiezinaren errentamenduaren ondoriozko etekinak.”

Hogeita hamabi. 84. artikuluari 8. idatz-zatia gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“8. Subjektu pasiboak autolikidazioaren proposamen positiboa berretsi ez badu, ez eta PFEZaren beste aitorpen bat aurkeztu ere, eta proposamen horren ondoriozko kuotaren zenbateko osoa kuota ordaintzeko erregelamenduz ezarritako epeaz kanpo ordaintzen badu, proposamena zerga horren autolikidazioa izanen da. Ulertuko da, ondorio guztietarako, autolikidazio hori ordainketa-egunean aurkeztu dela.”

Hogeita hamahiru. 87. artikulua. Tituluaren aldaketa. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“87. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako diru-sarrerak egitera behartuta dagoenaren betebeharrak formalak eta bestelako informazio betebeharrak batzuk.”

Hogeita hamalau. 87.2. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Erregelamendu bidez, informazioa emateko betebeharrak ezarri ahal izanen zaie ondoko eragi-

ketak egiten dituzten edo ondoko egoeretan dauden pertsona eta entitateei:

a) Atxikipenik gabeko lan edo kapital errentak ordaintzen dituzten pertsona edo entitateentzat. Ogasun arloko eskumenak dituen departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio eman beharreko informazioa eta informazioa emateko betebeharrori betetzeko modua eta epeak zehazteko.”

b) Jaulkipen-prima banatzen duten edo ekarpenak itzuliz kapitala murrizten duten entitateentzat, egin diren banaketa atxikipengabeei dagokienez.

c) Sariak ordaintzen dituzten entitate eta pertsona juridikoei, zergaren eraginetarako zerga salbuetsizat hartuak izanda ere.

d) Zerga honetan kenkaria izateko eskubidea ematen duten dohaintzak jasotzen dituzten entitateei, dohaintza emailearen identitateari eta jasotako zenbatekoei dagokienez, zerga honen aitorpenaren eraginetarako dohaintzaren ziurtagiria eskatu dutenean.

e) Kreditu entitateentzat, bertako etxebizitza-kontuetan ezarritako diru kopuruei dagokienean. Horretarako, subjektu pasiboek kreditu entitatearen aurrean helburu horretarako kontua zein den adierazi beharko dute.”

Hogeita hamabost. Laugarren xedapen gehigarria, 7.c) zenbakia. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“c) Aseguru entitateek eta finantza entitateek bizitza-aseguru baten hartzaile diren pertsonen gaineko informazioa eman beharko dute, erreskate-balioa adieraziz, eta orobat, kapital bat eskudirutan edo ondasun higigarrien edo higiezinaren bidez aurkezteagatik aldi bateko edo bizi arteko errenta baten onuradun diren pertsonen buruzkoa, kapitalizazio-balioa adieraziz. Halaber aurkeztu beharko dute informazio hori Europako esparru ekonomikoko kide den beste estatu batean helbideratutako aseguru-entitateek, Espainian zerbitzuate libreako araubidean baldin badihardute, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez”

Hogeita hamasei. Zortzigarren xedapen gehigarria. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Zerga-oinarrian sartzen ez diren laguntzak

1. Ez dira zerga honen zerga-oinarrian sartuko ondoko hauen ondorioz agerian gelditzen diren errenta positiboak:

a) Nekazaritzako Politika Bateratuko laguntza hauek jasotzea:

a') Mahastilana erabat uzteagatik.

b') Primak udareondoak, sagarrondoak, mertxikondoak, brinoioondoak eta platanondoak erazteagatik.

c') Esne-ekoizpena erabat uzteagatik.

d') Udareondo, mertxikondo eta brinoioendoen laborantza erabat uzteagatik.

e') Azukre-erremolatxaren eta azukre-kanaberraren laborantza erabat uzteagatik.

f') Erregelamendu bidez zehaztuko direnak.

b) Errepide bidezko garraio-jarduera uzteko laguntzen araudian ezarritako

beharkizunak betetzen dituzten garraiolariei ematen zaizkien laguntzak jasotzea.

c) Diru-laguntza publikoak jasotzea, betiere laguntza horiek sute, uholde, hondoratze edo osasungintzako aferen bidez jarduera ekonomikoei atxikitako ondare-elementuetan eragindako kalteak konpontzeko jasotakoak badira.

d) Europar Batasuneko arrantza-politikako ondorengo laguntzak jasotzea: itsasontzi baten arrantza-jarduera behin betiko uzteagatik eta beste herrialde batzuetan sozietate mistoak eratzeko eskualdatzeagatik, bai eta arrantza-jarduera behin betiko uzteagatik ere.

e) Abereak nahitaez hiltzeagatik kalte-ordain publikoak jasotzea abereen izurri edo gaitzen kontrako jarduketetan. Xedapen hau ugalketarako diren abereei baino ez dagokie.

2. Zerga-oinarrian sartuko ez den errenta kalkulatzeko, bi kopuru hartu behar dira kontuan: batetik, jasotako laguntzen zenbatekoa, eta bestetik, jarduerari lotutako ondare-elementuetan izandako galerak, baldin badaude. Diru-laguntza hori aipatu elementuetan gertatutako galeren zenbatekoa baino txikiago bada, diferentzia negatiboa zerga-oinarrian integratu ahal izanen da. Galerarik izan ez denean, diru-laguntzen zenbatekoa bakarrik salbuetsiko da zergatik.

3. Orobat, ez dira zerga-oinarrian integratuko kapitaleko diru-laguntzak, ondokoak egiteagatik jasoak: oihan-finkak ustiatzen direnean oihangintza arloko administrazio eskudunak onetsitako plan teknikoei, mendien antolaketari, plan dasokratikoei edo basoberritze planei jarraikiz; betiere produkzioaren batez besteko denbora hogeita hamar urtekoa edo gehiagokoa bada.



4. Aurreko 1. idatz-zatian aurreikusita ez dauden laguntza publikoak, sute, uholde, hondoratze edo beste arrazoi natural batek ondare-elementuetan eragindako kalteak konpontzeko jasotakoak badira, zerga-oinarrian sartuko dira kalteak konpontzeko kostuaren gainetik dagoen partean. Konponketa kostuak, laguntza horren zenbatekoraino, ez dira inola ere zerga ondorioetarako kengarriak izanen, eta ez dira hobekuntzat hartuko.

Ez dira zerga honen zerga-oinarrian sartuko honako hau konpentsatzeko jasotzen diren laguntza publikoak: aipatu arrazoiengatik zergadunaren ohiko etxebizitza edo jarduera ekonomikoaren titularrak jarduera egiten zuen lokala aldi baterako edo behin betiko uztea.”

Hogeita hamazazpi. Hamabigarren xedapen gehigarria. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Estatuako araudia aplikatzea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak dagokienez, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean ezarritakoa aplikatuko da, indarrean dagoen bitartean, lurralde erkidean indarra duen araudia Nafarroan aplikatu beharraz, erregulazio berekirik ezean, gai hauetan:

a) Meatzaritzaren tributu araubide bereziak eta hidrokarburoak ikertu eta ustiatzekoak.

b) Birmoldaketaren eta berrindustrializazioaren onura fiskalak.

c) Espainiako lurraldeko egoiliarak ez diren gaineko xedapenak, eta Espainia nazioarteko zer erakunderen parte den, horien tributu araubidea.

d) Sistema Elektriko Nazionala antolatzeko 40/1994 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria eta 52. artikulua.

e) Kreditu Entitateen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legean ezarritako lehentasuneko partaidetzei eta zor baliabideei aplikatzen zaien araubide fiskala.”

Hogeita hemezortzi. Hamazazpigarren eta hemezortzigarren xedapen gehigarriak. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Honako hauen betebeharrak fiskalak: Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-entitateak, zerbitzu-emate libreko araubidean diharduten inbertsio kolektiboko erakundeak

kudeaketarako entitateek izendatutako ordezkariak eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako inbertsio kolektiboko erakundeetako partaideen edo akziodunen erregistro zentralizatuaren ardura duen entitateko ordezkariak, azkeneko kasu horretan erakundeak merkaturatzaile baten baino gehiagoren bidez merkaturatzen baldin badira Espainian.

1. Europako Esparru Ekonomikoko kide den beste estatu batean helbideratuta egon eta Espainian zerbitzu-emate libreko araubidean diharduten aseguru entitateek honako zerga betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Atxikipena egin eta diru hori sartu edo konturako dirusarrera egin Nafarroako Ogasunean, Espainian egiten diren eragiketak direla eta, egoitzagabeen errentaren gaineko zergari buruzko arauak ezarritako moduan edo pertsona fisikoen errentaren gaineko edo sozietateen gaineko Nafarroako arauetan ezarritako moduan, eta hori, betiere, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako esparruan.

b) Foru Komunitateko tributu-administrazioari informazioa eman Espainian egiten diren eragiketak direla eta, egoitzagabeen errentaren gaineko zergari buruzko arauak ezarritakoarekin bat edo pertsona fisikoen errentaren gaineko edo sozietateen gaineko Nafarroako arauetan ezarritakoarekin bat, eta hori, betiere, aurreko letran ezarritako muga berekin.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako zerga betebeharrak honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 55.7 artikulua araberak, zerbitzu-emate librearen araubidean jarduten duen kudeatzailearen izenean izendatutako ordezkaria.

b) Europar Batasuneko beste estatukide batean baimendutako inbertsio kolektiboko erakundeetako partaideen edo akziodunen erregistro zentralizatuaz arduratzeko izendatutako entitatea, erakundeak merkaturatzaile baten baino gehiagoren bidez merkaturatzen baldin badira Espainian, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatu zuen urriaren 4ko 31/2011 Legearen azken xedapenetan bigarren xedatutakoarekin bat.”

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu batean duten pentsio funtsen zerga arloko betebeharrak.

Helbidea Europar Batasuneko kide den beste estatu batean duten pentsio funtsak, Espainian

enpleguko pentsio planak, Espainiako legediari loturikoak, gauzatzen badituzte, Europako Parlamentuak eta Kontseilu Europarrak enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan xedaturikoarekin bat edo, hala denean, haien entitate kudeatzaileek, atxikipena egin eta haren zenbatekoa pagatu beharko dute edo konturako diru-sarrerak egin, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez. Gainera, irailaren 30eko 1307/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsiriko Pentsio plan eta funtsei buruzko Erregelamenduan pentsio funtsak kudeatzen dituzten entitateendako aipatzen diren tributu arloko informazioko betebeharrak izan behar izanen dituzte, hori dena Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoak zedarrituriko esparruan.”

Hogeita hemeretzi. Hogeita bigarren xedapen gehigarria. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Zenbait bizi-aseguru aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtzearen zerga-ondorioak.

Bizi-aseguruko kontratuak estatuko araudiari jarraikiz aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtuz gero, foru lege honen 7.r) eta 30.1.g) artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Behin aurrezki sistematikoko banakako plan bihurtuta, foru lege honen 7.r) artikuluan ezarritakoa aplikatzeagatik salbuetsita egon den errenta itzuli beharko du subjektu pasiboak aurrerakina gertatzen den zergaldian, baldin eta eratu den biziarteko errentatik heldu diren eskubide ekonomikoak, osorik edo hein batean, jaso baditu alde zurretik.”

Berrogei. Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. Ekin-tzailtzari laguntzeko neurriak.

Sozietateen gaineko zergaren foru arauan ezarritakoaren arabera ekintzaile izateko bete behar diren baldintzak betetzen dituzten zerga honen subjektu pasiboak, edo entitate ekintzaile izateko bete behar diren baldintzak betetzen dituen errentak eratxikitze araubideko entitate bateko bazkideei, arau horretan ekintzailtzari laguntzeko ezarritako neurriak aplikatuko zaizkie.”

Berrogeita bat. Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Aseguruen ondoriozko etekinak, onuraduna hartzekodun hipotekarioa denean.

Aseguru batek estalitako ezintasunagatik prestazioaren ondoriozko errentek, prestazio hori zergadunaren hartzekodun hipotekarioak jasotzen duenean haren onuradun gisa eta zergadunaren hipotekaren kuota osorik edo partez amortizatzeko beharra badu, onuraduna zergaduna izanez gero zegokion tratamendu fiskal bera izanen dute. Hala ere, errenta horiei ez zaie inola ere atxikipenik aplikatuko.

Ondorio horietarako, hartzekodun hipotekarioak kreditu-erakunde bat izan behar du, edo maileru edo kreditu hipotekarioak lanbide jarduera gisa ematen dituen beste entitate bat.”

Berrogeita bi. Berrogeita hamargarren xedapen gehigarria gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita hamargarren xedapen gehigarria. Atxikipen betebeharra, landalurreko higiezin errentamenduek ekarritako etekinetan.

Atxikipena edo konturako diru-sarrera egin beharko da landalurreko higiezin errentamendutik edo azpierrementamendutik heldu diren etekinengatik.

Atxikipenaren edo konturako diru-sarreraren ehuneko hirilurreko higiezin errentamendu edo azpierrementamenduetan aplikatzen den ehuneko bera izan da.”

Berrogeita hiru. Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Atxikipena edo konturako diru-sarrera harpidetza eskubideen eskualdaketaren ondoriozko ondare gehikuntzetan.

Harpidetza eskubideen eskualdaketetan zerga horrengatik atxikipena edo konturako diru-sarrera egitera behartuta egonen da entitate gordailuzaina edo, bestela, eskualdaketan parte hartu duen bitartekari finantzarioa edo fede-emaile publikoa.

Harpidetza eskubideen eskualdaketaren ondoriozko ondare gehikuntzen gaineko atxikipen ehuneko edo konturako sarrerarena 100eko 19 izan da.

Ehuneko hori erregelamendu bidez aldatzen ahalko da.”

**Berrogeita lau.** Hamahirugarren xedapen iragankorra, bigarren lerrokada. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Kenkaria pertsona lagunduaren ezkontideak edo bikote iraunkorrak baliatuko du, edo, horrelakorik ez badu, gradu hurbileneko ahaideak, salbu bere errentak ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino handiagoak ez badira, errenta salbuetsiak kenduta, hurrengo graduko ahaideari egokituko baitzaio.”

**Berrogeita bost.** Hemeretzigarren xedapen iragankorra. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hemeretzigarren xedapen iragankorra. Sindikatu eta elkargoen kuotak, alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak, eta dohaintzak, 2014an eta 2015ean ordaindutakoak.

Epean aurkeztutako aitorten informatiboan sartu ez zirelako, 2014ko eta 2015eko zergaldietan kenketarik eragin ez zuten sindikatu eta elkargoen zenbait kuota, alderdi politikoentzako kuotak eta ekarpenak, eta dohaintzak kenkariaren xede izan daitezke 2016ko zergaldiko aitorpenean, betiere horiek jaso dituzten entitateek 2016ko zergaldian aurkeztu beharreko eredu informatiboan aurreikusitako moduan aitorpenean sartzen badituzte.

2014ko abenduaren 31n eta 2015eko abenduaren 31n, hurrenez hurren, indarrean zegoen araudiarekin bat eginen da kenkaria.”

**Berrogeita sei.** Hogeita bigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita bigarren xedapen iragankorra. Enpresa gazte eta berritzaileen akzio edo partaidetzen eskualdaketa.

Zergatik salbuetsita egonen dira entitateetako akzioen edo partaidetzen eskualdaketa agerian gelditzen diren ondare gehikuntzak, eskurapenean entitate horiek enpresa gazte eta berritzailetzat hartu baldin badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, betiere 2016ko abenduaren 31n aplikatu beharreko testuari jarraikiz foru lege honen 62.11 artikulua b) letratik f) letrara bitarte, biak barne, aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak betetzen badira eta eskualdatzen diren baloreak eskualdatu aurreko bost urtean eskuratu baldin badira.

Salbuespena ezin da 6.000 eurotik gorakoa izan urtean.”

**Berrogeita zazpi.** Hogeita hirugarren xedapen iragankorra gehitzea. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eraginak.

“Hogeita hirugarren xedapen iragankorra. Minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeen zainketagatiko salbuespena.

Atzera-eraginez erreklamatu ahalko dira edozein administrazio publikoren eskutik 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotako familia-laguntzen eta -prestazioen salbuespenak, 7.k) artikulua aipatzen dituenak, hain zuzen ere honakoei lotutakoak: jaiotza, adopzioa, ardurapeko seme-alabak, adingabeen harrera, zurtasuna, erditze edo adopzio anizkoitza eta minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeen zainketa.”

**Bigarren artikulua.** Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan ondorioak izateko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen artikulua hauek honako testu hau izanen dute:

**Bat.** 11. artikulua. Enpresa eta lanbide jarduerak.

“11. artikulua. Enpresa eta lanbide jarduerak

Enpresa edo lanbide jardueri atxikitako ondasun eta eskubideak beren kontabilitatetik ateratzen den balioagatik konputatuko dira, betiere kontabilitatea Merkataritza Kodean xedatutakora egokitzen bada.

Merkataritza Kodean xedatutakora egokitzen den kontabilitaterik ez badago, zerga honen gainerako arauak aplikatuz ateratzen dena izanen da balorazioa.

Enpresa edo lanbide jarduerak kalifikatzeko eta ondare-elementuak jardueri atxikita daudela ulertzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

**Bj.** 29. artikulua. Zergaren sortzapena.

“29. artikulua. Zergaren sortzapena

Urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da zerga, eta egun horretan subjektu pasiboa titular duen ondareari eraginen dio.

Abenduaren 31n hiltzen bada, ulertuko da hildakoa ondarearen titularra dela egun horretan.”

**Hirugarren artikulua.** Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategina.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetarako, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bateginaren ondoko arau hauek jarraian agertzen den testua izanen dute:

Bat. 12.e) artikulua.

“e) Eskualdatzailearen ohiko etxebizitzaren erabateko jabetza edo usufruktua dohaintzaren bidez edo doako eta “inter vivos”ko beste edozein negozio juridikoren bitartez eskuratzea, eskuratzailerak odolkidetasuneko lerro zuzeneko ondorengo edo adoptatua bada, eta ehuneko 65eko edo gorako desgaitasuna duela frogatzen badu.”

Bi. 28.1 artikulua. c) eta d) letrak gehitzea.

“c) Erregistro fiskal ofizialetan agertzen diren balioei egindako erreferentziaren arabera zenbatespenaren bidez.

Erreferentziaren arabera zenbatespen hori egiteko, aukera bat da Nafarroako zerga administrazioak erregelamenduz ezarri bezala zehazten eta argitaratzen dituen koefiziente biderkatzaileak aplikatzea ondasun mota bakoitza baloratzeko erreferentzia gisa hartzen den erregistro fiskal ofizialean agertzen diren balioei. Ondasun higiezin kasuan, ondasun horiek baloratzeko koefiziente biderkatzaileak zehazteko, erreferentzia gisa hartuko den erregistro fiskal ofiziala Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroa izanen da.

d) Merkatuko batez besteko prezioei egindako erreferentziaren arabera zenbatespenaren bidez.

Erreferentziaren arabera zenbatespena egiteko, aukera bat da merkatuko prezioak egiaztatzeke metodo estatistikoa erabiltzea, erregelamenduz definitua, ondasunak eskaintzaren eta eskaeraren printzipioak araututako merkatu librean duen balio probableena lortzeko.”

Hiru. 32.bis artikulua.

“32.bis artikulua. Desgaitasuna duten subjektu pasiboek “mortis causa” eskurapenak.

Subjektu pasiboek gauzatzen dituzten mortis causa eskurapenek 60.000 euroko murriztapena izanen dute; horretarako, 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua egiaztatu beharko dute. Zenbateko hori 180.000 eurokoa izanen da, subjektu pasiboak 100eko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duela frogatzen badu.

Murriztapen hori aplikatu aurretik, eta kasu bada, kapitulu honetan aurreikusitako murriztapenak egin beharko dira.”

Lau. Bigarren xedapen gehigarria gehitzea, xedapen gehigarri bakarra lehen xedapen gehigarri bihurtuz.

“Bigarren xedapen gehigarria. Pertsona desgaitzat jotzea eta desgaitasunaren gradua egiaztatzea.

1. Zerga honen ondorioetarako, 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak hartuko dira pertsona desgaitzat.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ildotik, desgaitasunaren gradua egiaztatutzat joko da Foru Komunitateko, Estatuko Administrazioko edo dagokion autonomia erkidegoko organo eskudunek egiaztatzen dutenean.

3. Hala ere, ulertuko da 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutela administrazio publikoek aitortutako prestazioak, 100eko 65eko edo gehiagoko ezintasunaren ondoriozkoak, jasotzen dituzten pertsonak, aipatu prestazioak erabateko ezintasun iraunkorren edo baliaezintasun handiaren ondoriozkoak direnean.

Halaber, ulertuko da 100eko 65eko edo gehiagoko ezgaitasuna dutela judizialki deklaraturako ezgaitasuna duten pertsonak eta mendekotasun egoera bat, edozein gradutakoa, aitortua dutenek.”

**Laugarren artikulua.** Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bategina.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera eragiten diren zerga-egitateetarako, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Testu Bateginaren ondoko arau hauek jarraian agertzen den testua izanen dute:

Bat. 1.bis artikulua gehitzea.

“1.bis artikulua.

1. Egintza edo kontratu likidagarriaren benetako izaera juridikoaren arabera ordainaraziko da zerga, alderdiek emandako izena edozein delarik ere, bere balioa eta eraginkortasuna ukitzen ahal dituzten formazko zein berezko akatsak alboratuz.

2. Baldintzaren bat duten egintza edo kontratuetan, Nafarroan indarrean dagoen legedi zibilean dauden aginduen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga hura bete arte ez da likidatuko, eta likidazioaren etena ondasunen inskripzioan adieraziko da, dagokion erregistro publi-

koan. Baldintza suntsiarazlea bada, berehala ordainaraziko da zerga, eta, baldintza betetzen denean, dagokion itzulketa egingen da, 41. artikuluko arauen arabera.

3. Kontratuan jabariaren erreserba ezartzen bada hitzartutako prezio osoa ordaindu arte, ulertuko da, zergaren likidazio eta ordainketaren ondorioetarako, eskualdaketa baldintza suntsiarazle batekin egiten dela, hau da, prezioa hitzartu bezala ordaintzen ez bada, kontratua suntsiaraziko da.”

Bi. 1.ter artikulua gehitzea.

“1.ter artikulua.

1. Zergaren ondorioetarako, ondasunen kalifikazio juridikoa haien izaera ezberdin, destino, erabilera edo aplikazioaren arabera egiteko, Nafarroan indarrean dagoen legedi zibilean edo, bestela, zuzenbide administratiboan horri buruz xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Zergaren ondorioetarako, ondasun higiezinak izanen dira edozein motatako instalazio iraunkorrak, eraikitze moduagatik garraigarriak badira ere eta dauden lurzatia instalazioen jabearena ez bada ere.”

Hiru. 4.1 artikulua.

“1. Aurreko artikuluan zerrendatutako eragiketak ez dira titulu honetan araututako kostu bidezko ondare eskualdaketak izanen, enpresaburu edo profesional batek bere enpresa edo lanbide jardueran gauzatu badu ondasun entrega edo zerbitzu egitea eta, edozein kasutan, balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar duten ondasun entregak edo zerbitzu egiteak badira. Hala ere, zerga kontzeptu horrengatik ordaindu beharko dute ondasun higiezinaren entregek edo errentamenduek, baita horien gaineko erabiltze eta lupertze eskubide errealek eraketak edo eskualdaketak ere, baldin eta eragiketa horiek balio erantsiaren zergatik salbuetsita badaude, salbu subjektu pasiboak salbuespen horri uko egiten badio Zergaren Foru Legean jasotako inguruabar eta baldintzekin; enpresa edo lanbide ondarearen parte diren elementu gorpuzdunen edo, kasua bada, gorpuzgabeen multzo baten eskualdaketa sartzan diren higiezinaren entregek ere ordaindu behar dute, baldin eta elementu horiek berez enpresa edo lanbide jarduerara bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute, betiere bere inguruabarrengatik ondare horren eskualdaketak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar ez badu.”

Lau. 8.3. artikulua.

“3. Enpresa edo lanbide ondarearen parte diren elementu gorpuzdunen edo, kasua bada, gorpuzgabeen multzo baten eskualdaketa sartzan diren higiezinaren eskualdaketa, baldin eta elementu horiek berez enpresa edo lanbide jarduerara bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute, betiere bere inguruabarrengatik ondare horren eskualdaketak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar ez badu, 100eko 2ko karga-tasa aplikatuko da baldintza hauek betetzen badira hiru urtez, datatik datara zenbatuta eskualdaketatik hasita:

a) Eskuratzailak eskualdaketa aurreko urtean zegoen langileen batez besteko plantilla mantentzea, lan arloko araudian araututako pertsona-urte unitatetan neurtua.

b) Higiezinak ez eskualdatzea eta xedatze-egintzarik edo sozietate-eragiketarik ez egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eskurapen balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete.”

Bost. 22.2. artikulua.

“2. Eskrituren eta notario-akten lehenbiziko kopiek ere 100eko 0,5 karga-tasa izanen dute egintza edo kontratu horiei dagokienez, baldintza hauek betetzen dituztenean: beren xedea kopuru edo gauza baloragarria izatea; jabetza-erregistroetan, merkataritza-erregistroetan, jabetza industrialaren erregistroetan eta ondasun higiezinaren erregistroetan inskribatzeko moduko egintza edo kontratuak biltzea; eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga eta foru lege honen 1. artikuluko 1. idatz-zatiaren 1. eta 2. zenbakietako kontzeptuak ordaintzeko beharra ez izatea. Protesto akten kopiek karga-tasa bera izanen dute.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren salbuespenak dira higiezinaren eskualdaketak dokumentatzen dituzten eskrituren eta notario-akten lehenbiziko kopiak, eskualdaketa horietan balio erantsiaren gaineko zergaren salbuespenari uko egin bazaio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.2 artikuluan ezarri bezala. Kasu horietan, 100eko 1eko karga-tasa izanen da.”

Sei. 35.I.B).15 artikulua.

“15. Eskudiruzko gordailuak eta maileguak, zein den ere haiek gauzatzeko bidea, ordaindukoek, bonuek, obligazioek eta antzeko tituluek ordezkaturakoak barne. Gordailua edo mailegua dokumentatzen duten tituluen geroko eskualdaketa ere salbuetsita dago, bai eta ordainduko, bonu, obligazio eta serieko antzeko tituluei dagozkien egintza juridiko dokumentatuen gaineko karga ere,

gehienez 18 hilabeterako jaulkiak, besteren kapitalak ordezkatzeko dituztenak. Kapital horiek kontraprestazio bat ematen dute, jaulkipenean ordaindutako zenbatekoaren eta epemugan pagatuko denaren arteko aldea, hain zuzen ere.”

Zazpi. 35.I.B) artikuluari 28. idatz-zatia gehitzea.

“28. Pentsio funtsak eratu, desegin eta aldatzea (gehikuntzak eta murrizketak).”

Zortzi. 36.2 artikulua, a) eta c) letrak.

“a) Zenbatespena, erregistro fiskal ofizialetan agertzen diren balioen arabera.

Erreferentziaren arabera zenbatespen hori egiteko, aukera bat da Nafarroako zerga administrazioak erregelamenduz ezarri bezala zehazten eta argitaratzen dituen koefiziente biderkatzaileak aplikatzea ondasun mota bakoitza baloratzeko erreferentzia gisa hartzen den erregistro fiskal ofizialean agertzen diren balioei. Ondasun higiezin kasuan, ondasun horiek baloratzeko koefiziente biderkatzaileak zehazteko, erreferentzia gisa hartuko den erregistro fiskal ofiziala Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroa izanen da.

c) Merkatuko batez besteko prezioei egindako erreferentziaren arabera zenbatespena.

Erreferentziaren arabera zenbatespena egiteko, aukera bat da merkatuko prezioak egiaztatzeke metodo estatistikoa erabiltzea, erregelamenduz definitua, ondasunak eskaintzaren eta eskaeraren printzipioak araututako merkatu librean duen balio probabileena lortzeko.”

**Bosgarren artikulua.** Balio erantsiaren gaineko zerga.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu:

Bat. 47.1. artikulua.

“1. Enpresa edo lanbide jarduerako sektore berezitueta jarduerako ekonomikoak egiten dituzten subjektu pasiboek bereizita aplikatu beharko dute kenkariaren araubidea haietako bakoitzari buruz.

9.1.c) artikulua a), c) eta d) letratan xedatutakoa aplikatuz zehazten diren enpresa edo lanbide jarduerako sektore berezitueta hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzen ahalko zaie, bakoitzari berea.

Beti ere, 9.1.c) artikulua b) letran xedatutakoa aplikatuz zehaztutako jarduerako sektore berezitueta dagozkien kenkari araubideak lege horretan

araubide berezi erraztuarentzat, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubidearentzat, inbertsioko urte bidezko eragiketen araubidearentzat eta baliokidetasun-errekarguaren araubidearentzat aurreikusitakoaren arabera arautuko dira: zein dagokion, haren arabera.

Ondasunak edo zerbitzuak hainbat jarduerako sektore berezitueta batera erabiltzeko eskuratu edo inportatzen direnean, 50. artikuluko 2. idatz-zatian eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da eskurapen edo inportazio horietan jasandako kuota zer kenkari portzentaje aplikatzen ahal zaien zehazteko; horretarako, sektore berezitu bakoitzean egindako eragiketak kontatuko dira, eta kontuan hartuko da nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziko edo baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziko eragiketek ez dutela kenkarirako eskubiderik sortzen.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren salbuespen gisa, entitate taldearen jarduerako sektore berezitueta egindako eragiketak ez dira kontuan hartuko.

Orobat, eta aipatu lerrokadan aurreikusitakoa aplikatu ezina izanik, ondasun edo zerbitzu horiek aldi berean araubide berezi erraztuaren babeseke jardueretan eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziaren edo baliokidetasun-errekarguarenaren menpeko beste jarduerako batzuetan erabiltzen direnean, aipatu kenkariaren portzentajea ehuneko 50eko izanen da araubide erraztuaren ondorioetarako, baldin eta ondorioa aipatu araubide berezitueta biren menpeko jarduerari buruzkoa bada; bestela, heren batekoa.”

Bi. Hemeretzigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hemeretzigarren xedapen iragankorra. Sozietate zibilek balio erantsiaren gaineko zergaren baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziari uztea.

2016. urtean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga errentak eratxikitzeke araubidean ordaindu duten sozietate zibilek, balio erantsiaren gaineko baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziari atxikita badaude baina, 2017ko urtarrilaren 1etik aurreko ondorioekin, sozietateen gaineko zergaren zergadun bihurtzen badira eta, horren ondorioz, araubide berezi horri uzten badiote, foru lege honen 100. artikuluan eta bere erregelamenduen 49. artikuluan ezarritakoa aplikatzen ahalko dute.”

**Seigarren artikulua.** Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen Foru Legea.

Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea Erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

**Bat.** Hamargarren xedapen gehigarria. Mezenasgo sozialerako zerga pizgarriak. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Hamargarren xedapen gehigarria. Mezenasgo sozialerako zerga pizgarriak.

1. Entitate onuradunei emandako dohaintzek, baldin eta xedapen gehigarri honetan aurreikusitako araubidearen aitorpena jaso badute Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentutik edo Nafarroako Berdintasunerako Institututik, xedapenean ezarritako onura fiskalak izanen dituzte.

2. Ondorio horietarako, entitate onuradunak izanen dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Irabazi-asmorik gabeko entitatea izatea. Edozein kasutan, irabazi-asmorik gabeko entitateak izanen dira fundazioak, onura publikoko elkar-teak, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (garapenerako lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan inskribatuak), gizarte-ekimeneko kooperatibak (Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatuak) eta aurreko entitate guztien federazioak eta elkargoak.

b) Helburu sozialak izatea, gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arlokoak. Edozein kasutan ulertuko da gai hauei lotutako xedeak edo jarduketa-eremuak dituzten entitateek helburu sozialak dituztela: desgaitasuna, mendekotasuna, bazterketa, adingabeentzako arreta gizarte zerbitzuetan, presoak eta preso ohiak, etxegabeak, etorkinak, gutxiengoak, droga-mendekotasunen eta beste adikzio batzuen prebentzioa eta tratamendua, adineko pertsonak, garapenerako lankidetzaren edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Gai horiek direla eta, Gizarte Zerbitzuen eta Baimen Berariazkoen Erregistroan, garapenerako lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan edo Nafarroako Foru Komunitateko Emakume Elkarleen Zentsuan daude inskribaturik.

c) Nafarroan jarduera egin izana b) letran aipatutako eremuren batean, 3. idatz-zatian aipatzen

den eskaera aurkeztu aurreko azken 4 urteetan. Edozein kasutan ulertuko da azken 4 urteetan Nafarroan jarduera egin dutela ekitaldi horietan guztietan Nafarroako administrazio publikoetatik diru-laguntzaren bat jaso dutenak.

d) Jasotako errenta eta diru-sarreraren 100eko 70 edo gehiago, horiek eskuratzeko gastuak kendu ondoren, interes orokorreko helburuetara bideratzea, eta gainerakoa ondare zuzkidura edo erreserbak handitzera bideratzea, horiek eskuratu eta 4 urteko epean, gehienez ere.

e) Diru-laguntza publikoen entitate onuradunei ezarritako gardentasun betebeharrak betetzea.

3. Entitate interesdunek Eskubide Sozialetako Departamentuari edo Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatu beharko diote xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidean sartzeko, departamentu eta erakunde horien titularrek onesten duten eredia erabiliz. 2. idatz-zatian aipatzen diren betebeharrak betetzearen frogagiriak erantsiko zaizkio eskabideari, kasua bada.

Ez da beharrezkoa izanen betebeharrak horiek betetzearen frogagiriak aurkeztea ondorioztatzen bada horietako bat betetzen dela administrazio publiko baten erregistro batean inskribatuta egoteagatik edo Nafarroako administrazio publikoetatik diru-laguntzak jasotzeagatik, edo administrazio publiko bati edozein prozedura edo tramitetan emandako dokumentazioaren azterketatik. Kasu horietan, aski izanen da dagokion prozedura edo erregistroa aipatzea.

4. Xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidean sartu ondoren, dohaintzen entitate onuradunek Eskubide Sozialetako Departamentuari eskatu beharko diote araubide hori mantentzeko, hurrengo ekitaldiko lehenbiziko zortzi hilabeteetan, departamentu horren eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren titularrek onesten duten eredia erabiliz. Horrez gain, epe horretan, entitate horien ordezkariak erantzukizuneko aitorpena aurkeztuko dute, frogatzeko 2. idatz-zatian ezarritako betebeharrak betetzen dutela, bai eta entitatearen kontuak ere, salbu Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuan dagoeneko aurkeztu badiutze zerga-araudia betetzeko.

Eskubide Sozialetako Departamentuari eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari dagokie egiaztatzea ezarritako baldintzak betetzen direla, entitate eskatzaileen jarduera eremuaren arabera.

5. Eskubide Sozialetako Departamentuko Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politikaren Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak 3. eta 4. idatz-zatietan aipa-

tzen diren eskaerak ebatziko ditu, entitateen xede soziala gizarte zerbitzuen edo garapenerako lankidetzaren arlokoa bada, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzaileak ebatziko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko entitateen eskaerak.

Pertsona bereberei dagokie xedatzea entitate batek xedapen horretan ezarritako araubidea erabiltzeari utzi behar diola, egiaztatzen dutenean betebeharren bat betetzen ez duela.

Hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi behar da ebazpen hori. Epe hori igarota ebazpen espresurik jakinarazi ez bazaio, eskaera aurkeztu duen entitate interesdunak zilegi du ulertzea eskaera baietsi dela administrazio siltasunaren bidez.

Hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi behar da araubidea erabiltzeari uzteko ebazpena. Epe hori igarota ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, prozedura iraungiko da.

6. Pertsona fisioen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, entitate onuradunei dohaintza egiten badiete, eskubidea izanen dute, emandako lehenbiziko 150 euroetan, zergaren kuotatik 100eko 80 kentzeko. "Inter vivos" dohaintza ezeztatzin, soil eta hutsetan emandako zenbatekoak hartuko dira kontuan, bai eta 2. idatz-zatian aipatzen diren entitateekin egindako lankidetzaz hitzarmenen ondorioz emandakoak ere, entitateak, edo, hala bada, Eskubide Sozietateko Departamentuko zerbitzuko edo Nafarroako Berdintasunerako Institutuko titularraren ebazpenean jasotako jarduerak, 5. idatz-zatian aipatzen direnak, finantzatzera bideratzen badira. 150 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 35eko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute. 150 euroko muga hori subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldiko aplikatuko da.

Doako zerbitzu-emateetan, kenkariaren oinarria egindako gastuen kostua izanen da, irabazi-marjina kontuan izan gabe.

Kenkariaren oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen Testu Bateginaren 64.1 artikuluan aipatzen den mugaren ondorioetarako kontatuko da.

7. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek entitate onuradunei dohaintzak edo zenbatekoak ematen badizkiete betiere aurreko idatz-zatian ezarritako kasu, baldintza eta helburuekin, onura fiskal hauek izanen dituzte:

a) Zerga-oinarria zehazteko, dohaintzan emandako zenbatekoak kengarritzat hartuko dira.

b) Horrez gain, zergaren kuota likidoan dohaintzen zenbatekoaren 100eko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute.

Zerga oinarrian kentzen ahal den zenbatekoa honako muga hauetako handiena adinakoa izanen da, gehienez ere:

– Murriztapen hori eta, kasua bada, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluek aipatzen dituztenak egun aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30.

– Negozio zifraren zenbateko garbiaren milako 3.

Bestetik, kuotako kenkaria gauzatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio, eta han ezarritako mugak izanen ditu.

8. Bateriaezina izanen da xedapen gehigarri honetan ezarritako onura fiskalak eta foru lege honetan ezarritako gainerakoak zenbateko berberetarako jasotzea.

9. Onura fiskal hauek aplikatzeko, entitate onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Dohaintzak edo lankidetzaz hitzarmenaren ondoriozko zenbatekoak egiaz eman direla eta entitateak edo, hala bada, xedeko jarduerak finantzatzeko egiaz erabili direla frogatzea, kasuan kasuko ziurtagirien bidez.

b) Emandako egiaztagirien edukia jakinarazi beharko diote zerga administrazioari, zerga-araudian ezarritako eredu eta epeekin.

10. Urte bakoitza bukatu baino lehen, Eskubide Sozietateko Departamentuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak xedapen gehigarri honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitate onuradunen zerrenda bidaliko diote zerga administrazioari."

Bj. Xedapen iragankorraren titulua aldatzen da, orain "Lehenbiziko xedapen iragankorra" izanen baita.

Hiru. Bigarren xedapen iragankorra gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

"Bigarren xedapen iragankorra. "Konpromiso sozialeko proiektua" izeneko zigilua dagoeneko lortu duten proiektuei aplikatzekoak zaizkien pizgarri fiskalak.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera "Konpromiso sozialeko proiektua" izeneko zigilua



lortu zuten urte anitzeko proiektuei emandako dohaintzek eta foru lege honen hamargarren xedapen gehigarrian —2017ko urtarrilaren 1ean indarrean den testuaren arabera— mezenasgo sozialerako ezarritakoek onura fiskal berberak izanen dituzte, betiere Gizarte Politiketako kontseilariak “Konpromiso sozialeko proiektua” izeneko zigilua emateko deialdia onetsi zuen foru aginduan eta proiektu jakin bati zigilu hori ematen dion foru aginduan ezartzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzen badira.

Urte anitzeko proiektuaren gauzatzea bukatzen den arte aplikatuko dira aipatu onura fiskalak.”

**Zazpigarren artikulua.** Hondakin uren saneamenduko kanonaren tarifak.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legeak sortutako saneamenduko kanonaren tarifak, foru lege horren bigarren xedapen iragankorrean (Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legearen 11. artikulua emandako testuaren arabera) zehazten direnen orde, honako hauek izanen dira:

1. a) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeke ur-erabilerei aplikatu beharreko karga tasak: 0,597 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako ur-erabilerei, etxekeak ez direnei, aplikatu beharreko karga tasak: 0,715 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako moduan.

c) Saneamenduko sare publikoei konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek eman beharreko baimen administratiboak dituzten erabil-tzaileak: 0,086 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

2. Ur-banaketan aritzen diren entitateek horniduragatiko tasak arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoa aplikatu ahal izanen diote saneamenduko kanonari ur-ihesak daudenean isuria kalkulatzeko den kasurako edo hobari sozialak aplikatzeko.

3. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegi-tako lohien lerroetan:

NEURKETA	PREZIOA
5 m <sup>3</sup> arte	42,50 €
10 m <sup>3</sup> arte	85,00 €
10 m <sup>3</sup> baino gehiago	8,50 €/m <sup>3</sup>

4. Aurreko zenbatakoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.”

**Zortzigarren artikulua.** Tasa eta Prezio Publiko bakoitzeko Foru Legea.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen manu hauen testua honakoa izanen da:

Bat. 103. artikulua, 2.E) idatz-zatia

E)	Pertsona edo/eta animalientzako medikamentuak eta haien printzipio aktiboak prestatzen dituen industria	
	Fabrikazio onerako arauak betearazteko ikuskapena eta egiaztapena. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko.	450
	Publizitatea baimentzea.	125
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua.	75
	Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Baimena.	600

Bj. 103.5 artikulua.

“5. Albaitaritza zerbitzuak.

KODEA	IZENA	TARIFA
AZ01	Animalien osasun kontrola, ausikia gertatzen denean	25
AZ02	Zakurrak harrapatu eta biltzeko zerbitzuak. (Prezioak txakurreko)	60
AZ02.1	Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroan (Etxaurin) uztea	15
AZ02.2	Beste jabe batzuek adoptatutako zakurrak	15
AZ02.3	Egonaldi gastuak Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroan (Etxaurin)	20 <sup>(1)</sup>
AZ03	Osasun ziurtapenak elikagaiak esportatzeko	10
AZ04	Albaitarien jarduketak zezenketetan (Prezioak albaitari bakoitzeko)	250

(1) 20 euro, gutxienez. 5. egunetik aurrera, 3 euro gehituko dira egonaldiaren egun bakoitzeko.”

Hiru. 103.6 artikulua.

“6. Elikagaien arloko Enpresen Erregistroa.

IZENA	TARIFA
Hasierako inskripzioa, funtzionamendurako baimena behar duten industrien erregistroan, Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2004ko apirilaren 29ko 853/2004 (EE) Erregelamenduan ezarri bezala. Erregelamendu horren bidez, animalia-jatorriko elikagaiei buruzko higienearau berriak ezartzen dira.	50
Elkarren onarpena duten elikadura-osagarrien jakinarazpenak (jakinarazitako osagarri bakoitzeko)	10
Elkarren onarpenik gabeko elikadura-osagarrien jakinarazpenak (jakinarazitako osagarri bakoitzeko)	20

Lau. 103. bis artikulua gehitzea.

“103.bis artikulua. Onura fiskalak.

1. Tasa ordaintzetik salbuetsita daude nagusiki prebentziokoak diren osasun zerbitzuak, bai eta funtsean epidemiologikoak edo elikagaien arlokoak direnak edo komunitatearen osasuna zuzenean babestekoak, Osasun Departamentuak ematen dituen jarraibideen arabera.

2. Tasan 100eko 40ko murriztapena aplikatuko da irabazi-asmorik gabeko entitateei emandako zerbitzuetan.

Murriztapena aplikatzeko, interesdunak eskaera egin behar du, eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzak bete behar ditu.

3. “Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Baimena” (103.2 artikuluko E) letra) izeneko tasa ordaintzetik salbuetsita egonen dira saiakuntza klinikoen araudiaren arabera “merkataritzea asmorik gabeko ikerketa klinikoa” diren azterlanak.”

Bost. IX. tituluaren II. kapitulua.

“II. kapitulua. Abereen eta haien produktuen osasun ikuskapen eta kontrolen tasak.”

## 104. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru Komunitateak tasa horiek eskatuko ditu baldin eta Nafarroan kokatzen bada abereak hiltzen, kanalak zatitzen, haragiak biltzen edo animalietako eta haien produktuetako substantziak eta hondakinak kontrolatzen diren establezimendua.

2. Kapitulu honetan araututako tasen zenbatekoa ezin zaie hirugarren pertsonari itzuli, ez zuzenean ez zeharka, haragien esportazioagatik edo beste arrazoi batengatik.

## 105. artikulua. Zergapeko egintza.

1. Tasa hauen zerga-egitatea da Foru Komunitateko Administrazioak behar diren zerbitzuak ematea osasun publikoa eta animalien osasuna zaintzeko, abereen, gizakiek jateko diren haragi freskoen eta animalia-jatorria duten beste produktu batzuen osasun ikuskapen eta kontrolen bidez, dagozkien zerbitzuetako fakultatiboek gauzatuak, abereak hiltzeko, zatitzeko eta hoztuta biltegitratzeko Nafarroako lokal edo establezimenduetan edo gainerako kontrol eta azterketak egiteko dau den zentro egokietan.

2. Tributuaren ordainarazpenaren ondorioetarako, zerga-egitatean sartzen diren osasun ikuskapen eta kontroleko jarduerak honela sailkatzen dira:

a) Osasun ikuskapen eta kontrolak, abereak hil aurretik, haragi freskoak ateratzeko abere hauetatik: abelgorriak, zerriak, ardiak, ahuntzak, beste hausnarkari batzuk, untxiak eta lumadun eta ile-dun ehizaki xehea, solipedoak/ekidoak eta oilategiko hegaztiak.

b) Osasun ikuskapen eta kontrolak, abereak hil ondoren, hildako abereen haragi fresko horiek lortzeko.

c) Establezimenduetan egindako eragiketen kontrol dokumentala.

d) Gizakiek jateko diren kanal, errai eta barrukien kontrola eta markaketa, eta haragia zatitzeko aretoetan lortutako piezen markaketa edo zigilaketa.

e) Gizakiek jateko diren haragi freskoak biltegitratzeko eragiketen kontrola, horrela ezartzen den unetik aurrera, salbu azken kontsumitzaileei saltzeko lokaletan egiten diren kopuru txikikoak.

f) Substantzien eta hondakinen kontrola animalien eta haien produktuetan, araudi indarduneari ezarri bezala.

## 106. artikulua. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, zerbitzua eskatzen dutenak edo hiltze, zatitze, biltegitratze edo kontrol eragiketen har-tzaileak.

## 107. artikulua. Ordezkoak.

Honako hauek behartuta daude tributua ordaintzera, zergadunaren ordezkio gisa:

1. Abereei hil aurretik edo hil ondoren egiten zaizkien osasun ikuskapen eta kontrol ofizialei dagozkien tasen kasuan, bai eta gizakiek jateko diren kanal, errai eta hondakinen markaketaren kasuan ere, hilketa edo ikuskapena egiten den establezimenduen titularrak.

2. Zatiketa eragiketen kontrolari dagozkion tasen kasuan:

a) Aurreko 1. idatz-zatian zehaztutako pertsona berberak, zatitze eragiketarako hiltegiaren berean egiten direnean.

b) Zatitze eragiketarako modu independentean egiten dituzten establezimenduen titularrak, gainerako kasuetan.

3. Biltegitratzearen kontrolari dagozkion tasen kasuan, establezimendu horien titularrak.

4. Animalietako eta haien produktuetako substantzien eta hondakinen kontrolari dagozkion

tasen kasuan, kontrol eta analisi horiek egiten diren establezimenduen titularrak.

Interesdunak hirugarren batetik eskuratu badu aberea, bizirik, gero hiltzeko, hirugarren horri eskatzen ahalko dio 105.f) artikuluan definitutako kontzeptuari dagokion tasaren zenbatekoa.

108. artikulua. Tributuaren erantzuleak.

Honako hauek tributuaren erantzuleak izanen dira subsidiarioki:

a) Beren jarduerari utzi dioten sozietateen administratzaileak, ordaindu gabeko tasei dagokienez.

b) Porroten, konkurtsoen, sozietateen eta, oro har, entitateen sindiko, kontu-hartzaile edo likidatzaileak, baldin eta, zabarkeriaz edo fede gaiztoz, egoera horien aurretik sortutako tributu-betebeharrak, dagozkien subjektu pasiboari egotzen ahal zaizkienak, erabat betetzeko behar diren kudeaketak egiten ez badituzte.

109. artikulua. Haragi freskoen eta untxi eta ehizaki haragiaren osasun ikuskapen eta kontrolei dagozkien tasen tarifak.

1. Zergadunari tarifa eskatuko zaio animalia bat hiltzen den bakoitzeko, zatikatzeko eragiketa bakoitzeko eta biltegiatako kontrol bakoitzeko.

Hiltegiatan egiten diren hilketei dagozkien tarifak bertan hiltzen diren animalien kopuruaren arabera likidatuko dira.

Abereak hiltzen direnean, hil aurreko eta ondorengo osasun ikuskapen eta kontrolerako jarduerari, eginiko eragiketen agiri bidezko kontrolari eta kanal, errai eta barrukien markaketari dagozkien tarifak, behar bezala baimenduriko establezimendu edo instalazioetan hildako abere bakoitzarendako, ondorengo tauletan agertzen diren zenbatekoetan ezartzen dira:

a) Hiltegiatako ikuskapen eta osasun kontrolean aplikatzen diren tasen zenbatekoak, animalia bakoitzeko:

	<b>AZIENDA MOTA</b>	<b>TARIFA ANIMALIA BAKOITZEKO</b>
1. TARIFA	Abelgorrien haragia:	
	1. Abelgorri pisudunak:	5,50 euro (0,36)
	2. Abelgorri gazteak:	2,20 euro (0,25)
2. TARIFA	Solipedoak, ekidoak:	3,20 euro (0,21)
3. TARIFA	Zerrikia, zerriek kanalean duten pisuaren arabera:	
	1. 25 kg-tik beherakoa:	0,61 euro (0,03)
	2. 25 kg-koa edo hortik gorakoa:	1,01 euro (0,107)
4. TARIFA	Ardi eta ahuntzen haragia, animaliek kanalean duten pisuaren arabera:	
	1. 12 kg-tik beherakoa:	0,20 euro (0,01)
	2. 12 kg-koa edo hortik gorakoa:	0,40 euro (0,029)
5. TARIFA	Hegaztien eta untxien haragia:	
	1. Hegaztiak, Gallus generokoak eta pintadak:	0,006 euro (0,001)
	2. Ahateak eta antzarak:	0,011 euro (0,02)
	3. Indioilarrak:	0,025 euro (0,002)
	4. Haztegiko untxiak:	0,006 euro (0,001)
	5.- Etxe-hegaztiak ez izan arren etxe-abere gisa hazten diren hegaztiak, erratiteak izan ezik:	0,006 euro (0,001)
6. TARIFA	Haztegiko ehiza	
	1.- Oreinak:	0,40 euro (0,029)
	1.- Haztegiko ehizako beste ugaztun batzuk:	0,40 euro (0,029)

Hiltzeko diren abere bizidunengan eta tasa honen xedeko haragietan, ezarritako kontrol eta teknika analitikoek buruzko osasun araudiarekin bat, substantziak kontrolatzeko eta hondakinak ikertzeko kontrol eragiketen tarifa hilketari aplikatzen zaion kuota osoan sartzan da, eta informazio-

rako xehakatzen da aurreko taulan, parentesi arteko zifren bidez.

b) Animaliak zatikatzeko aretoetako ikuskapen eta osasun kontroletan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoak, tona bakoitzeko:

	<b>AZIENDA MOTA</b>	<b>TARIFA TONA BAKOITZEKO</b>
1. TARIFA	Behi, zerri, solipedo, ekido, ardi eta ahuntzen haragia:	2,20 euro
2. TARIFA	Haztegiko hegaztien eta untxien haragia:	1,70 euro
3. TARIFA	Basa ehizakien eta haztegiko ehizakien haragia:	
	1. Lumadun eta ileadun ehizaki xehearen haragia:	1,70 euro
	2. Erratiteen haragia (ostrukak eta beste):	3,20 euro
	3. Aketzen eta hausnarkarien haragia:	2,20 euro

c) Ehizakia eraldatzeko instalazioetako ikuskapen eta osasun kontroletan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoak:

	<b>AZIENDA MOTA</b>	<b>TARIFA ANIMALIA BAKOITZEKO</b>
1. TARIFA	Lumadun ehizaki xehea:	0,006 euro
2. TARIFA	Ileadun ehizaki xehea:	0,011 euro
3. TARIFA	Erratiteak:	0,60 euro
4. TARIFA	Lurreko ugaztunak:	
	1. Basurdeak:	1,70 euro
	2. Hausnarkariak:	0,60 euro

d) Haragiak biltegitratzeagatik aplikatzekoak diren tasen zenbatekoa.

Haragiak biltegitratzeko eragiketetan, biltegitratzea kontrolatzeko eragiketen xedeko tonen arabera zehaztuko dira kuotak. 0,51 euroko tarifa aplikatuko da tona bakoitzeko.

2. Establezimendu berean abereak hiltzeko, zatitzeko eta biltegitratzeko jarduerak modu integratuan egiten badira, zenbateko handiena duen jardueraren tasa jasoko da soilik. Ondorio horietarako, ulertuko da establezimendua dela zenbait instalazio erantsi dituena titular beraren jarduerak, abereak hiltzeko eta zatitzekoak, egiteko.

110. artikulua. Esne, esneki eta oboproduktuetako substantzien eta hondakinaren kontrol eta ikerketetan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoa.

Esne, esneki eta oboproduktuetako substantzien eta hondakinaren kontrol eta ikerketa eragiketetan, 0,02299 euroko tarifa aplikatuko da lehengai gisa erabilitako mila litro esne gordineko, edo oboproduktuen tona metriko bakoitzeko.

111. artikulua. Murriztapenak hiltegien osasun ikuskapenaren tasan.

Likidazio bakoitzean, tasen xedeko hiltegiatoko jardueren erantzuleak diren subjektu pasiboek ondoko murriztapenak aplikatzen ahalko dituzte beren autolikidazioan, 109. artikuluko tauletan ezarritako zenbatekoak aplikatuz kalkulatu den kuotan. Murriztapenak bateragarriak dira elkarren artean likidazio bakoitzean:

## a) Murriztapena lan ordutegiagatik.

100eko 30eko murriztapena tasaren tributu-kuotan, albaitaritza zerbitzu ofizialaren presentzia bakarrik lanegun diren astelehenetik ostiralera, 06:00etatik 15:00etara, eskatzen duten hiltegieta-rako eta ehizakien haragia manipulatzeko aretoe-tarako. Murriztapena aplikatu ahal izateko, hiru hile-koko hilabete bakoitzean 100eko 5eko desbiderapena, gehienez, izanen da ordutegi horretan.

Albaitaritza zerbitzu ofiziala ordutegi horretatik kanpo eskatzen duten hiltegiek 100eko 10eko murriztapena izanen dute, baldin eta, gutxienez, eskaeraren erdia ordutegi horretan egiten bada.

Albaitaritza zerbitzu ofiziala larunbatetan, igan-deetan edo jaiegunetan eskatzen bada, ez da murriztapenik aplikatuko kontzeptu horrengatik, egun horietan hildako edo zatikatutako abereei dagokienez. Ez da aurreko baimenik eman behar murriztapena aplikatzeko. Interesdunek albaitaritza zerbitzu ofizialek noizean behin ematen duten informazioa erabiliko dute kontzeptu horrengatik bidezkoa den likidazioa kalkulatzeko; informazioa kudeatzen duten administrazio organoek egiazta-tuko dute informazio hori, eta horren ondorioz eskatzen ahalko da murriztapenak erregulariza-tzeko.

## b) Murriztapena hiltegien jardueraren plangin-tzagatik eta hura betetzeagatik.

Murriztapena aplikatzeko, hiltegiek plangintza eta programazio sistemak aplikatu behar dituzte produkzio prozesuetan, eta sistema horiei esker ikuskapen zerbitzuek gutxienez bost egun natural lehenago jakinen dute eman beharreko zerbi-tzuaren data.

Kontzeptu honengatik murriztapenaren zenba-tekoa kalkulatzeko, 100eko 15 aplikatuko zaio kuo-tari.

## c) Murriztapena kontrol ofizialari emandako laguntza instrumentalagatik.

Murriztapen hau aplikatzeko, establezimenduak ikuskapen zerbitzuen eskura jarri behar ditu berriazko kontrol jarduerak instalazioetan gauza-tzeko behar diren materiala eta ekipamendua. Hor-nidura instrumentala honako hauetan zehazten da: babes ekipamendu egokiak, lan espazio eta eki-pamendu egokituak (lan arriskuen prebentziorako baldintzak kontuan hartuta), tresnak, zerbitzu informatikoa, eta bulegoko eta komunikazioetako material egokia.

Murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 15 aplikatuko zaio kuotari.

## d) Murriztapena hiltegiko langileen lagun-tzagatik.

Kasuan kasuko espezieari dagokion kuotaren 100eko 15eko murriztapena, baldin eta subjektu pasiboak, bere jardueraren eta araudi indarduna-ren arabera, ikuskapenari laguntza ematen dioten hiltegiko langileak baditu. Langile horiek subjektu pasiboaren kargura izanen dira, Europako Parla-mentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 29ko 854/2004 EE Erregelamenduaren I. eranskineko 111. atalaren III. kapituluko B puntuarekin bat. Erre-gelamendu horren bidez, gizakiek kontsumitzeko diren animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeke berriazko arauak ezartzen dira.

e) Murriztapena hil aurreko kontrol eta ikuska-penak egiteagatik. Murriztapen hau aplikatzeko, jarduera horiek jatorrizko ustiatzean egin behar zaizkie hil beharreko animaliei, hiltegian errepikatu beharrik gabe, Europako Parlamentuaren eta Kon-tseiluaren apirilaren 29ko 854/2004 EE Erregela-menduan zehaztutakoarekin bat, edo sistema bat badute abereak kontrolatu eta erregistratzeko, hil-tegira heltzen direnean, modu horretan hil aurreko ikuskapena erraztuz.

Kontzeptu honengatik murriztapenaren zenba-tekoa kalkulatzeko, ehuneko 5 aplikatuko zaio kasuan kasuko espezieari dagokion kuotari.

f) Murriztapena aldeko ebaluazioa duten auto-kontrol sistema aurreratuengatik. Murriztapena aplikatzeko, establezimenduak autokontrol siste-mak izan beharko ditu, Arriskuen Azterketa eta Kontrol Gune Kritikoak (AAKGGK) sistemetan oina-rrituta daudenak eta aldeko ebaluazioa dutenak; eta Nafarroako Osasun Publikoko eta Lan Osasu-naren Institutuko zerbitzu teknikoek baloratu behar dute abantailak dituztela kontrol ofizialak aplika-tzeko, eta, horren ondorioz, kontrol horien kostuak murrizten dituztela.

Kontzeptu honengatik murriztapenaren zenba-tekoa kalkulatzeko, 100eko 5 aplikatuko zaio kuo-tari.

112. artikulua. Tasaren murriztapena animaliak zatikatzeko aretoetan, ehizakiak eraldatzeko esta-blezimenduetan eta toreaketa-zezenak tratatzeko aretoetan egiten diren ikuskapen eta kontrolenga-tik.

Animaliak zatikatzeko aretoetan, ehizakiak eraldatzeko establezimenduetan eta toreaketa-zezenak tratatzeko aretoetan ardura duten elika-gaien enpresek murriztapena aplikatzen ahalko dute aldeko ebaluazioa duten autokontrol sistema aurreratuengatik.

Murriztapena aplikatzeko, establezimenduak autokontrol sistemak izan beharko ditu, Arriskuen Azterketa eta Kontrol Gune Kritikoak (AAKGK) sistemetan oinarrituta daudenak eta aldeko ebaluazioa dutenak; eta Nafarroako Osasun Publikoko eta Lan Osasunaren Institutuko zerbitzu teknikoek txosten batean adierazi behar dute abantailak dituztela kontrol ofizialak aplikatzeko, eta, horren ondorioz, kontrol horien kostuak murrizten dituztela.

Kontzeptu honengatik murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 35 aplikatuko zaio kuo-tari.

113 artikulua. Aurreko baimena murriztapenak aplikatzeko, eta mantendu beharreko baldintzak.

1. 111. artikulua b), c), d), e) eta f) letretan eta 112. artikuluan ezarritako murriztapenak aplikatzeko, Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak aurreko onarpena eman behar du. Hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera tramitazioaren organo eskudunaren erregistroan sartzen den egunetik hasita. Eskaera epe horretan ebazten ez bada, ulertuko da interesdunak murriztapenerako eskubidea duela. Epe hori bukatu ondoren eginen duen lehenbiziko autolikidazioan aplikatu beharko da.

2. Murriztapena aplikatzen jarraitzeko, onarpena ekarri zuten inguruabarrak mantendu beharko dira.

114. artikulua. Sortzapena.

Animalien eta animalia-jatorriko produktuen osasun ikuskapen eta kontroletarako ezarritako tasak sortuko dira 109. eta 110. artikuluetan zerrendatzen diren zerbitzuak ematen diren unean.

115. artikulua. Likidazioa eta diru-sarrera

Ordezko subjektu pasiboen autolikidazio sistemaren bidez ordainduko dira tasak; hiruhileko natural batean sortutako tasak hurrengo hilabetearen lehen hogeit egunetan ordaindu beharko dira.

115. bis artikulua. Erregistroa izateko betebeharrak

1. Esne, esneki eta oboproduktuetako substantzien eta hondakinen kontrol eta ikerketen tasak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak behartuta daude tasa horiei lotutako eragiketa guztien erregistro bat izatera. Hildako animaliak agertu behar dira, eragiketen zenbakia, eguna eta ordua eta animalien pisua adierazita, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ematen dituen ereduarekin bat, formatu elektronikokoak barne. Animaliak zatikatzeko eragiketak ere erre-

gistratuko dira, foru lege honetan ezarritako baldintzekin.

2. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuarekin batera, aurreko lerrokadan aipatzen diren erregistroen ereduak ezarriko ditu, formatu elektronikokoak barne, elikagaien enpresek bete beharrekoak, bai eta tasa hauen zenbatekoak ordaintzeko aurkeztu behar diren aitorpen eta autolikidazio ereduak ere.”

Sei. 182.1 artikulua.

“1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da dokumentu ondareko agirien erreprografia zerbitzua ematea.”

Zazpi. Titulu berri bat (XV.a) gehitzea.

“XV. titulu. Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren tasak.”

Zortzi. I. kapitulu gehitzea XV. tituluari.

“I. kapitulu. Enpresei eta prestakuntza zentroi zerbitzu administratiboak emateagatik ordaindu beharreko tasa.”

183. artikulua.

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da enpresei eta ekimen pribatuko prestakuntza zentroi baimena ematea profesionaltasun ziurtagirietarako prestakuntza (funts publikoen bidezko finantzaziorik gabea) emateko, prestakuntza horien ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egiteko eta kualifikazioa egiaztatzeke.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira bere zerga-egitatearen xedeko zerbitzuak eskatzen edo haietatik onura ateratzen duten enpresak eta ekimen pribatuko prestakuntza zentroak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko den unea:

a) Baimen fasean: prestakuntza emateko baimena eskatzen denean.

b) Kualifikazioaren ebaluazio, jarraipen, kontrol eta egiaztapen fasean: prestakuntza hasi baino lehen.

4. Tarifak.

Tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:

a) Baimen fasean:

Prestakuntza modulu solteak: 200 euro modulu bakoitzeko.

Ikastaro osoa: 300 euro ikastaro bakoitzeko.

b) Ebaluazio, jarraipen, kontrol eta egiaztapen fasea:

Prestakuntza modulu solteak: 200 euro modulu bakoitzeko.

Ikastaro osoa: 300 euro ikastaro bakoitzeko.”

Bederatzj. II. kapitulua gehitzea XV. tituluari.

“II. kapitulua. Tasa entitate pribatuei lanbide gaitasunen egiaztapen deialdiak baimentzeagatik.

184. artikulua.

1. Zergapeko egintza.

Tasaren zerga-egitatea da deialdiak egiteko baimena ematea pertsonen lan-esperientzian edo prestakuntza bide ez-formaletan lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeke, entitate pribatuek eskatuta.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira deialdiak egiteko eskaera aurkezten duten entitate pribatuak.

3. Sortzapena.

Deialdia egiteko eskaera aurkeztean sortuko da tasa. Hala ere, deialdia baimentzean eskatuko da tasa.

4. Tarifa.

Tasaren tarifa 650 eurokoa izanen da ikaspostu bakoitzeko.”

Hamar. III. kapitulua gehitzea XV. tituluari.

“III. kapitulua. Tasa lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeke prozeduran izena emateagatik.

185. artikulua.

1. Zergapeko egintza.

Tasaren zerga-egitatea da izena ematea pertsonen lan-esperientzian edo prestakuntza bide ez-formaletan lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeke prozeduretan.

2. Subjektu pasiboak.

Prozeduran izena emateko eskaera aurkezten duten pertsona fisikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

3. Sortzapena.

Izen emateko eskaera aurkezten den unean berean sortuko da tasa.

4. Tarifak.

Tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:

Aholkularitza faserako izena ematea: 20 euro.

Ebaluazio faserako izena ematea: Hautagaiak izena ematen duen gaitasunaren unitate bakoitzeko: 10 euro”.

Hamaika. IV. kapitulua gehitzea XV. tituluari.

“IV. kapitulua. Tasa profesionaltasun ziurtagirien kopiak luzatzeagatik.

186. artikulua.

1. Zergapeko egintza.

Tasaren zerga-egitatea da profesionaltasun ziurtagirien kopiak luzatzea.

2. Subjektu pasiboak.

Ziurtagirien kopia luzatzeko eskaera aurkezten duten pertsona fisikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

3. Sortzapena.

Ziurtagiriaren kopia eskatzean sortuko da tasa.

4. Tarifa.

Tarifa 10 eurokoa izanen da ziurtagiriaren kopia bakoitzeko.”

Hamabi. Azken xedapenetan lehenengoa. Bigarren lerrokada.

Azken xedapenetan lehengoaren bigarren lerrokada indargabetzen da.

**Bederatzigarren artikulua.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen Foru Legea.

2017eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifak eta Jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen I. eranskineko epigrafe hauek honako testua izanen dute:

Bat. 751.1 epigrafea:

751.1 epigrafea. Ibilgailuak garajeetan eta lokal estalietan gorde eta zaintzea.

Kuota:

Jarduera horretarako azalera 250 metrokoa bada gehienez: 29.910 pezeta (179,76 euro).

Aurreko mugatik gaineko 50 metro karratuko zati bakoitzeko (edo horren zatikiko): 6.624 pezeta (39,811042 euro).

Jarduera horretarako azalera konputatzeko, sarbideak, arrapalak, barneko bideak eta espazio eta elementu osagarri guztiak kenduko dira.



Oharra: Kuota hauek ez dute baimena ematen soilik ordu batzuk, nagusiki gauez sartzen diren kotxeekin txandakatuz, gordetzen diren autoak egunez zaintzeko.

Zainketa mota hori gauzatzen bada, kuotei 100eko 25 gehituko zaie.

**Bj.** Eduki berri bat gehitzen zaio 969.4 artikuluari (Josteta eta Zorizko Makinak), honako testuarekin:

969.4.7 azpiepigrafea. Apustu makinak erregulatzen dituen erregelamenduko makinak, funtzionatzen ari diren tokia edozein delarik ere.

Gutxieneko udal kuota: 77 euro makina bakoitzeko.

Oharra: Makina instalatuta dagoen establezimendu edo lokalaren entitate edo pertsona titularrak ordainduko du kuota, ez beste inork.

969.4.8 azpiepigrafea. Apustu makinak erregulatzen dituen erregelamenduko makinaren titulartasuna, funtzionatzen ari diren tokia edozein delarik ere.

Kuota nazionala: 77 euro makina bakoitzeko.

Oharra: makinaren jabea den pertsonak edo entitateak ordainduko du kuota, ez beste inork.

**Hiru.** 86. elkartzearen barruan (lanbide liberal, artistiko eta literarioak) 863. talde berri bat gehitzen da, honako testu honekin:

“863. taldea. Idazleak. Kuota: 18.300 pezeta”

**Hamargarren artikulua.** 21/1994 Foru Legea, abenduaren 9koa, Nafarroako Parlamentuko ikerketa batzordeek eskaturik, zenbait datu jakinarazteko betebeharra arautzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko ikerketa batzordeek eskaturik zenbait datu jakinarazteko betebeharra arautzeari buruzko abenduaren 9ko 21/1994 Foru Legearen artikulua bakarria aldatzen da.

“Artikulu bakarra.

Nafarroako Foru Komunitateko zerga administrazioek esku artean dituzten zerga aitorten, datu, txosten eta aurrekari guztiak eman beharko dizkiete Nafarroako Parlamentuak sortutako ikerketa batzordeei, bai eta, hala denean, egiaztapen eta ikerketa jarduketaren ondoriozko dokumentazioa ere, horiek eskatzen baldin bazaizkie eta honako baldintza hauek betetzen badira:

Lehena.- Honako pertsona edo entitate hauei buruzkoak izatea:

Bat. Hautaketa edo izendapena tarteko, honako kargu hauetakoren batean jardun duten edo diharduten pertsona fisikoak:

- a) Nafarroako Gobernuako kideak.
- b) Nafarroako Parlamentuko kideak.
- c) Nafarroako toki entitateetako hautetsiak.
- d) Foru Komunitateko Administrazioako departamentuetako zuzendari nagusiak.
- e) Gobernuako lehendakariaren eta kontseilariaren eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren kabineteetako kideak.

f) Izendapen libreko lanpostuen titularrak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan eta erakunde autonomoetan, nahitaez funtzionarioek bete beharrekoak izan ezik.

g) Izendapen libreko lanpostuen titularrak, Nafarroako toki entitateetan eta horien menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan eta erakunde autonomoetan, nahitaez funtzionarioek bete beharrekoak izan ezik.

h) Nafarroako Foru Komunitateko eta Nafarroako toki entitateetako sozietate publikoetako lehendakariak, zuzendari exekutiboak edo baliokideak.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako pertsonen gaur egungo edo ikerketaren arreta-gaia den uneko ezkontideak, bikotekide egonkorak edo bigarren mailarainoko ahaideak (odolkidetasunekoak zein ezkontza bidezkoak) diren pertsona fisikoak.

Hiru. Pertsona juridikoak, zeinetan aurreko idatz-zatiek aipatutako pertsonen zuzenean edo zeharka 100eko 10 baino gehiagoko sozietate-partaidetza izan baitute edo horien zuzendaritzan, aholkularitzan edo administrazioan nolabait parte hartu badute. Idatz-zati honen ondorioetarako, banakako partaidetza gehituko zaio beste sozietate batzuen bidez edo beren izenean jardun arren aurreko idatz-zatietan adierazitakoen kontura egiten duten pertsonen bidez duenari.

Lau. Pertsona juridikoak, Nafarroako Foru Komunitateko eta Nafarroako toki entitateetako sektore publikoekin edozein izaeratako kontratuak sinatu dituztenak edo administrazio publiko horiengandik diru-laguntzak, kredituak edo abalak jaso dituztenak.

Bigarrena.- Ikerketaren xedeak zerikusia izatea kargu horietako jardunarekin edo pertsona juridiko horien jarduerarekin.

Ikerketa batzordeak nahasmenerako biderik eman gabe identifikatu beharko du zer pertsona edo entitateri buruzko datuak eskatzen dituen, eta bere eskaera arrazoitu beharko du datuen lagapena baimentzen duten artikulua honetako baldintzak adieraziz.

Hirugarrena.- Ikerketa batzordearen ustez datu, txosten, aurrekari eta dokumentu horiek izan gabe ezinezkoa izatea bere sortze-eginkizuna betetzea.

Laugarrena.- Zerga administrazioak ikerketa batzordeari bidalitako datuak, txostenak, aurrekariak edo dokumentuak isilpean mantentzea, ikerketaren konklusioetan jasotzen direnak izan ezik”

**Hamaikagarren artikulua.** Abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Tributuei buruzkoa.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorri hogoita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio.

“Hogoita zazpigarren xedapen gehigarria. 2017an geroratzeko baldintza bereziak, kirol-lehia ofizial profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubentzakoak.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko titularrak baldintza bereziak eman ahalko dizkie kirol-lehia ofizial profesionaletan parte hartzen ez duten kirol klubei, Nafarroako Foru Komunitatearekiko 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago sortutako eta urte horretako ekainaren 30a baino lehen likidatu edo erregularizaturiko zergazorren zatikatze-epeari dagokionez.

Zorra ordaintzeari dagokionez, ez da inola ere emanen gabealdirik, ezta hamar urtetik gorako zatikatze-aldirik ere. Kuotak hilekoak izan beharko dira, eta ezin izanen dira gero eta handiagoak izan denboran.

Zatikatzek dirauten bitartean, eman lekizkiekeen diru-laguntza guztiak ofizioz konpentsatuko

dira, bai eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 2. artikuluan definitzen den foru sektore publikoko entitate- etako edozeinekin sina litzaketen babes-kontratuen ondoriozko zenbatekoak ere.

Xedapen honetan aurreikusita ez dagoenari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketa Erregelamenduan ezarritakoari jarraituko zaio”

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

1. Hidrokarburoen gaineko zergaren karga-tasa autonomikoen aplikazioa indargabetzea.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren sortzapenen ondorioetarako, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legearen hamabosgarren artikulua indargabetzen da.

2. 1988ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen VII. tituluaren VI. kapitulua indargabetzen da.

3. Zenbait zerga aldatu eta beste zerga neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria indargabetzen da.

**Azken xedapenetan lehena.** Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.



